

PIERRE LAFITTE-ri OMENALDIA

Luhuso eta Uztaritzen, 2001-IX-21 eta 22

LUHUSON, PIERRE LAFITTEREN SORTETXEAN

Luhuso, 2001-IX-21

2001.eko irailaren 22an, arratsaldeko 17etan, bildu dira: Lohusoko alkatea; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; P. Goenaga, idazkaria; J.A. Arana Martija, diruzaina; B. Oihartzabal, *Iker* sailburua; P. Charritton, Iparraldeko ordezkaria; A. Eguzkitza, X. Kintana; R. de Rijk, euskaltzain ohorezkoa; P. Andiazabal; X. Arbelbide, D. Landart, J.M. Larrarte, J.L. Lizundia, S. Gabunia eta J.J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

J. Haritschelhar eta Alkateak oroitarria estaltzen duen ikurriña kentzen dute. Ondoren bertan agertzen den testua irakurtzen du Euskaltzainburuak: “Etxe hontan sortua da Piarres Lafitte kalonjea, euskaltzaina. Mendeurrenean Euskaltzaindiak, 2001eko irailaren 21a”.

Euskaltzainburuaren hitzekin eta P. Charrittonek “Gernikako Arbola” kantuari hasiera emanez, amaitu da ospakizuna.

PIARRES LAFITTE

*Bernard Auroy,
Uztaritzeko auzapeza*

Mesdames, Messieurs, bonjour.

Je vous souhaite la bienvenue dans cette salle Lapurdi. Je vous prie d'abord de bien vouloir m'excuser parce que je ne pourrai pas rester avec vous durant toute cette journée étant donné que je suis pris par des obligations de maire, mais je voudrais vous souhaiter d'excellents travaux.

A cette occasion je dirai de cet hommage rendu au chanoine Pierre Lafitte, à l'occasion du centenaire de sa naissance et dans ce cadre-là que nous entendrons une communication rédigée par un ancien du collège St François Xavier qui est père jésuite, le père Raymond Saint-Jean qui m'a envoyé de Madagascar cette communication qui vous sera distribuée parce que je n'aurai pas l'occasion de vous la lire ici, étant donné que cela représente quand même pas loin de trois quarts d'heure de lecture.

Donc je vous souhaite d'excellents travaux en compagnie d'un parterre éminent, puisque nous avons des académiciens et des hommes érudits, et je vous souhaite à tous une excellente journée.

PIARRES LAFITTE

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Monsieur le Maire et Conseiller général,

Je vous remercie de l'accueil que vous réservez à l'Académie de la langue basque. En effet, nous sommes réunis en cette salle Lapurdi que vous avez mise à notre disposition pour rendre hommage au chanoine Pierre Lafitte à l'occasion du centenaire de sa naissance. Si nous avons choisi Ustaritz alors qu'hier au soir nous avons apposé une pierre commémorative sur la façade de la maison Salaberria à Louhossoa, sa maison natale, c'est tout simplement parce que le chanoine a vécu pendant près de soixante ans sur les hauteurs du petit Séminaire où il a enseigné et que l'on peut considérer qu'il était Uztariztar.

Cette semaine du 17 au 23 septembre 2001 l'Académie a réuni un Congrès international en hommage à trois de ses membres décédés. A Bilbao les trois premiers jours, nous célébrions Resurrección María de Azkue le premier président de l'Académie, connu pour ses travaux de lexicologie, de grammaire, d'ethnologie ainsi que Julio de Urquijo créateur de la *Revista Internacional de Estudios Vascos* en 1907 qui a permis de rassembler les contributions des bascologues du monde entier et donner une image de marque aux études basques. A Bayonne, Pierre Lafitte était à l'honneur grâce aux apports d'une nouvelle génération de chercheurs issus des diverses universités du Pays Basque, conviés à exposer le fruit de leurs travaux aussi bien en grammaire qu'en études littéraires, domaines de prédilection du chanoine, parmi bien d'autres.

Aujourd'hui l'hommage qui lui est rendu est, en particulier, celui de ses anciens élèves. Pierre Charriton a eu l'idée de cet hommage, c'est lui qui l'a mis sur pied en réunissant des témoignages divers, tous de grande qualité.

Sar gaiten Lafitte-ren omenaldian. Ez dut errepikatuko orai bertan erran dudana. Halere aipa dezadan, barda Luhuson ginela eta Lafitte-ren sortetxean ezarri dugula oroitzapen bat hauxe diona: « Etxe hontan sortua da Piarres Lafitte kalonjea, euskaltzaina. Mendeurrenean Euskaltzaindiak. 2001eko irailaren 21a ». Uste dut harri horrek Lafitte-ren oroitzapena adierazten duela. Salaberria deritzan etxearen aitzinean iraganen direnek jakinen dute nor zen Lafitte bere bizian, apeza lehenik, euskaltzaina gero. Oroitzapenak iraunen du harriak diraueno.

Euskarari buruz lan haundiak egin ditu Lafitte-k, paregabeak bere garaian, omenaldiak ere ukan ditu, merezi zituen bezala. Aipatu balinbadituz atzo, bat bakarrik aipatuko dut orai. Hil berria zen Lafitte agertu zelarik *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian “Hommage à Pierre Lafitte” deritzan zenbakia (1986-ko 114-115. zenbaki doblea) zer idazten nuen:

« C’était en 1977 à Baigorri, je vous y recevais en ma double qualité de maire et d’euskaltzale. En effet, pour la première fois un hommage vous était rendu par l’*Euskaltzaleen Biltzarra*, simple, direct, naturel. Trois discours ponctuèrent vos mérites. Je parlai en premier, Emile Larre ensuite, Michel Labèguerie enfin. En 1982, sur ma proposition, Euskaltzaindia, l’Académie de la langue basque, décidait de rassembler en un livre hommage *Iker 2* les euskalaris du monde entier qui deux ans auparavant s’étaient réunis à Gernika et à Bilbao. Une soixantaine de chercheurs représentant des universités du monde entier, Liverpool, Tbilissi, Moscou, Vienne, Tübingen, entre autres, sans compter celles de France et d’Espagne et les chercheurs de l’Euskaltzaindia, vous offrirent le fruit de leur travail, un splendide ouvrage de 923 pages qui démontre la vitalité de la recherche basque. »

« Ce troisième hommage sera totalement différent, différent parce que je n’ai fait appel qu’à un nombre réduit d’enseignants chercheurs, huit au total, mais les huit, universitaires pour la plupart, tous docteurs d’Etat ou de 3^{ème} cycle, rassemblés dans l’unité associée au CNRS n°1055 - Etudes linguistiques et littéraires basques que j’ai l’honneur de diriger. Différent encore parce qu’en même temps qu’objet d’hommage vous êtes aussi objet d’étude. Il est venu le temps de la réflexion sur toute une vie de travail, de recherche et de production. Celui que José Antonio Arana Martija appelait dans son article de *Iker 2* “El polifacético Pierre Lafitte” mérite que les multiples faces de son oeuvre soient étudiées de manière à saisir toute l’importance de son apport. »

Zenbaki doble horretan enekin parte hartu zutenak dira: Eugène Goyhe-
neche, Georges Rebuschi, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Pierre Charri-
tton, Michel Oronos eta Jean-Baptiste Orpustan.

Engungo biltzar honetan entzunen ditugu haren ikasle izan direnak hogei-
ta hamarreko hamarkadatik hasiz: lekukotasun horiek salatuko dutela nor zen
Lafitte, gizona, apezka, erakaslea, kasetaria eta bertze. Entzunen ditugu ere
Amelia Hernández Mata eta Pako Sudupe, Hegoaldeko bi ikerle, Lafitte-ren
obran sartuak direnak eta aztertzen dutenak. Horiekin hasten da Lafitte-rentzat
bertze garaia; haren obra tesis gaitzat hartua dela.

Lafitte-z oroitzuz, gogoan daukat eta entzuten dut oraindik haren irria, ho-
beki erran haren karkaila, esku batekin joiten zuela ixterra. Euskaltzaindik
Lafitte-ri eskaini ziolarik *Iker 2* deritzan omenezko liburua, Iratzeder-en opa-
ria izan zen olerki eder bat. Hona nola bururatzen den olerkia.

« Bai, basa-mortu lurrak
loratzen dituzten ibaiek bezala,
trabak, mugak, herrak
orroaz gainditzen edo kraskatzen dituzten
itsas-uhainek bezala,
zenduen hezurak
piztu detzazken
Jainkoaren Hatsak bezala,
doala, bakar bezein azkar doala,
denak bozkarioz ihurzurikatzeke,
denak euskal-amodioz elgar besarkarazteke,
Lafit-en betiko
irri-karkaila. »

Ez naiz Lafitte-ren ikasle izana. Aski berant ezagutu dut, baina oroit naiz lehen aldikotz ikusi nuelarik. Gaztea nintzen hogeita hamar eta zenbait urte nituen, hogeita hamalau bat. Euskal Herritik kanpo bizi nintzen, Agen-en, hango lizeoko erakasle nintzela. Espainolezko istudioak eginik, euskara ere banekiela ttipi ttipitik, pentsatu nuen zerbait egin nezakeela euskarari buruz. Bordelen René Lafon ikusirik bakantzetan nintzelarik Baigorri, jin nintzen Baionara Lafitte-ren ezagutza egin beharrez.

Sartu nintzen *Herria* astekariaren bulegoan, aurkitu nuen Lafitte, esplikatu nion nor nintzen eta nola nahi nituen hasi euskal istudioak. Joan zen hermairu batetara eta handik atera ene aitzinean utzi zuen liburu dotzena bat. Hamabi liburu horietan begiztatu nuen berehala Lhande eta Larrasquet-ek Etxahun-i buruz apailatutako liburua, Euskaltzaleen Biltzarrak argitaratua 1946an. Aitortuko dut ez nuela liburu hori ezagutzen eta ez nekiela, orduan, nor zen Barkoxeko olerkaria. Irakurri nuelarik Lhande-ren sarrera ohartu nintzen, Lhande-k idatzirik, beharrezkoa zela ikertzea Agen-eko artxibategian. Eta ni, Agen-en bizi. Aurkitu nituen Etxahun-en herexak Eysses-eko presondegian egon zelarik. Hasian hasi eta ikerketak segituz sortu dira ezagutzen dituzuen ene bi tesiak. Nolzapait Lafitte-ri esker.

Galdegin niolarik Lafitte-ri zenbat zor nion liburu horientzat erantzun zidan:

« *Deusik, aski duzu lanean aritzea* » errepikatuko ditut orain Baigorri Euskaltzaleen Biltzarrak egin zion omenaldian, auzapez gisa mintzatu nintzelarik mintzaldiaren azken hitzak:

« Zor dautzut, Jauna, dudan euskararen amodioa, zor dautzut ene euskaltasuna; hortakotz, bihotzaren zolatik: milesker Jauna. »

L'ABBÉ LAFITTE

Jacques Mestelan

Mes souvenirs remontent à 1933-1934 lorsque j'ai adhéré aux idées de l'abbé Lafitte, qui avait été mon professeur de 3^{ème} au Collège St François Xavier d'Ustaritz. Suivant avec passion le cours d'Histoire du Pays Basque —qu'on appelait en réalité "cours d'Histoire régionale"— qu'il nous donnait, j'ai, grâce à lui, compris ce qui faisait la force et la grandeur de notre Euskal Herri, et lorsqu'il a lancé le mouvement eskualerriste, j'étais tout prêt à partager son action. Je pense que lui-même était heureux de trouver sur place quelqu'un à qui faire part de ses projets et de ses difficultés, malgré la grande différence d'âge qu'il y avait entre nous.

Il faut tout d'abord bien noter le contexte dans lequel nous vivions. Encore proche de la guerre 14-18, les anciens combattants de celle-ci dont nos parents faisaient partie, dirigeaient le pays et "unis comme au front" suivant leur devise, se méfiaient de toute tendance séparatiste. C'est pourquoi, le mouvement eskualerriste se déclara prudemment "régionaliste" (1).

Sur le plan politique, dans les années 1931, Iparralde était un bastion conservateur et le refuge de la droite catholique. Ces valeurs étaient incarnées par Jean Ybarnegaray, député de Basse-Navarre et de Soule de 1914 à 1939, auquel viendront s'ajouter en 1936 Bernard de Coral et René Delzangles dans le Labourd. Les journaux locaux soutenaient ces candidatures, que ce fut *La presse du Sud-Ouest*, *Le Courrier de Bayonne*, *La Gazette* ou l'*Eskualduna*. *Le Sud-Ouest* était plutôt de tendance radicale socialiste.

Le lancement du mouvement eskualerriste par l'abbé Lafitte, matérialisé par une plaquette programme, intitulée "Euskal Herriaren alde", allait troubler le jeu et introduire des éléments nouveaux dans le milieu politique.

Dès sa conception par l'abbé Lafitte, le mouvement eskualerriste suscita l'adhésion d'un groupe de jeunes comme Pierre Amoçain, Eugène Goyheneche, Jean Dubosq, les frères Diharce et quelques autres, ainsi que moi-même.

(1) Voir l'ouvrage de Jean-Claude Larronde *Le mouvement eskualerriste*, Fondation Sabino Arana.

Bien que cette plaquette fût l'oeuvre entière de l'abbé Lafitte, il lui arriva durant sa rédaction, de nous consulter les uns ou les autres, avec une grande modestie, étant donné les différences d'âges et d'évolution intellectuelle qui existaient entre lui et nous.

Le programme du mouvement, personnaliste et régionaliste, était exposé dans des réunions dès sa sortie en 1933, en particulier par Pierre Amoçain et Eugène Goyheneche, accompagnés par l'abbé Lafitte. En ce qui me concerne, pensionnaire à Ustaritz, il m'était difficile de les suivre à quelques exceptions près.

Quoique complètement indépendant du PNV d'Hegoalde, le mouvement était fortement inspiré par ses idées, en référence au programme de Sabino Arana Goiri, d'autant plus qu'Eugène Goyheneche écrivait dans ses journaux ou intervenait même dans leurs meetings. Mais il nous était indispensable d'être modérés dans nos affirmations pour ne pas passer pour des séparatistes dangereux et heurter les susceptibilités, ce qui nous aurait fermé bien des portes.

Nous avions du mal à écrire dans les journaux locaux qui n'acceptaient pas nos articles. Dans une lettre du 6 février 1934 que j'envoyais à Eugène Goyheneche, j'écrivais : « ... j'ai fait quelques articles que j'ai remis à l'abbé Lafitte. Malheureusement La Presse (le journal) tourne mal. Nous lui avons envoyé un lot d'articles, évidemment un peu avancés. Elle n'en a pas inséré un seul. Aussi nous avons eu une autre idée, ce n'est d'ailleurs qu'un vague projet, mais qui pourra, j'espère, se réaliser : celui de fonder un journal ou un bulletin quelconque, mensuel ou bimensuel. En le faisant imprimer chez les Orphelins de Tarbes, M. Lafitte a calculé que cela reviendrait —format un peu plus petit que La presse du Sud-Ouest, dans les 15 francs la colonne— donc pour une page de 6 colonnes : 60 francs. Seulement voilà, l'argent ?... »

En attendant les abonnements, c'est l'abbé Lafitte qui financera lui-même les premiers numéros d'*Aintzina*, imprimé finalement par l'imprimerie Dargains à St Jean de Luz et qui paraîtra sur 4 pages à partir de Novembre 1934. C'est Pierre Amoçain qui recevra pour diffusion les 1000 exemplaires tirés. Le N°2 sera tiré à 750 exemplaires dont 250 pour les premiers abonnés.

Le gérant d'*Aintzina* était Jean Dubosq, boulanger à Ustaritz.

Le programme eskualerriste se résumait dans la devise : "Jainkoa eta Lege zaharra" (Dieu et vieille constitution). D'où Dieu premier servi et recherche dans les vieux statuts d'une base solide pour dépasser une civilisation déjà décadente. Il prévoyait donc une large décentralisation politique et administrative ainsi que l'agrément de la langue basque dans l'administration, les tribunaux et les écoles. La rebasquisation des villes et des villages devait s'effectuer par le livre, le chant, la danse, le théâtre et l'usage courant de la langue.

N'oubliant pas que pour un vrai basque le centre de tous les intérêts est la maison (etchea), ce programme était essentiellement familial, combattant

tout ce qui peut diviser le patrimoine et appuyant toutes les initiatives favorables à la famille, tel que le vote des femmes et l'exercice pour elles du droit d'aînesse. Le parti se déclarait résolument syndicaliste et décidé à étudier le problème de l'émigration basque à l'étranger ou dans les grandes villes.

Enfin il affichait son désir de rester en liaison constante avec les autres groupements régionalistes de Flandre, d'Alsace, de Bretagne, d'Auvergne ou de Provence.

Mais tout en gardant le contact avec les autres partis politiques français, le parti eskualerriste conservait son indépendance et se déclarait prêt, si nécessaire, à présenter aux élections ses propres candidats.

Les premiers abonnements furent recueillis lors de l'assemblée annuelle de l'Eskualzaleen Biltzarra à St Jean de Luz le 13 septembre 1934, et il en fut de même les années suivantes.

Malgré nos efforts communs, comme je le signalais dans une lettre à Eugène Goyheneche en Décembre 1934, nous n'avions à cette époque que 230 abonnés alors qu'il en aurait fallu au moins 500 pour équilibrer le budget.

Malheureusement *Aintzina* cessera de paraître en Octobre 1937 pour des raisons financières et aussi à cause du départ en Université ou ailleurs des militants qui s'en occupaient avec l'abbé Lafitte. Depuis quelque temps déjà Pierre Amoçain, surveillé par la police, avait dû émigrer au Chili où il était entré dans une entreprise familiale.

Pendant trois ans *Aintzina*, auquel collaboreront également certains professeurs plus âgés d'Ustaritz comme l'abbé Lassalle ou l'abbé Aranart, sera non seulement un lien entre les eskualerristes mais surtout un propagateur de sa doctrine personnaliste qui devrait s'imposer dans la famille, les syndicats ou l'Etat et, sans perdre son indépendance, maintenir également ses relations avec le PNV d'Hegoalde.

C'est d'ailleurs l'exemple des "Mendigoizale" mis en place en Pays Basque Sud qui nous inspirera dans la création des "Menditarrak". Les "Menditarrak" avaient pour but de former des groupes de jeunes gens, désireux de pratiquer la marche à pied dans le Pays Basque, de façon à mieux le connaître donc mieux l'aimer et surtout mieux le servir. Nous avons rédigé des statuts provisoires qui étaient fortement inspirés par le règlement d'"Euskadi Mendi-goizale Batza" approuvé en Juin 1933 à Gasteiz.

Mon ami Jean Richter qui avait retrouvé à Paris en préparation à l'Ecole de St Cyr l'un des frères Diharce de St Jean de Luz, participa à la mise sur pied de cette association et de ses statuts.

Parmi les points notables de ces statuts on pouvait noter :

A l'article 1, le but essentiel : « Mieux connaître nos montagnes, conduits par des guides sûrs et expérimentés, en couchant sous la tente et en marchant sac au dos. »

A l'article 2 il était dit : « Nous pouvons être une force pour protéger notre pays et aider ceux qui veulent en garder les saines traditions. »

L'article 4 précisait : « Nous ne faisons pas partie du mouvement eskualerriste, nous gardons notre indépendance, mais nous adoptons ses idées dans l'ensemble ; nous l'aiderons par la propagande, la vente des journaux, etc... »

Un peu plus loin il était indiqué que pour faire partie des "Menditarrak", il fallait avoir 16 ans accomplis, payer une cotisation mensuelle de 2 francs, et que le journal *Aintzina* servirait de trait d'union.

Pour le futur il était envisagé de revoir les statuts et de créer à la tête du groupement un "Biltzar handia" qui serait composé d'un "buruzagi" assisté d'un secrétaire et de deux membres.

Evidemment, un uniforme était prévu, composé d'une culotte de cheval de coutil grise, de bas gris, d'une chemise de même couleur, d'un ceinturon, d'une cravate verte (pour la ville), d'un chandail vert foncé, de chaussures de marche et d'un sac alpin. Il y avait un fournisseur officiel, en la personne de M. Preuilh, rue Port de Castets à Bayonne.

Nous avons même un chant des "Menditarrak" dont le texte était dû à l'abbé Lafitte évidemment et la musique au chanoine Narbaitz :

«Aurrera menditarrak aldaperi gora
Atchik dezagun chutik eskualdun omena...
Gure arbaso maite suharren odola
Garbi eman dezagun gure semen gana.»

etc...

ce qui se traduit par :

En avant "menditarrak" vers les sommets
Gardons ferme notre renom de basque
Le sang que nous tenons de nos chers et bouillants ancêtres
Transmettons le pur à nos enfants...

Dès que l'étoile du matin est apparue dans le ciel
A travers les sentiers humides de rosée
Après offrande faite de notre vie au Seigneur
Nous marchons en chantant, les coeurs légers.

Sans nous soucier du soleil brûlant
Malgré les tempêtes redoutables, nous marchons jusqu'au soir
Imprégnés pour l'Eskual Herria
Du même amour que le fils porte à sa mère.

Les "Menditarrak" ont pu camper deux fois avant leur disparition : en 1936 à St Michel près de St Jean Pied de Port, et en 1937 à Alçay en Soule.

Bien entendu, l'abbé Lafitte était l'aumônier des "Menditarrak" et pour la première fois de sa vie il coucha sous la tente à St Michel, malgré sa santé déficiente. Il ne cessa de m'affirmer que c'est grâce à ce séjour en plein air et sous la tente qu'il put résister aussi longtemps aux malaises qui l'accablèrent toute sa vie.

C'est d'ailleurs lors de ce camp à St Michel qu'un soir Louis Inchauspé, conseiller général de St Jean Pied de Port, vint chercher l'abbé Lafitte pour lui faire rencontrer Rafael Aizpun, député et envoyé du Général Mola, pour essayer de trouver un compromis entre nos amis les nationalistes basques et les carlistes qui soutenaient Franco, alors que les premiers avaient partie liée avec les républicains espagnols, puisqu'ils avaient été attaqués en même temps qu'eux. Mais malgré tous ses efforts, l'abbé Lafitte ne put trouver un terrain d'entente et les troupes franquistes continuèrent à attaquer les Basques du Sud.

Car en effet, depuis le printemps 1936, la guerre civile déclenchée par Franco avait ses répercussions en Iparralde où le journal *Aintzina* était le seul à soutenir le Gouvernement basque autonome du Sud.

Les "Menditarrak" ne comprenaient alors qu'une quinzaine de membres auxquels s'ajoutait un petit groupe animé à Paris par Pierre Haritzandi. Une rencontre avec les "Mendigoizale" avait été prévue dans le courant de l'année, mais du fait de la guerre civile fut remise à plus tard.

Si le camp d'Alçay avait bien eu lieu dans l'été 1937, un certain nombre de problèmes commençaient à se poser.

Les chefs principaux, et moi le premier, devaient partir à l'Université et ne pouvaient revenir qu'aux Grances vacances.

Le recrutement des "Menditarrak" n'était pas entièrement basque. Dans une de ses lettres, en 1938, l'abbé Lafitte avait beau m'écrire : « ... *mais où sont les Basques, au dernier camp j'avais l'impression que le drapeau vert, blanc, rouge était là par condescendance...* », les Jaureguiberry, Diharce, Hirigoyen, Casauran et d'autres contredisaient cette affirmation pessimiste.

Mais nous subissions aussi la pression des chefs et aumôniers scouts de Bayonne qui nous incitaient à transformer notre groupe en troupe scout, car notre recrutement était basé essentiellement sur le collègue d'Ustaritz.

Après un certain nombre d'échanges de lettres entre l'abbé Lafitte et moi à ce sujet, c'est ce qui fut fait, l'abbé Lafitte concluant son dernier courrier à ce sujet : « ... mais tout bien pesé, questions d'amour-propre mises à part, je trouverais bien des avantages à faire des "Menditarrak" de vrais scouts, pourvu que l'on ne démolisse pas leur caractère régional et qu'à l'âge de nos gar-

çons on ne s'entête pas à vouloir d'une formule, excellente sans doute pour des gosses, mais trop enfantine... d'autre part, le cadre scout offre des ressources de chefs, d'aumônier, etc... qui peuvent grouper des troupes orphelines. Je l'avoue, quand je pense à votre service militaire, je me pose un énorme point d'interrogation et peut-être vous demandez-vous ce qui adviendrait si je tombais malade ou si je passais à l'ombre d'une pierre discoïdale. »

Et c'est ainsi que fut créée la 1^{re} Ustaritz des Scouts de France et que se termina l'aventure des "Menditarrak" en 1939.

La guerre de 39-40 et la mobilisation des uns et des autres acheva une dispersion qui devait porter un coup fatal au Mouvement Eskualerriste en tant que mouvement politique alors que grâce à M^{lle} de Jaureguiberry les "Begiraleak" eurent la possibilité de se développer et de se perpétuer jusqu'à nos jours.

Car en effet, une autre création de l'abbé Lafitte, inspirée par le mouvement "Emakume abertzale batza" fondé à Bilbao en 1922, fut celle des "Begiraleak" (les gardiennes), lancée dès le premier numéro d'*Aintzina* par une certaine Augusta Larralde qui n'était autre que lui-même. Rapidement, M^{lle} de Jaureguiberry adhéra à ses idées et put prendre la présidence du mouvement. Pendant des années elle développa le programme des "Begirale" basé sur le maintien de la tradition, de la langue basque, du théâtre et des cours de langue basque. Le début se situa à Gure Etchea de St Jean de Luz au début de 1935 et se répandit dans tout le Pays Basque Nord, jusqu'à avoir 31 responsables locales en Mars 1937.

Malgré les remous que provoqua dans notre pays la guerre civile espagnole, les idées du mouvement eskualerriste firent leur chemin et permirent à un nouvel *Aintzina* de paraître en 1942 avec une équipe de rédacteurs plus jeunes et la collaboration de l'abbé Lafitte.

Les graines qu'il avait jetées en 1933 ont germé et permis aux jeunes générations de continuer à préserver l'identité basque d'une façon plus affirmée que celle que nous pouvions avoir au moment de la fondation du mouvement eskualerriste.

Tout ce que je souhaite c'est que cette évolution continue.

PIERRE LAFITTEREN AITA

P. Andiazabal

Pierre Lafitte mugazain edo aduanazain familia batean sortua zen: aita, aitona eta, nire ustez, hunen aita ere mugazainak ziren. Pabeko artxibotan ikertzen ibili naiz, horien berri jakiteko.

Aitona, Henri Lafitte 1824an sortua zen. Kattalin Ithurraldekin ezkondua, eta 1894an hil zen Baigorriin. Aduanatik jubilatuzenean, tabako denda ttiki bat hartu zuen bere kondu Arrosan. 1892an aduanako buruzagieri gutun bat idatzi zien: bere emaztea galdurik, bakarrik eta eri zagola. Beraz eskatzen zien, bere semea Arrosarat igor zezaten, harekin bizitzeko. Eta ardietsi zuen.

Horren semea, Joseph Lafitte, 1868ko maiatzaren 31n sortu zen Baigorriin.

Aduanan sartzeko egin zuen galdean, ikus daiteke latina eta ingelesa ikasi zituela kolegioan. Gutun bat bada, Lairac jaunarena: hau Donibane Garaziko bigarren mailako ikastetxeko buruzagia zen. Segurtatzen du Joseph Lafitte ikastetxe horretan sartu zela 1881eko urriaren 8an. Hazilaren 15ean zertifikata (certificat d'études primaires) delakoa ardiesten du.

1886eko martxoaren 31n ateratu zen handik. 13 urtetan sartua, 18rekin ateratzen. Eta huna zer ikasten zen ikastetxe horretan: frantsesa, historia, geografia, geometria, aritmetika, fisika, ingelesa eta latina. Haatik ez du erraten zer diploma ardietsi zuen.

1885eko urriaren 28an beraz ikasketak bukatu aintzin, aduanan sartzea eskatzen du. Ez oraindik aduanazain bezala, gazteegia baita, baina "aspirant au surnumériariat", erran liteke aduanazain gai, edo aprendiz. Holakoen lana etzen ordaindua, eta idazki horren egileak azpimarratzen du, aita, aduanako jubilatua delarik, 10 000 liberaren jabe dela, eta bere semearen beharrak aise segurta ditzakeela, aprendiz egonen den garaian.

Bertzalde hau erraten du, eta horrek bazukeen bere garrantzia: «Lafitte familiaren jarrera politikoa arras egokia da (des plus correctes): aita osoki errepublikaren aldekoa da. Lafitte gazteak ez du oraindik bere iritzien berri eman, baina iduri du familian hartu duen politikako heziketa segituko duela.»

Eskaera hori egitean 17 urte ditu, eta Bidarraian lanean ari da, Baionatik Donibane Garazirako tren bidea prestatzen ari den bulego edo langela bateko mutil gisa. Baina aduanan sartzea ez zuen lortu.

1887ko martxoaren 22an, armadan sartzen da, “bolondres”, Tarbes hirian den artillerian, bortz urterentzat. Haatik hiru urte bakarrik egonen da. Armadako haren karnetak dio, ezpata-joko eta gimnasia trebe dela, bai eta igerika badakiela. Horiek guziek erraten digute gizon argia zela, ikasia, iritzi zabalekoa, bai eta atrebitua edo saiataua.

Badakigu semea bere idurikoa izan duela. Armadatik atera aintzin, gradutan joana da: brigadier lehenik, eta sarjant (maréchal des logis).

1890eko irailaren bukaeran armada uzten du eta Bidarraien kokatzen. Aduanan sartzea berriz eskatzen du eta ardiesten. 1891eko maiatzaren lehenan Itsasurat izendatua da; haren urte saria 900 liberakoa da. Gero, badabil herri batetik bestera: Arroza, Azkaine-Serres. 1895eko otsailaren 1ean Anhausen da, sous-brigadier.

1897ko azaroan, Luhosora igorria da, brigadier, erran nahi baita talde tiki baten buru. Urte guziez aintzindariak ematen dituzten nota edo estimatzeak onak ditu: burutsua, argia, lanari atxikia, sail eder bat egin dezake; ibilera aski ona, haste hartan, gero hobea.

1898an: brigadier gazte horren jeinua ahulxkoa da.

Urte hortan ezkontzen da Uztariztar batekin: Marie Viela, Pierre Viela baratzezainaren eta Jana Mari Dabadiaren alabarekin. Anderegaiaren ezkontzapusken balioa 1500 liberakoa da, eta ezkonsaria edo dotea 1500 liberakoa. Marie Viela osagarri tipikoa zen eta maiz eri edo gaixo egonen da. Haurrak ere urrundu beharko dizkiote zenbait denbora.

Hor, bizpahiru urtez haren notak ez dira hanbatekoak: “manque d’initiative”, kabu edo funts eskasa. Luhoson eskandala bat izan da, kalapita aduanazain baten eta haren emaztearen artean, eta emazteak senarra utzi du. Lafitte brigadierak gaztigu bat jasaiten du, gaztigu edo erasiak bederen, ez duelako behar zena egin, menpeko zuen guardaren ibilera xuxentzeko. «Brigadier baten eginbidea da, jakitea eta jakinaraztea bere taldean zer gertatzen den.» Goragoko aintzindariak jakinaraztea, bixtan da.

Urte hortan berean aldaketa bat eskatzen du Miarritze Errausta auzora joateko, bainan ez du lortzen.

1902an notak aldatzen dira: bere taldea behar bezala zuzentzen du; itxura, jokamolde eta ibilera arras onak ditu, obediencia da; beraz goragoko mailera (sous-lieutenant) edo bulegoetako aurkeztua da. Haatik kar edo funts gehiago behar luke.

Jakin behar da aduanan bazirela bi sail berezi: ibilkariak, muga zaintzen zutenak, eta besteak bulegoetan ari zirenak.

1906an beraz bulegoetako sailean sartzen da. Apirilaren 1.an “commis de bureau” (hori da lehen maila) izendatua da eta Frantzia iparraldeko Deulemont

herrira (Lille hiritik hurbil, Belgikako mugan) badoa. Bera bakarrik: emaztea, beti eri dena eta bi haurrak hemen uzten ditu (Pierrek bortz urte ditu).

Zergatik joan zen hain urrun? Pierre Lafittek kondatzen zuen (eta hori familian ikasi zuena zitekeen) bere aita gaztiguz joan zela, desterrura bezala, Luhosoko elizan eskale edo arlote baten ehorzketetako mezan xantregoa egin zuelako elizan kantatu zuelako. Esplikazione horrek badu kanore, orroit bagira garai hartan Elizaren eta Estaduaren artean gatazka gogorra zela.

Baina aduanako artxibotan ez da holakorik agertzen. Bakar bakarrik karta bat, Luhosora igorri ziotena: «Bulegoko enplegu bat ukaiteko aldia hurbiltzen ari zaizu, baina Frantzia hegoaldean ez da hutsik. Enplegu hori lasterrago ukaiteko, urrunago joaitea onartzen al duzu?» Eta huna Joseph Lafitteren erantzuna: «Nire agintariek nahi dutena onartzen dut.»

Gehiago dena, kalonjearen paperetan bada Joseph Lafittek 1906eko martxoaren 17an Jeanne bere Baionako koinatari igorri zion karta: «Herenegun hartu dut Baionako zuzendari jaunaren karta bat. Adminiztrazioak jakinarazten daut nire bulego enplegu batetara izendatzeko aldia hurbiltzen ari dela. Baina hegoaldean ez da luzaroan kargu hutsik izanen (hori kartan azpimarratua da) eta galdegin dautate, nire izendatzea ahalik eta lasterrena ukaiteko, beste edozein eskualdetan enplegu bat hartzeko presta nagoenez. Berehala erantzun diot, Adminiztrazioak errana eginen nuela. Luhosotik laster joanen girela uste dut. Jainkoak eman diezadala leku on batean gertatzea. Ez mintza neho-ri gauza hautaz. Amari errana diot, bai eta Olhagaray jaunari.» (Hau Uztaritzeko auzapeza edo alkatea da).

Gutun horretan berean erraten du Pierre ttikia (bortz urte ditu) Uztaritzen dela, amatxiren etxean. «Eskolara joaiten omen da eguraldi ona delarik.»

Paper horietan beretan bada bertze gutun bat, koinat berari igorria, Deulemont herritik, 1906eko uztailaren 21ean. Hor ageri da aleginak egiten ari direla bere familiaren ganat hurbiltzeko. «Atseginekin ikusi dut Garat jauna nire alde Serech jaunari zerbait eskatzera prest zagoela. Elkar ikusi duzuen arrats berean edo biharamunean jaun horren gana joanen zela hitzmana zuenaz geroz, hunen ganik erantzun bat ukana duke. Horren zain urduri nago.» Karta berean bere emazteaz mintzo da: «Tilh herrira joana da pausatzerara. Landetako aireak on eginen dio»; bai eta bere hurrez ere, beren aita beti aipatzen dutela: «Ez naiz hortaz harritzen, nirekin jolasten eta laztanduak izaten ohituak baitira. Itxaron dezagun gure bereizte hau ez dela luzeegia izanen.»

Ez zen luzea izan, ez zuen sei ilabete iraun. Aduanako paperetan ez da ageri, bai haatik soldado karnetea. 1906ko irailaren 22an, Donibaneko jandarmerian jakinarazten du Urruñan bizi dela, Herburuko aduanaren egoitzan, eta hor bigarren mailako arduradun dela (receveur subordonné).

Beraz, horra familia osoa bildua.

1908ko abenduaren 10ean, berriz ere aldatzea eskatzen du: Ahurti, edo Urketa edo Mugerrera joan nahi luke. Zergatik? Familiaren gatik, haurrak eskolatik urrunegi direlako. Egia da, bide luzea dute egiteko. Haatik ez dakit bigarrena, Alfred biziki ibiltzen den eskolan, eria da eta arta bereziak behar ditu.

Eskaera horren erantzunik ez du izanen, herioa hor baita. Emaztea lehenik, bularretarik eri handi dena, 1909ko urtarrilaren 26an hiltzen da. Eta bera otsailaren 28an.

Hiru egun hil aintzin idatzi karta batean bere osagarriaren berriak ematen ditu.

Ez dira onak: gripea, urdaileko eta hertzetako min bortitzak, asko sofritzen du. Eta berak dio: «Je suis dans un état de dépression nerveuse très accusée.» Berekin ditu bere emazte zenaren aita eta ama, baina hauen eta medikuaren arta hoberenek ere deus ez dezakete egin. Berrogoi urtetan hiltzen da, bi umezurtz uzten dituela.

* * *

Pierre Lafitte apezaren aitaz egin ditut ikerketak Pau hiriko artxibotegian. Berak erran izan du bere aitona aduanazaina zela. Urepelen jaioa. Eta hunen aita Bordeletik etorria zela aduanazain bezala.

Berriz ere jo dut Aduanako artxiboetara. Eta huna zer arkitu dutan. Joseph-en aita, Landes departamenduan jaioa zela, Saint-Julien herrian, 1824eko apirilaren 19an. Henri Pascal zuen izena; haren agirietan emana da: “fils d’employé”, besterik gabe. Zer enplegu ote? Ez dakigu, behar bada aduanako enplegatu?

Badaki irakurtzen eta idazten, eta 1844eko azaroaren hamabian, aduanan sartzen da Baionan; 300 libera urte saria. Gero askotan tokiz aldatzen da: Uzartitze, Beskoitze, Biriatu. 1848tik 1856ra arte, Toulouse eta Perpignan-eko eskualdean dabil. Gero Euskal Herrian gaindi: Beskoitze, Irisarri, Donazaharre, Arroza, eta hortik gaztiguz Baigorri-Urdozera. Hortik Baigorriara, eta 1877an jubilazioa edo erretreta, 53 urtetan. Arras goiz: orduko ohiduren arabera berantago beharko zuen ukan. (Gorago aipatu dut nola izan ziren haren azken urteak). Zergatik hain goiz. Agiriek ez dute erraten, bainan nota txarrak zituzken. Ez da harritzekoa, ikusten delarik zer gertatu zen ezkondu zelarik. Berrogoi urte zituen orduan, eta agiriek diote ibilera txarra eta ahalgegarria duela, gehiegi edaten duela. Andregai, Katalin Ithurralde, ortzaiztarra da; 1825 maiatzaren 16an jaioa, ez da gazte-gaztea: 39 urte. Bere aita-ama xaharrez ongi arduratu da. Haren ezkontsaria ez da nahikoa, baina arras seriosa baita, ezkontzeko baimena ematen diotenek senargaiaren ibilmoldea xuxenduko duelako esperantza dute. Herriko apez, Hita erretora, ez da batere iritzi hortakoa, kontra agertzen da.

Henri Pascal 1894ean hil zen, emaztea 1890 aldean.

PIARRES LAFITTEN SARE INTELEKTUALA (1920-1940)

Amelia Hernández Mata

Sarrera

Jarraian ditugun lerroetan erakutsi nahi genuke nortzuk hartu zuten parte Ipar Euskal Herriko kultur-jardueran 1920 eta 1940 urteen artean, bereziki nabarmendu nahi baitugu Piarres Lafitteren parte hartzea gune kulturealean, 1920.eko hamarkadan sartu zenetik II. Munduko Gerrak euskal ekintza kulturealen bilakaera oztopatu zuen arte.

Lana burutzeko orduko elkarte eta aldizkarietara jo dugu: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Eskualduna*, Eskualzaleen Biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina*.

Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen arduradunek, 1928 arte urtean bi zenbaki argitaratu zituzten eta 1936tik aurrera lau zenbaki urtero. Lankideek frantsesez idazten zituzten artikuluak, elkarte euskara bultzatzearen alde agertzen bazen ere: “Ligne de conduite qui consiste à favoriser l’étude et l’usage du basque et du gascon dans notre rayon d’action” (1).

Eskualduna bi orriko aldizkaria zen, garai batzutan seikoa, eta astero argitaratzen zuten. Euskal herritarrei zuzenduriko argitalpena zen: tokiko berriak eskaintzen zituen eta baserritarren arazoei erantzuna eskaintzen zien, Elizaren alorreko ekintzak espreski aipatzeaz gain.

Eskualzaleen Biltzarrari dagokionez, 1901eko azaroan sortu zen, Hondarribian buruturiko bilera baten ondorioz. Bide batez, esango dugu Hondarribiako batzar hartan euskara zaindu eta hedatuko zukeen Euskal Akademia sortzeko asmoa ere bazutela, baina oso geroago arte, 1919an, ez zen zertu. Izan ere, Eusko Ikaskuntzak aurrea hartu zion Euskaltzaindiari: 1918an Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako diputazioek biltzar bat antolatu zuten Oñatin, euskal kultura oinarri eta helburutzat harturik; horrekin batera, biltzar hartako emaitzei iraukortasuna emango zion erakundearen araudia onartu zuten, Eus-

(1) *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, 1925, 421. or.

ko Ikaskuntza sortuz. Azkenean, Eusko Ikaskuntza bera izan zen 1919ko urrian, berriro ere Diputazioen bultzadarekin, Euskaltzaindia antolatzeko lehenengo ekintzak burutu zituena.

Joseba Agirreazkuenagaren hitzetan (2), Oñatiko kongresuak gizarte be-riaren beharrak islatu zituen, gizarte industrializatuan garatutako intelektua-len beharrak. Jakitun horiek jende ikasia ziren eta jakintza eremu berrietan murgiltzea eskatzen zuten. Horregatik sortu zuten Eusko Ikaskuntza, erakun-de intelektualago bat beharrezkoa zelako. Estornes ere bide horretatik doa Fausto Arocenaren hitzak azpimarratzen dituenean, *RIEV* Eusko Ikaskuntza-ren aldizkaria aurkezteko: “*surgió para poner orden y método, es decir, ciencia, en el campo de nuestras investigaciones*” (3)

Asma daitekeen legez, lan honetan Eskualzaleen Biltzarraren gorabeheren berri izango dugu, *Eskualzaleen Biltzarra* aldizkaritxoaren bidez (4). Euskaltzain-dia eta Eusko Ikaskuntzari dagokienez, jakinaren gainean jarriko gaituzte *Euska-ra* eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* euren argitalpenek, landu nahi di-tugun hamarkadetan elkarte esanguratsu baino esanguratsuagoak izan baitziren.

Eta, nola ez, 1920. eta 1930. hamarkadetan Iparraldean hasiera ikusi zu-ten aldizkariak hartuko ditugu kontuan, garaiko ekintza intelektualen isla izan baitziren, hala nola: *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina*.

Gure Herria aurkeztu zuen *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne* 1920ko abenduko bileran, euskal ohitura, hiz-kuntza eta literatura ez adituengana hurbiltzeagatik laudatuz:

“Le Bureau a estimé qu’il était de notre devoir d’encourager cette initiative de vulgarisation, de décentralisation, et a donné son adhésion à cette oeuvre in-téressante” (5)

Horixe izan zen, hain zuzen ere, *Gure Herriari* emandako ardura, Ed-mond Blazy gerenteak azaldu zuenez: “ils nous ont demandé un organe de vulgarisation” (6). Baina euskal kultura hurbiltzeaz gain, euskaltasuna gora-

(2) Agirreazkuenaga, J. (zuzendaria): *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, 1998, Donostia, 11. or.

(3) Estornes, I.: *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1998)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 97. or.

(4) Eskualzaleen Biltzarrak *Eskualzaleen Biltzarra* aldizkaritxoa argitaratzen zuen. Hala ere, alde batera utzi dugu argitalpen horren idazle eta idazlanak zerrendatzea, eskeinitako datuak ez zirelako esanguratsuak. Izan ere, elkartearen bileren berri ematen zuen urtekari hori oso orri gutxikoa zen: adibidez, 1925eko zenbakiaren artikuluek hamar orri betetzen zituzten eta 1935eko-ek hamabost. Aztertutako 1920 eta 1935 urteen arteko zenbakieta Martin Landerretche, Maurice Souberbielle, Etienne Decrept eta José Eizagirrek sinatu zuten 1920an, Jean Elissalde eta Jean Etcheparek 1922an, Etcheparek 1923 eta 1925ean, Elissalde eta Etcheparek 1926an, Jean de Jau-reguiberryk 1930ean, Jules Moulierek 1932an, Etcheparek 1933an, Dominique Dufauk 1935ean.

(5) *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1920, 163. or.

(6) Blazy, E.: “A nos lecteurs”, *Gure Herria*, 1921, 7. or.

tzea ere helburu hartu zuen, *Eskualduna* eta Eskualzaleen Biltzarrak jabeturiko pentsabideari jarraituz. Izan ere, *Gure Herriaren* artikulua gehienek lerroak ematen zituzten euskaldunen hizkuntza (“véhicule naturel et vivante expression de l’âme de la race” (7)), izaera eta ohitura zaharrak nabarmentzeko, mitifikatzeraino.

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne berriro haritzat hartuz, aldizkari horrek Baionako udalak *Société* delakoari egingako eskaera azaldu zuen 1923an, Euskal Museoa antola zezan; helburua: “sauver de l’oubli, des ravages du temps, du progrès industriel... tout ce qui est pour un peuple la caractéristique de son pays” (8).

Euskal Museoa eratzearen kontra agertu zirenak izan ziren: “ceux qui croyaient créer un conflit entre les fils de l’Eskual-Herria et les Bayonnais ombrageux”. Sortu egin zuten, ostera, zailtasunak ahal zuten moduan saihestuz: William Boissel atzerritarra aukeratu zuten museo berriaz arduratzeko, “*pas basque, pas même bayonnais*” (9), eta bi atal bereiztu zituzten, bat euskalduna eta bigarrena baionesa (10).

Euskal Museoak *Bulletin du Musée Basque* bihilabetekaria kaleratu zuen 1925ean. Museoaren ondareen berri ematearekin batera, jakitunek zehaztasunak agertzen zituzten arkitektura, pintura, ohitura zaharrak, antzerkia eta hizkuntzari buruz, beti Euskal Herrian kokaturik. Hala ere, *Gure Herriak* ez bezala, *Bulletineko* artikulua gehienak ez ziren mitifikaziora heldu. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, artikulua guztiak frantsesez idatziak izateaz gain, bitan baino ez zuten euskara bera gaitzat hartu; bata Henri Gavelek euskararentzako eskatu zuenean gainontzeko hizkuntzek zuten duintasuna:

“Qu’il me soit permis d’exprimer le voeu, auquel vous vous associez certainement, qu’une langue qui renferme de pareilles sources d’intérêt et de beauté, ne soit pas systématiquement laissée de côté dans les écoles de nos villages basques, et qu’elle y soit, au contraire, traitée avec la dignité et le respect qu’elle mérite.” (11)

Bestea, ikuspuntu guztiz diferentea zuena aurrekoarekiko, Camille Julianek —Frantziako Akademiako kidea— hizkuntz erregionalistei buruz hitz egin zuenean, euskara Frantziako hizkuntz nazional eta bateratzailearen indargarri bezala aurkeztuz:

“Le français comme langue, et la France comme patrie n’ont rien à craindre du réveil des idiomes provinciaux; ils ne sont qu’une manière particulièrement terrienne et ‘payse’, si je peux dire, de réaliser des pensées et des rêves de

(7) Ibidem.

(8) *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1932, 141. or.

(9) Ibidem.

(10) Nogaret, J.: “Les origines du Musée Basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 1925, 7. or.

(11) Gavel, H.: “La langue basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 1928, 1-12. orr.

France... Faisant cela, le Musée basque reconstitue et il consolide tout ensemble une province de France." (12)

Baliteke *Bulletinen* agerturiko bi ikuspuntu hauek Museoaren bi sortzaille-taldeen isla izatea, bata euskalduna eta bestea baionesa edo frantsesa. Dena dela, orohar baieztatu dezakegu *Bulletineko* idazleek euskal ezaugarriak goratu eta bereiztu egiten zituztela, hori bai, mitifikazioa alde batera utziz.

Ikusten dugunez, 1920. hamarkadako *Gure Herria* eta *Bulletin du Musée Basque*ko idazleek artikuluak osatu zituzten *Eskualduna* eta Eskualzaleen Biltzarren joera berberarekin, euskal ezaugarriak nabarmentzen baitzituzten kutsu nostalgikoz ikuterik. Ostera, *Revista Internacional de Estudios Vascos* euskaltasunaren ikuspuntu berrituagoa eskaintzen hasi zen, *Euskerak* bezala, antzinako euskal hizkuntza euskara baturantz bultzatzeari ekin ziolarik azken honek.

Dena dela, lan honen jomuga ez da izan artikulotan jorraturiko gaiak aztertzea, intelektuaren parte hartzea neurtzea baino. Beraz, artikuluen mamia dagokionez, lanok gaika sailkatu baino ez dugu egin, zerrenda era landuago baten eskaintzearen.

Eta metodologia aipatzearen, lana burutzeko jarraitu ditugun urratsak azalduko ditugu:

Aldizkariak banan-banan aztertu ditugu, jarraian gainontzeko produkzioarekin erkatuz, konparazioa gure lana burutzeko bidea baita. Lehenengo eta behin, argitalpenen lankideak ordenatu egin ditugu emaitzen kopuruaren arabera, kanpoan utziz bost artikulu baino gutxiago idatzi zituzten idazleak eta, noski, sinatu gabeko lanak.

Bigarrenez, aldizkarietako ohiko lankideak bereiztu ditugu, honako irizpide honi jarraituz: aldizkari bakoitzean gehien idatzi zuenaren artikulu-kopuruaren % 60 atera dugu, eta kopuru hori edo gehiago idatzi zutenak aldizkari hartako ohiko lankidetzat hartu ditugu. Irizpide hori aukeratu dugu intelektuaren emaitza nolabait neurtzeagatik, asko idatzi zutenak bereiztuz.

Horrela, *Gure Herrian* 45 artikulu (76ko %60) edo gehiago idatzi zutenak ohiko lankidetzat hartu ditugu, *Eskualdunan* 274 (458ko %60) edo gehiago, *Bulletin du Musée Basque* 10 (17ko %60) edo gehiago, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* 36 (61ko %60) edo gehiago, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 35 (59ko %60) edo gehiago, *Euskeran* 24 (41ko %60) edo gehiago eta *Aintzina* 30 (50ko %60).

Amaitzeko, aldizkariaren bidez idatzizko produkzio kulturala ezagutu dugun era berean, elkarrekikotasunaren berri izateko garaiko elkarten bileretara jo dugu: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Eskualzaleen Bil-

(12) "Après une visite au Musée Basque", *Bulletin du Musée Basque*, 1932, 277-288 orr.

tzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Gure Herria elkarteak. Batzarretara nortzuk joan ziren sarrien jakiteak bidea eman digu elkarren arteko harremanak suposatzeko; harremanok frogatzen ahalegindu gara eskutitz, idazkien aipamen zein lekukoen elkarriketetara joz. Berriro ere, elkartearen partaidetza neurtu dugu ohikotzat hartuz bileren kopuruaren % 60tan parte hartu zutenak.

1. 1930. ETA 1940. HAMARKADETAKO IHARDUERA KULTURALA

1.1. *Société des Sciences, Lettre et Arts de Bayonne*

Arakatzeko ari garen garaian, hauek izan ziren *Sociétéko* ordezkariak:

Lehendakariak:	Jean Baptiste Daranatz (1930-1940) Hoym de Marien (1920-1929)
Lehendakariordeak:	William Boissel (1923-1940) Albert Constantin (1935-1940) André Grimard (1920-1940) Joseph Nogaret (1930-1935) Antonin Personnaz (1922-1930) Emile Prestat (1922-1930) R. Poydenot (1935-1940)
Idazkariak:	A. Foltzer (1930-1931) Auguste Fourcade (1932-1940) Jean Ribeton (1920-1930)
Idazkari adjuntuak:	René Cuzacq (1930-1931) Joseph Nogaret (1923-1930) Maurice Olphe-Galliard (1935-1940)
Intendentea:	Lacrambe (1920-1940)
Diruzaina:	Lavigne (1920-1940)
Artxibozaina:	Camguilhem (1920-1940)

Elkartearen batzarretara joan zirenak ezagutzeko 1920 eta 1923 urteetako kideen berri baino ez dugu izan, zeren eta elkarteak argitaratzen zuen aldizkariak 1923ko abendua arte baino ez zituen aipatu bileretara joaten ziren kideak; orduz geroztik, horren berri ez ematea erabaki zuten, zerranda luzee-gia bilhurtzen ari zelakoan: “dépasant 80 à la séance, le Bureau a décidé de ne plus donner dans le Bulletin les noms des présents.” (13)

(13) *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, 1923, 310. or.

1920-1923 urte horien artean 31 bilera burutu zituzten. Buruzagiak sarri joaten ziren biltzarretara: Hoym de Marien zuzendaria 23tan egon zen eta Jean Baptiste Daranatz 5tan, oraindik zuzendaria ez zelarik. Lehendakariordeek ia guztietan hartu zuten parte, William Boissel 19tan, Albert Constantin 12tan, André Grimard 24tan, Joseph Nogaret 19tan Antonin Personnaz 18tan, Emile Prestat 15etan eta Raymond Poydenotek 7tan (1935 arte ez karguduna). Foltzer idazkaria 3tan egon zen, Auguste Fourcade 12tan eta Jean Ribeton 25tan, idazkarien artean leialena. Lacrambe 4 bileratan baino ez zen agertu, Lavigne 11tan eta Camguilehm 18tan. Hori ikusirik, baieza genezake Boissel, Camguilhem, Grimard, Hoym de Marien, Nogaret, Personnaz, eta Ribetonek aukera izan zutela elkarren arteko harremanak sustatzeko (gutxienez bileren kopuruaren %60 -18 bilera- egon ziren).

Ostera, buruzagiez gain, gainontzeko kideak inoiz edo behin baino ez ziren azaldu bileretan; ohiko moduan bakan batzuk baino ez: Edouard Casedevant 24 bider, Joachim Labrousche 23 eta F. Lefort 18. Maiztasunez joan ziren ere: Henri Gavel 17 bider, Elie Bousquet 15, Duvot 19, F. Lefort 18, Louis Dours 17 eta A. Larrieu 17.

Jarraian dugun laukian ikusiko dugun legez, hainbat buruzagik, elkarkez arduratzeaz gain, artikulak idatzi zituzten: Daranatz (5 bilera-61 artikulak) Grimard (24 bilera-5 artikulak), Lacrambe (4 bilera-5 artikulak), Nogaret (19 bilera-10 artikulak) eta Poydenotek (7 bilera-5 artikulak). Aldiz, biltzarretara joaten ziren ez kargudunen artean bik baino ez zuten aldizkarian idatzi: Casedevantek (24 bilera-5 artikulak) eta Gavelek (17 bilera-7 artikulak):

**ARTIKULUEN SAILKAPENA GAIEN ARABERA. BULLETIN DES
SCIENCES, LETTRES ET ARTS DE BAYONNE (1920-1940)**

	Fil. (14)	Ein. (15)	Geo. (16)	Hist. (17)	Art. (18)	Lit. (19)	Zient.	Politika Zuzenb. Gerrak	Erljioa	Ekon.
Boissel, W.				1						
Burguburu, P.							3	3		
Casedevant, E.				3				2		
Colas, L.				1						
Courteault, E. H.		1		4						
Croste, R.	1	1			1		6			
Cuzacq, R.				4		1	2		1	
Daranatz, J. B.	1	5		37	2	2	4	1	9	
Dop, P.				1				1	1	
Ducéré, E.				8						
Etchats, R.				1			3			
Etcheverry, M.				27		3		1	2	
Fernández, S.	1	1				6			4	
Foix, V.	1								1	
Gavel, H.	2			2		2	1			
Grimard, A.				4		1				
Hérelle, G.					7					
Lacombe, G.				1		1				
Lacrambe		1		2			1	1		
Lamarque, J.				2						
Lambert, E.					2		3			
Léon, A.			1							
Nogaret, J.			7	2					1	
Nussy-Saint-Saens, M.		5		1						
Poydenot, R.			4		1					
Rectoran, P.			1		2					
Reicher, G.G.			3	1						
Saint-Vanne, A.			1	4						
Veyrin, Philippe										
Viers, G.										6
Vinson, J.	5									
Voulgre, A.		1				1	1			2
Yturbide, P.				2						

(14) Atal honetan sartu dugu: Euskal Fonetika, Ortografia, Lexikografia, Semantika, Gramatika, Onomastika, Toponimia, Linguistika, Dialektoak; hizkuntzen arteko konparazioa.

(15) Euskal arraza, beste herri batzuetako ezaugarriak, ohiturak, lanbideak, folklore, toki-ko gertaerak, kirolak, jokoak, janzkera. Etxea, Eskola, Jauregiak, Eliza, hilarriak.

(16) Bidaiak, Euskal Herrian zehar eta kanpora; Euskal Herriko herriak, Giza Geografia.

(17) Euskal Herriko Prehistoria, Historia, Biografiak, Epigrafiak, Eskuizkribuak, nota nekrologikoak, Aktak, Genealogia.

(18) Euskal musika eta dantza; Margolaritza, Eskultura.

(19) Euskal esaera zaharrak, errefrauak, kondairak, eleberrak, antzerkiak, Pastoralak, ipuinak, abestiak; Literatura klasikoak, Kritika literarioa, itzulpenak, liburuen aipamenak.

Lankideak ordenatuz gero idatzi zuten artikuluen kopuruaren arabera, honako zerrenda hau izango dugu:

Artikuluak
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne (1920-1940)

Izena		Adina 1940ean
Boissel, William	1	71
Colas, Louis	1	†1929 60
Léon, Albert	1	57
Veyrin, Philippe	1	40
Foix, Joseph	2	
Lacombe, Georges	2	61
Lamarque, Jean	2	
Yturbide, Pierre	2	†1920 72
Dop, Pierre	3	65
Rectoran	3	
Reicher, Gilberte Guillaumie	4	
Burguburu, Paul	5	
Casedevant, Ed.	5	
Courteault, Em. Henri	5	
Grimard, A.	5	
Lacrambe	5	
Lambert, E.	5	
Poydenot, Raymond	5	
Saint-Vanne, A.	5	
Vinson, Julien	5	†1926 83
Voulgre, André	5	
Nussy-Saint-Saens, Marcel	6	
Viers, Georges	6	
Gavel, Henri	7	60
Hérelle, Georges	7	†1935 87
Ducéré	8	
Cuzacq, René	8	40
Croste, René	9	
Nogaret, Joseph	10	†1934 72
Fernández Giménez, Santiago	12	
Etcheverry, Michel	33	†1922 48
Daranatz, Jean Baptiste	61	76

Laburbilduz, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen* inguruan lan egin zuten intelektualek ez zuten maiz idatzi elkartearen aldizkarian: Jean Baptiste Daranatz, *Société*ko lehendakaria ohiko idazle bakarra izan zen elkartearen argitalpenean (36 artikulua baino gehiago idatziz) eta Michel Etcheverry ia ohikoa.

1.2. *Eskualduna*

Lafittek *Eskualdunan* lehenengoz 1921ean idatzi bazuen ere, Saint Pierre 1925ean astekariaren gidari izendatu zutenean (20) hasi zen erregulartasunez idazten: 81 artikulua argitaratu zituen Saint Pierren bost urtetako zuzendaritzapean. 1929ko abuztutik 1933ko abendua arte izan zen Lafittek *Eskualdunan* sarrien idatzi zuen aroa, zeren eta Michel Iriartek, Ustaritzeko errektorak, “Ebanjelio” izenburuko artikulua prestatzen zuen *Eskualduna* astekarirako, eta 1929an hil zenean Lafittek lan horri ekin baitzion (21).

1930an Dominique Soubelet aukeratu zuten *Eskualduna* gidatzeko Saint Pierren ostean, 1930ko irailetik 1937ko martxo arte. Lafitten Soubeletekiko harremanak txarrak baziren ere (22), 1930ko hamarkada hartan ere asko idatzi zuen *Eskualdunan*: 142 artikulua, 128 “Ebanjelioa” izenburudunak izanda. Ostera, 1937ko martxoan Salbat Arotçarenak Soubelet ordezkatu zuenean, 1944an astekaria debekatu zuten arte, Lafittek 15 artikulua baino ez zituen idatzi (23).

Lafittekin batera, honako intelektual hauek idatzi zuten *Eskualdunan* aztertzen ari garen bi hamarkadetan:

ARTIKULUEN SAILKAPENA GAIEN ARABERA. *ESKUALDUNA (1921-1940) (24)*

	Filologia	Etnologia	Geografia	Historia	Arteak	Literatura	Zientziak	Politika Zuzenbidea Gerrak	Erljioa	Ekonomia
Altube, S.	1									
Apestéguy, L.		8						99	1	1
Arbeletche, H.	1	5				2				1
Arotçarena, S. (25)	11	26				2		167	30	12

(20) Jean Saint Pierre, *Eskualdunaren* zuzendari izendatu zutenean, astekariaren lehenengo orrialdean idazten hasi zen, J.S.P.-z sinatuz; polika edo ekonomia gaiak oinarritzat harturik, komentarioak egiten zituen. Herriko gertakizunak ere aditzera ematen zituen bigarren edo hirugarren orrialdeetan.

(21) Xarriton, P.: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak (1877-1935)*. I *Euskal Gaiak*, 1984, Donostia, Elkar, 351. or.

(22) “Domingo Soubelet, Hazparnekoa, Lafitten eskola laguna, hau zaharragoa izanagaitik. Bainan Seminariotik ja oso gaizki konpontzen ziren biak, ez ziren batere ideologia bereko. Eskuara ongi zekien Soubeletek, ama hizkuntza zuen eta irakurria zuen eskuara tradizionala, bainan ez zen batere intelektualala, eta frantses, frantses, gerlari ohia”, Pierre Xarritonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6^a.

(23) “Lafittek utzi zion *Eskualduna*-n idazteari, eta *Aintzina* sortu zuen *Eskualduna*-ren kontra, Soubeleten aurka, han ez zuelako lekuri bere ideien agertzeko. Gero, Soubelet eriturik, Arotçarenak hartu zuen *Eskualduna*, eta hastetik Mola eta Francoren alde, abertzaleen aurka jarrazti”, Murua, I.: “Piarres Xarritoni elkarrizketa”, *Jakin*, 1996ko azaroa-abendua, 101-102 orr.

(24) Ezinezko izan zaigu *Eskualdunaren* 1920ko alerik aurkitzea, ez Beloken, ez Baionako udal liburutegian, ezta Euskal Erakustokiko liburutegian ere.

(25) Salbat Arotçarenak, “S. A.”-z gain, “Eztena eta “Chokoko artzaina” izengoitiez sinatu zuen *Eskualdunan*, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, III. liburukia, 1978, Aulamendi, Donostia.

	Filologia	Etnologia	Geografia	Historia	Arteak	Literatura	Zientziak	Politika	
								Zuzenbidea	Erlijioa
								Gerrak	
Barbier, J.		3				74	1	1	
Camino, A.		2					1	3	
Dassance, L.		2		1			3		16
Delzangles, F.							3		
Dufau, D.		2							
Duhour, P.		433	14				1	3	7
Echegoyen, D.								6	1
Elissalde, J.	28	62		4		42	7	13	3
Etchepare, J. (26)	2	16		16		18	69		
Goyheneche,		2						64	1
Héguy, J.		2						1	
Iriart, M.		1						2	16
Irigarai, P. F.	2	342				10	2	10	
Istillart, G.		6					3	3	23
Lafitte, P.	2	20	1	1		9	3	18	184
Larzabal, P.		2				3			
Lassalle, J.		7				1			1
Leon, L.		4						11	
Lissar, J.								1	
Menditte, A. de	2	14		1		2	1	1	108
Minvielle							13		
Moulier, J.	3	22				2		46	6
Otacéhé, A.		10						415	3
Saint Pierre, J.	46	2	5		8	1	89	20	9
Soubelet, D.		71	2	2		14	11	241	16
Souberbielle, M.							56		19
Ybarnégaray, J.								10	1

Eta artikuluen kopurua eta idazleen adina kontutan harturik, honako zerrenda hauek osatu ditugu:

Izena	<i>Société des S.A.B.</i> (1920-1940)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	Adina 1940an
Dufau, Dominique		3	
Héguy, Julien		3	†1930 70
Larzabal, Pierre		5	25
Camino, A.		6	
Echegoyen, D.		8	
Arbeletche, H.		9	
Lassalle, Leon		9	59

(26) Pierre Xarritoni esker jakin dugu *Eskualdunan* agertzen diren "Irrihotz", "Pindar" eta "Tandil" goitizenak Jean Etcheparearenak zirela, Xarriton, P.: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak (1877-1935)*... 6. or.

Izena	<i>Société des S.A.B.</i> (1920-1940)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	Adina 1940an
Ybarnégaray, Jean		11	57
Minvielle		13	
Leon, Léon		15	44
Iriart, Michel		19	
Dassance, Louis		22	52
Istillart, Gratien		35	76
Souberbielle, Maurice		56	67
Goyeneche		69	
Barbier, Jean		79	†1931 56
Moulier, Jules		82	52
Apestéguy, Laurent		109	†1928 41
Etchepare, Jean		121	†1935 58
Menditte, A. de		129	
Elissalde, Jean		159	57
Saint-Pierre, Jean		180	56
Lafitte, Piarres		238	39
Arotçarena, Salbat		248	
Irigarai, Pablo Fermín		366	71
Soubelet, Dominique		370	43
Otacéhé, Maurice		428	
Duhour, Pierre		458	50

Eskualdunarako idatzi zuten 28 lankideetatik lau ziren ohiko lankide, 274 artikulu (458ko %60) edo gehiago argitaratuz: Pablo Fermin Irigarai “Larreko” (71 urterekin 1940an), Soubelet (43 urte), Otacéhé eta Duhour (50 urte); 39 urteko Lafittek ere nahikotxo idatzi zuen: 238 artikulu.

Laukiak erakusten duen legez, *Eskualdunaren* lankideetatik inork ez zuen *Société*raiko artikulurik idatzi 1920. eta 1930. hamarkaden artean.

1.3. *Eskualzaleen Biltzarra*

1926an Piarres Lafitte Eskualzaleen Biltzarraren kide kotizatzailea izan zen lehenengoz, Eskualzaleen Biltzarra elkartearen argitalpenak bazkideen zerrendetan erakusten digun bezala (27). Baina Eskualzaleen Biltzarraren kronikariak ez du Piarres Lafitte bileren partaide bezala aipatzen 1928. urtea arte,

(27) *Eskualzaleen Biltzarra*, S. Sordes inprimatzailea, 1927.

euskalzaleak Azkainen elkartu zirenean. Ikus dezagun nortzuk egin zuten topo aipatu elkartearen bileretan (28):

Eskualzaleen Biltzarra, 1921eko iraila, Donibane Lohizune: Beignatborde, Bernard, Bouquillard, Etienne Decrept, Michel Delgue, Alexander Diesse, Jean Baptiste Diriar, Jean Errecart, Alexandre Etcheverry, Louis Fargeot, Gaston Grattau, Jean Lacoste, Pierre Lacoste, Laffont, Martín Landerretche, Isaac López de Mendizabal, Nogues, Sallaberry, Sebastian Sancinena, Maurice Souberbielle

Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule: Bernard Ahetz-Etcheber, Louis Dassance, Etienne Decrept, Jean Baptiste Diriar, José Eizagirre, Jean Baptiste Heugas, Martin Landerretche, Pierre Lhande, Maurice Souberbielle

Eskualzaleen Biltzarra, 1925eko iraila, Sara: Dámaso Intza, Georges Lacombe, José Miguel Barandiaren, Jean Saint-Pierre

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze: Adolpho Alzuyeta, Laurent d'Andurain de Mayte, Béguerie, Albert Constantin, Secundo Barrueta, Hippolyte Daguerre, Louis Dassance, Michel Delgue, Jean Baptiste Diriar, Doyhenart, Dominique Dufau, Jean Duhart, José Eizagirre, Jean Etchepare, Bertrand Fagalde, Louis Galan, Jean Baptiste Heugas, Jean Baptiste Heuty, Hirigoyen, Michel Iriart, Pablo Fermín Irigarai, Lardizabal, Jean Pierre Larregain, Lazcano, Pierre Lhande, Isaac López de Mendizabal, Jean Pierre de Menditte, Jules Moulier, Rotaetche, Sallaberry

Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine: Laurent Altabe, Adolpho Alzuyeta, Maurice Amestoy, Jean Barbier, Joseph Basterretche, Prudent Basterretche, Albert Constantin, Hippolyte Daguerre, Louis Dassance, Michel Diharce, Jean Baptiste Diriar, Dominique Dufau, Duguine, Etienne Durruty, José Eizagirre, Mayi Elissalde, Elissetche, Jean Etchepare, Alfred Etcheverry, Jean Baptiste Halsuet, Hirigoyen, Michel Iriart, George Lacombe, *Piarres Lafitte*, Jean Pierre Larregain, Mayi Lascanoteguy, Jean Lissar, Isaac López de Mendizabal, Jean Pierre de Menditte, Armand Ordosgoity, Jean Ybarnégaray

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu: Maurice Amestoy, Laurent d'Andurain de Mayte, Albert Constantin, Louis Dassance, Jean Baptiste Diriar, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Jean Baptiste Heugas, Jean Lissar, Isaac López de Mendizabal, Maurice Souberbielle, Jean Ybarnégaray

(28) *Eskualzaleen Biltzarra* eta *Gure Herria* argitalpenek Eskualzaleen Biltzarren bilerei buruzko datuei jarraitu diegu parte hartzaileen berri izateko. 1923, 1924, 1927, 1930 eta 1934. urteetako bileretan egon zirenei buruz, oster, ez digute zehaztasunik eman.

Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Ezpeleta: Jean Etchepare, Jules Moulier

Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi: José Ariztimuño, Louis Dassance, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jules Moulier, Jean Pierre Passicot

Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso: José Ariztimuño, Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Teodoro Ernandorena, Pedro Garmendia, Eugène Goyenèche, Jean de Jaureguiberry, *Piarres Lafitte*, Jules Moulier, Nicolás Ormaetxea, Dominique Soubelet

Eskualzaleen Biltzarra, 1935eko iraila, Atarratze: José Ariztimuño Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean de Jaureguiberry, Jules Moulier. Maurice Souberbielle

Eskualzaleen Biltzarraren batzarretara behin baino joan ez zirenak albo batera utziz, hauxe ikusten dugu:

— Adolpho Alzuyeta, Maurice Amestoy, Laurent d'Andurain de Mayte, Hippolyte Daguerre, Etienne Decrept, Michel Delgue, Jean Baptiste Heugas, Hirigoyen, Michel Iriart, Jean de Jaureguiberry, Georges Lacombe, *Piarres Lafitte*, Martín Landerretche, Jean Pierre Larregain, Pierre Lhande, Jean Lissar, Jean Pierre de Menditte eta Jean Ybarnégarayk **birritan** hartu zuten parte Eskualzaleen Biltzarrak antolaturiko batzarretan.

— José Ariztimuño, Albert Constantin (Eskualzaleen Biltzarra elkartearen lehendakariordea 1922 eta 1933 urteen artean) eta Maurice Souberbielle (lehendakariordea 1920 eta 1921 urteen artean eta kolaboratzailea 1923rik 1935 arte) **hirutan**.

— Jean Elissalde (idazkaria 1922tik 1935 arte), Jean Etchepare (lehendakaria 1922 eta 1925 urteen artean eta kolaboratzailea 1926 tik 1935 arte) eta Isaac López de Mendizabal **lau bider** joan ziren delako bileretara.

— Jean Baptiste Diriar (diruzaina 1920 eta 1930 urteen artean), Dominique Dufau (kolaboratzailea 1926 eta 1930 urteetan artean eta diruzaina 1931tik 1935 arte) eta Jules Moulier (kolaboratzailea 1925ean eta idazkari adjuntua 1926 eta 1935 urteen artean) **bost bider**.

— Louis Dassance (lehendakariordea 1922 eta 1925 urteen artean eta lehendakaria 1926tik 1935 arte) eta José Eizagirre (lehendakaria 1920 eta 1921 urteen artean) **zazpi bider**.

Constantin, Dassance, Diriar, Dufau, Eizagirre, Etchepare eta López de Mendizabalek 1926, 1928 eta 1929 urteetan topo egin zuten; era berean, Ariztimuño, Dassance, Eizagirre eta Elissalde 1932, 1933 eta 1935ean joan ziren bilera horietara; Dassance, Dufau eta Eizagirre 1926, 1928, 1929, 1933 eta 1935 urteetako bileretan elkartu ziren; Dassance, Eizagirre eta Elissalde 1929, 1932, 1933 eta 1935 urteetakoetan; Dassance, Eizagirre eta Moulier 1926,

1932, 1933 eta 1935. urteetakoetan. Beraz, Louis Dassance eta José Eizagirre izan ziren Eskualzaleen Biltzarraren bileretan harreman estuak lortzeko aukera gehien izan zutenak, sarrien parte hartu zutenak izan baitziren. Azpimarratu beharra dago Eizagirreren leialtasuna; azken baten, gainontzeko guztiek karguari zetxekzion erantzunbeharra zuten eta Eizagirre, lehendakaria urte bat baino ez izan arren, zazpi bileretara joan zen.

Piarres Lafitte gutxi hurbildu zen direlako bileretara: 1928 eta 1933 urteetan baino ez.

Orain arte aztertu ditugun bi elkarteak konparatzen baditugu, ikusiko dugu *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Eskualzaleen Biltzarra taldeen arteko lankide komunik ia ez zegoela, bileretara joaten zirenen artean behinik behin. Elkarte bietako batzarretan parte hartu zutenak hauek baino ez ziren izan:

Dassance, Louis: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko ekaina, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko abendua, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko urtarrila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko otsaila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko martxoa, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1922ko iraila, Maule. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko otsaila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1926ko iraila, Atharratze. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1928ko iraila, Azkaine. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Donapaleu. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1931ko iraila, Maule. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1932ko iraila, Donibane Garazi. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhoso

Diesse, Alexander: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko urtarrila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1921eko iraila, Donibane Lohitzune. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1920ko azaroa, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko abendua, Baiona.

Lacombe, George: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko urtarrila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko martxoa, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko ekaina, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko apirila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko azaroa, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1925eko iraila, Sara. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1928ko iraila, Azkain.

Moulier, Jules: *Eskualzaleen Biltzarra*, 1926ko iraila, Atharratze. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Donapaleu. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1931ko iraila, Maule. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1932ko iraila, Donibane Garazi. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhoso. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko ekaina, Baiona.

Louis Dassance Eskualzaleen Biltzarren sei bileretan egon zen eta *Sociétéren* zazpi batzarretan; beraz, parte hartzearen maiztasuna berdintzua izan zen bietan, Eskualzaleen lehendakariordea eta lehendakaria izan zen Dassance intelektuolari zegokionez. Hain zuzen ere, *Eskualdunan* ere idatzi egin zuena (22 artikulua), ohiko lankidea izan ez bazen ere.

Ostera, Georges Lacombe *Sociétéren* bost bileretara joan zen, Eskualzaleen Biltzarrekoekin birritan elkartu zelarik; eta Jules Moulier behin baino ez *Sociétékoekin* eta bost bider Eskualzaleen Biltzarrekoekin.

Argi dago, beraz, Eskualzaleen Biltzarra eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarrearteko partaideen artean harreman gutxi egon zirela.

1.4. *Eusko Ikaskuntza*

Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos. Eusko Ikaskuntzaren Deiak (29), Eusko Ikaskuntzaren hiruhilabetekariak, elkarrearen Batzar Iraunkor eta Batzar Nagusien bileren berri ematen zuen, 71 bilera guztira 1920 eta 1935 urteen artean (30). 71ko % 60 (42 bilera) edo gehiagora joan zirenak hauek izan ziren: José Aguirre (diruzainordea 1920tik 1936ra, 49 bileratan egon zen), Angel Apraiz (idazkari orokorra 1918tik 1936ra, 67tan), Telesforo Aranzadi (batzorkidea 1918tik 1936ra, 67tan), Claudio Armendariz (batzorkidea 1928tik 1932ra, 63tan), Enrique Eguren (batzordekidea 1918tik 1934ra, 52tan), Julián Elorza (lehendakaria 1918tik 1936ra, 54tan) eta Julio Urkijo (lehendakariordea eta batzordekidea 1918tik 1936ra, 53tan).

Orain arte aztertutako hiru elkarreko argitalpenen datuei jarraituz, Eusko Ikaskuntzaren batzarkideak ez ziren Eskualzaleen Biltzarra edo *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarrean batzarretara joaten: Barandiarán, Eusko Ikaskuntzaren batzarkidea zena, Eskualzaleen Biltzarren bilera batera baino ez zen joan; eta Pedro Garmendiak, Eskualzaleen Biltzarren bileretan behin baino ez zuen parte hartu, Eusko Ikaskuntzarenetan hamar bider egon zen era berean.

(29) Eusko Ikaskuntzak lau argitalpen kaleratu zituen aldizkakotasunez 1920. eta 1930.eko hamarkadetan: *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos. Eusko Ikaskuntzaren Deia* hiruhilabetekaria, *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* urtekaria, *Memoria de la Sociedad* urtekaria eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* sei hilabetekaria, 1907an Julio Urkijok sorturikoa eta 1921ean Eusko Ikaskuntzaren aldizkari ofizial bihurtu zena. Gure lanerako lehenengoa erabili dugu, batzarren berri ematen zuelako; eta intelektualen idatzizko lana neurtzeko azkenengoa iruditu zaigu egokien, idazlan kopuru handien jaso zuena izan baitzen.

(30) *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkaria argitaratzea 1936an eten egitean, 1935 urte arte baino ez dugu Eusko Ikaskuntzaren bileren berri.

Beste aldetik, aldizkarietako lankideak erkatzearekin jarraituz, hona hemen nola geratzen den laukia *Revista Internacional de Estudios Vascos* seihi-labetekariaren idazleak gehitu eta gero:

Izena	<i>Eskualdunan</i> (1921-1940)	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	Adina 1940an
Barbier, Jean	79		1	†1931 56
Reicher, Guillaumie		4	1	
Alford, Violet			2	59
Campion			3	†1937 83
Etxegarai, Carmelo			3	†1925 60
Lhande, Pierre			3	63
Munarriz, E.			5	
Pérez Goyena, Antonio			5	
Barandiaran, José Miguel			6	51
Bosch, Pedro			6	
Hérelle, Georges		7	6	87
Léon, Albert		1	6	57
Vinson, Julien		5	6	83
Aguirre, José			7	56
Gurruchaga, Ildefonso			7	
Meyer-Lübke, W.			7	
Ormaetxea, Nicolas			8	52
Foix, Joseph			9	
Areitio, Darío			10	
Gavel, Henri		7	12	60
Lafon, René			12	
Lekuona, Manuel			12	46
Mugica, Serapio			12	86
Spitzer, Leo			12	
Veyrin, Philippe		1	12	40
Uhlenbeck, C. C.			13	64
Urabayan, Leoncio			13	52
Etxegarai, Bonifacio			14	62
Saroihandy, Jean			14	†1932 65
Schuchard			14	†1927 85
Apraiz, Odón			15	56
Arocena, Fausto			15	44
Bahr, Gerhard			15	40
Apraiz, Angel			17	55
Guerra, Juan Carlos			17	80
Mugartegui, Juan José			17	
Daranatz, Jean Baptiste		61	18	70
Garmendia, Pedro			20	

Izena	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i>		RIEV (1920-1936)	Adina 1940an
	<i>Eskualdunan</i> (1921-1940)	<i>(1920-1940)</i>		
Irigarai, Angel			20	
Eleizalde, Luis			22	†1923 50
Giese, Wilhiam			22	
Valle, Alfonso del			23	
Donostia, José Antonio			25	54
Anguiozar, Martín de			36	
Aranzadi, Telesforo			43	80
Gárate, Justo			44	
Urquijo, Julio			52	70
Lacombe, Georges		2	59	61

*RIE*veko ohiko lankideak Martin de Angiozar, Telesforo Aranzadi, Justo Gárate, Julio Urquijo eta Georges Lacombe izan ziren.

Aurreko laukiak erakusten digunez, *RIEV* aldizkarirako zerrendatu dugun 48 idazleetatik batek baino ez zuen Iparraldean argitaraturiko *Eskualdunan* artikulurik idatzi, eta bakar horrek, Jean Barbierrek, artikulua bakarra idatzi zuen *RIE*Ven.

Baten batek *Société*n zein *RIE*Ven idatzi zuen: Jean Baptiste Daranatz, *Société*n ohiko lankidea zen eta *RIE*Ven 18 artikulua idatzi zituen; Guillaumie-Reicher, Albert Léon eta Julien Vinsonen artikuluen kopurua, ostera, ez zen dozenara heldu bi aldizkarien artean, Georges Hérellek 13 artikulua idatzi zituen bi aldizkarien kopuruak baturik eta Henri Gavelek 19 idazlan bien artean.

Beraz, 1920. eta 1930. hamarkadetan idazle gutxi idatzi zuten alde berean *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *RIEV* aldizkarietan, eta batek baino ez *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *RIEV* argitalpenetan.

1.5. *Euskaltzaindia*

Orain arte, Lafitteri buruz esandakoa biltzarren, ikusi dugu Piarres Lafitte *Eskualdunan* langile sutua izan bazen ere, Eskualzaleen Biltzarran oso parte hartze urria izan zuela. Era berean, ez zuen inoiz lan egin *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* edo Eusko Ikaskuntzaren ekintzen barruan 1920 eta 1940. urteen artean.

Euskaltzaindiaren inguruko ekintzei dagokienez, Lafitte euskal kulturaren 1927an nor bazela erakusten dute Jean Elissalde “Zerbitzari”-ren hitzek: “Hemengo Eskualzaindiak ez letzazke ere ahantz P. Lafitte et M. Etcheverry, Uzta-

ritzeko ikastegiko bi erakasleak” (31), delako Akademirako Iparraldeko ordezkariak aipatzen ari zenean Nafarroa Beherako euskaltzain urgazleak bete-betean asmatu zuen, zeren eta 1928an Piarres Lafitte urgazle izendatu baitzuten, Jean Baptiste Darricarrerren hil berriaren ordezkari. Lafitten izendapena Euskaltzaindiaren 1928ko urtarileko batzarrean eman zuten aditzera (32), Lacombe batzarkideei Lafitten euskal aditzari buruzko lana irakurtzearekin batera. Hala ere, Euskal Akademiaren aktek ez digute Lafitte berriro aipatzen 1930ko azaroa arte; egun hartan, Jean Elissalde Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldia bota zuen, Martín Lan-derreche hildakoaren ordezkari (33); erantzun-hitzaldia Lacombe egin zuen (34).

Axola zaizkigun bi hamarkadetan *Euskerak* Lafitten lanaren berri eman zuten birritan: 1931an aditzera eman zuten Euskaltzaindiak *Eskualdunen Loretegia* Lafittek idatzitako literatur-liburuaren 25 ale erosiko zituela (35) eta 1932an Resurrección M^a de Azkuek Lafitten poema bat irakurri zuen (36).

Pierrek ez zuen *Euskeran* artikulurik argitaratu 1920 eta 1940. urteen artean; azken baten, artikulua gutxi argitaratzen zituen aldizkari horrek, orri gehienak betetzen baitzituen bileren bilakaera eta onartutako hizkuntz-arauen berri emanez. Ikus dezagun, hala ere, gainontzeko intelektuaren emaitzak:

ARTIKULUEN SAILKAPENA GAIEN ARABERA. *EUSKERA (1920-1936)*

	Filologia	Etnologia	Geografia	Historia	Arteak	Literatura	Zientziak
Altube, S.	12					1	
Azkue, R. M. de	36	1				4	
Bähr, G.	2						1
Campion, A.	1						
Eguskitza, J.	17						
Elissalde, J.	1						
Etxegarai, C.	1						
Etxegarai, B.	3						
Gavel, H.	1						
Lacombe, G.	2						
Lekuona, M.	1						
Lhande, P.						1	
Ormaetxea, N.	7					1	

(31) "Zerbitzari": "Chichta eta pherekak. Euskaltzaindia", *Gure Herria*, 1927ko urtarilla-otsaila, 68-72 orr.

(32) "Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak. Bilbo'n Bizkaiko Aldundi-Jauregian 1928'ko Ilbeldaren 27'an", *Euskera*, 1928, 50. or.

(33) "Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak. Azkainen Ikastetxe batean, 1930ko Azaroaren 27'an", *Euskera*, 1930, 23. or.

(34) "Euskaltzaindiaren Batzar-agiriak. Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1930'ko urilaren 24'an", *Euskera*, 1930, 22. or.

(35) "Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak. Iruña-n, Aldundi-Jauregian, 1931-ko Jorailaren 29'an", *Euskera*, 1931, 146. Or.

(36) "Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak. Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1932'ko Jorailaren 28'an", *Euskera*, 1932, 280. or.

Eta idazleok orain arte aztertu ditugun aldizkarietan argitaratu zituzten artikuluak kontutan hartuz gero:

Izena	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i>				Adina 1936an
	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Lettres et Arts de Bay.</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskerak</i> (1920-1936)	
Campion, Arturo			3	1	†1937 83
Elissalde, Jean	159			1	
Etxegarai, Carmelo			3	1	†1925 60
Gavel, Henri		7	12	1	60
Lekuona, Manuel			12	1	46
Lhande, Pierre			3	1	63
Lacombe, Georges		2	59	2	61
Bahr, Gerhard			15	3	40
Etxegarai, Bonifacio			14	3	62
Ormaetxea, Nicolas			8	8	52
Altube, Sebero				12	
Eguskitza, Juan Bautista				17	
Azkue, Resurrección M ^a				41	

Esan dugun bezala, *Euskerak* lan gutxi argitaratu zituen. Izan ere, ohiko lankide bakarra izan zuen, Resurrección M^a de Azkue, gainontzeko aldizkarietarako ezer idatzi ez bazuen ere. Sebero Altubek eta Juan Bautista Eguskitzak ere *Euskeran* baino ez zuten idatzi eta Nicolas Ormaetxeak, aztertu ditugun lau argitalpenetan gutxi idatzi bazuen ere, kopuru berbera argitaratu zuen *RIEVEN* eta *Euskeran*.

Orokorrean, *Euskeran* argitaratzen zuten intelektual gehienek *RIEVEN* ere idazten zuten. Otera, *Eskualdunak* ez zeukan batere lankide komunik *Société des Sciences, Lettres et Arts* eta *Euskerarekiko*.

Lafittek ez zuen *Euskeran* artikulurik argitaratu 1920tik 1940tara, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *RIEVEN* ezer idatzi ez zuen era berean.

Euskaltzaindiaren bileren partehartzeari dagokionez, *Euskeran* emandako bileren berriek erakusten digute euskaltzainek maiz erantzuten zietela Akademiaren deialdiei: Resurrección M^a de Azkue izan zen gehien joan zena: 120 bider. Ohiko partaideak izan ziren ere: Sebero Altube (89tan egon zen), Resurrección M^a de Azkue (120tan), Juan Bautista Eguskitza (90tan), Dámaso Intza (96tan), Ramón Intzagarai (90tan), Georges Lacombe (108tan), Martin Landerretche (83tan), Ramón Olabide (106tan), Julio Urkijo (90tan). Harritzekoa bada ere, horietatik Azkuek eta Lacobek baino ez zuten *Euskeran* idatzi, Azkue ohiko lankide izanda eta Lacobek bi artikulua baino idatzi ez zituelarik.

Eta orain arte aztertu ditugun elkarte baten baino gehiagotan parte hartu zutenak elkartzuz gero, honako lauki hau osatuko dugu:

Altube, Severo: *Euskaltzaindia*, 1920eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko abuztua, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1920eko abendua, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1921eko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko martxoa, Hazparne. *Euskaltzaindia*, 1921eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko iraila, Durango. *Euskaltzaindia*, 1921eko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko otsaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1922ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko abendua, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1923ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko uztaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1923ko iraila, Nafarroako Doneztebe. *Euskaltzaindia*, 1923ko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1923ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1925eko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko martxoa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1925eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko uztaila, Azpeitia. *Euskaltzaindia*, 1925eko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1927ko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1927ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1928ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko maiatza, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1928ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1928ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1929ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko maiatza, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1929ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko Abuztua, Andoain. *Euskaltzaindia*, 1930eko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1930eko maiatza, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko azaroa, Azkain. *Euskaltzaindia*, 1931ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko maiatza, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*,

1932ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1932ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1932ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko otsaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1933ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko urria, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1934ko otsaila, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko maiatza, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko iraila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1934ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1935eko apirila, Donostia.

Campion, Arturo: *Euskaltzaindia*, 1920eko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko otsaila, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko abuztua, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko iraila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko abendua, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1921eko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko maiatza, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko ekaina, Azpeitia. *Euskaltzaindia*, 1921eko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko urtarrila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko uztaila. *Euskaltzaindia* 1922ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia* 1922ko azaroa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko abendua, Gernika. *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko maiatza, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko iraila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko iraila, Nafarroako Doneztebe. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1923ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko maiatza, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1924ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*,

1924ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko maiatza, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1925eko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko uztaila, Azpeitia. *Euskaltzaindia*, 1925eko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1926ko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1926ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1926ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1926ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko martxoa, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1929ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko apirila, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko iraila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko iraila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1933ko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1933ko maiatza, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1934ko maiatza, Iruña.

Dassance, Louis: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko maiatza, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko ekaina, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921eko abendua, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko urtarrila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko otsaila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko martxoa, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1922ko iraila, Maule. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko otsaila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1926ko iraila, Atharratze. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1928ko iraila, Azkaine. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Donapaleu. *Euskaltzaindia*, 1930eko azaroa, Azkain. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1931ko iraila, Maule. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1932ko iraila, Donibane Garazi. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhuso.

Eleizalde, Luis de: *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko otsaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko iraila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1920ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko otsaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko otsaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko maiatza, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1921eko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko urtarrila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko otsaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 192ko apirila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko abendua, Gernika, *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko abendua, Donostia.

Elissalde, Jean: *Euskaltzaindia*, 1920eko urtarrila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1920eko maiatza, Donostia.

Euskaltzaindia, 1920eko abendua, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1921eko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko otsaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1922ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1922ko maiatza, Donostia. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Donapaleu. *Euskaltzaindia*, 1930eko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko azaroa, Azkain. *Euskaltzaindia*, 1931ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1931ko maiatza, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko uztaila, Donostia. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1931ko iraila, Maule. *Euskaltzaindia*, 1931ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1932ko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1932ko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1932ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1932ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko otsaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1932ko martxoa, Donostia. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1932ko iraila, Donibane Garazi. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhuso. *Euskaltzaindia*, 1933ko maiatza, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1933ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1933ko azaroa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko otsaila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1934ko maiatza, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1934ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1934ko abendua, Donostia.

Etxegarai, Bonifacio: *Eusko Ikaskuntza*, 1921eko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1923ko iraila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1924ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1924ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1924ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1925eko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1925eko uztaila, Azpeitia. *Eusko Ikaskuntza*, 1925eko iraila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1926ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1926ko uztaila, Gasteiz. *Euskaltzaindia*, 1926ko urria, Zumai. *Eusko Ikaskuntza*, 1926ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko apirila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1927ko maiatza, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1927ko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1927ko iraila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1927ko azaroa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1927ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko apirila, Azpeitia. *Euskaltzaindia*, 1928ko maiatza, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko iraila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko urria, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1928ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1928ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko otsaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko martxoa, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1929ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko maiatza, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1929ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1929ko abuztua, Andoain. *Eusko Ikaskuntza*, 1929ko iraila, Zaldibia. *Euskaltzaindia*,

1929ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1929ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1929ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko urtarrila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko otsaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko apirila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko apirila, Iruña. *Euskaltzaindia*, 1930eko maiatza, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko iraila, Bergara. *Euskaltzaindia*, 1930eko urria, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1930eko azaroa, Azkain. *Eusko Ikaskuntza*, 1930eko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1930eko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko urtarrila, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1931ko martxoa, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko apirila, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1931ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko uztaila, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1931ko abuztua, Tolosa. *Eusko Ikaskuntza*, 1931ko iraila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko azaroa, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1931ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1931ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko urtarrila, Bilbo. *Eusko Ikaskuntza*, 1932ko martxoa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1932ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1932ko iraila, Iruña. *Eusko Ikaskuntza*, 1932ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1932ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko ekaina, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko iraila, Gasteiz. *Euskaltzaindia*, 1933ko azaroa, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1933ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1933ko abendua, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko apirila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko ekaina, Donostia. *Euskaltzaindia*, 1934ko uztaila, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1934ko iraila, Bilbo. *Euskaltzaindia*, 1934ko abendua, Donostia. *Eusko Ikaskuntza*, 1935eko uztaila, Donostia.

Léon, Albert: *Euskaltzaindia*, 1921eko martxoa, Hazparne. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko apirila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko maiatza, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko azaroa, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko otsaila, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko martxoa, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko maiatza, Baiona. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1923ko uztaila, Baiona. *Euskaltzaindia*, 1930eko azaroa, Azkain. *Gure Herria elkarte*a, 1931eko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1935eko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1938ko urtarrila, Baiona.

Léon, Leon: *Eusko Ikaskuntza*, 1922ko, Gernika. *Gure Herria elkarte*a, 1930eko otsaila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1932ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1935eko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1938ko urtarrila, Baiona.

López Mendizabal, Ixaka: *Eskualzaleen Biltzarra*, 1921eko iraila, Donibane Lohitune. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1926ko iraila, Atharratze. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1928ko iraila, Azkaine. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1932ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1933ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1935eko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1936ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1938ko urtarrila, Baiona.

Mathieu, Clément: *Gure Herria elkarte*a, 1930eko otsaila, Baiona. *Euskaltzaindia*, 1931ko urtarrila, Bilbo. *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona.

Moulier, Jules: *Eskualzaleen Biltzarra*, 1926ko iraila, Atharratze. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Donapaleu. *Gure Herria elkarte*a, 1930eko

otsaila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1931ko iraila, Maule. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1932ko iraila, Donibane Garazi. *Gure Herria elkarte*a, 1932ko urtarrila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhuso. *Gure Herria elkarte*a, 1933ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1935eko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1936ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1938ko urtarrila, Baiona. *Soci  t   des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1922ko ekaina, Baiona.

Soubelet, Dominique: *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1932ko urtarrila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1933ko iraila, Luhuso. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona.

Souberbielle, Maurice: *Eskualzaleen Biltzarra*, 1921eko iraila, Donibane Lohizune. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1922ko iraila, Maule. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1929ko iraila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1930eko otsaila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1931ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1932ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1934ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1935eko urtarrila, Baiona. *Eskualzaleen Biltzarra*, 1935eko iraila, Atarratze. *Gure Herria elkarte*a, 1937ko urtarrila, Baiona. *Gure Herria elkarte*a, 1938ko urtarrila, Baiona.

Esan dugu Dassance eta Eizagirre izan zirela harreman gehien izan zutenak Eskualzaleen Biltzarraren bilerak zirela medio; are gehiago, bertan zein *Gure Herria elkarte*aren batzarretan egin zuten topo biek, honako intelektual hauekin: Dufau, Elissalde, Etchepare, Lafitte, L  pez de Mendizabal, Moulier eta Maurice Souberbielle, laukiak erakusten digun bezala. Ikusten dugu, beraz, Eskualzaleen Biltzarra zein *Gure Herria elkarte*a kulturelek partaide komunak izan zituztela.

Ostera, Eskualzaleen Biltzarra eta *Gure Herria elkarte*aren lankideok ez ziren *Soci  t  *, Euskaltzaindia edo Eusko Ikaskuntzaren biltokietara joaten, Jean Elissalde izan ezik: 34 bider elkartu zen Euskaltzaindiakoekin, 4 bider Eskualzaleen Biltzarrakoekin eta 5 *Gure Herria elkarte*koekin.

1.7. *Bulletin du Mus  e Basque*

Imajina dezakegun legez, orain arte aipaturiko pertsonaiak gogotsu ari izan ziren 1920. eta 1930. hamarkadetako jarduera kulturean. 1923ko urrian Aita Donostia, Pierre Lhande eta Henri Gavel hizlariak izan ziren Baionako Euskal Museoa antolatu zuen "Euskal hilabetea", Euskal Museoa sorterra ospatzeko (63). Hain zuzen ere, Euskal Museoa 1923an zabaldu zuten, *Soci  t   des*

(63) Nogaret, J.: "Les origines du Mus  e Basque", *Bulletin du Mus  e Basque*, 1925, 1. zkia, 10. or.

Sciences, Lettres Arts et des Etudes Régionales de Bayonne babespean (64), *Société*ko lehendakariordea zen William Boissel Museoko zuzendari izan zelarik aldi berean; eta sortu zutenetik, Museoa eta *Société* elkartearen arteko harremanak etengabeak izan ziren, Boissel zuzendariak urtero ematen baitzuen Euskal Museoaren ekintzen berri *Société*koek hilabetero burutzen zuten batzarretan.

Museoak *Bulletin du Musée Basque* bihilabetekaria argitaratzen hasi zen 1925ean, bereziki aditzera emateko zer nolako ondareak jasotzen zituen erakustokiak eta zein motatako iritziak zituzten jakitunek euskal ohitura, arte eta literaturari buruz.

Museoaren Batzorde Iraunkorraren lehendakaria zen Boisselek eta idazkaria zen Philippe Veyrinek ere *Bulletin*erako idatzi zuten. Biokin batera, 1920 eta 1930ko hamarkadetan *Bulletin*en gehien argitaratu zutenak hauexek izan ziren: André Constantin aldizkariaren gerentea eta Joseph Nogaret, *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne* elkartearen lehendakariordea zena, honako lauki honek erakusten duen bezala:

ARTIKULUEN SAILKAPENA GAIEN ARABERA. *BULLETIN DU MUSÉE BASQUE (1925-1935)*

	Filologia	Etnologia	Geografia	Historia	Arteak	Literatura	Zientz.(65)
Alford, V.					4	1	
Blazy, E.		1	1				
Boissel, W.		1	1	3	9	1	1
Colas, L.		1		2			
Constantin, A.		1			9		
Cuzacq, R.				1	1		
Daranatz, J.B.		3			3		
Dassance, L.					1		
Donostia, J. A.		2			5	1	
Dop, H.		1					
Etchecoin, J.				3			
Gallop, R. A.		1	1		2		
Gavel, H.	4	3			1	1	
Hérelle, G.					2		
Lacombe, G.	1						
Lamarque, J.		1	1				
Lhande, P.		1					
Nogaret, J.		11		1	4	1	
Rectoran					1		1
Rocq			1				3
Veyrin, Ph.		1	1	7	5		

(64) "Au mois de Mars 1922, le maire proposa à la Société des Sciences, Lettres, Arts et Etudes Régionales de Bayonne, par l'intermédiaire de son président, M. de Marien, de se charger de la création et de l'administration d'un musée basque, à l'instar de sociétés savantes d'autres villes, qui avaient voulu accepter un semblable mandat", J. Nogaret: "Les origines du Musée Basque", *Bulletin du Musée Basque*, 1925, 6. or.

(65) Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza, Medikuntza.

Eta aldizkari gutzien artikuluen kopuruak konparatuz gero:

Izena	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i>						
	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	(1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Bul. du Musée B.</i> (1925-1935)	Adina 1936an
Dassance, Louis	26	22				1	47
Dop, Henri	30					1	
Lacombe, Georges	45		2	59	2	1	56
Lhande, Pierre	15			3	1	1	48
Blazy, Edmond	6					2	57
Cuzacq, René	26		8			2	34
Hérelle, Georges	9		7	6		2	84
Lamarque, Jean	30		2			2	
Rectoran			3			2	
Colas, Louis	11		1			3	1929 60
Etchecoin	15					3	
Gallop, Rodney A.	11					4	34
Rocq	1					4	
Alford, Violet				2		5	54
Daranatz, Jean Baptiste	40		61	18		6	65
Donostia, José Antonio	23			25		8	49
Gavel, Henri	76			12	1	9	55
Constantin, Albert						10	62
Veyrin, Philippe	34		1	12		14	35
Boissel, Willia			1			16	66
Nogaret, Josph			10			17	73

Ikusten dugun bezala, hiru ohiko lankide ditugu: Boissel, Nogaret eta Veyrin gaztea. Piarres Lafittek ez zuen 1920 eta 1930ko hamarkadetako *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian idatzi. Beste aldetik, *Bulletinen* behin baino ez da Lafitte aipatzen, 1931ko alean, *Cahiers de Centre Basque et Gascon d'Etudes Régionales* argitaipenaren berri eman zutenean, esanez Lafitte irakasleak “Les études basques au travers des siècles” artikulua argitaratu zuela *Cahiersean* (66).

Bulletinek artikulua gutxi argitaratu zuen (gehien idatzi zuenak 17 idazlan idatzi zuen). Hala ere, beste aldizkarietan idazten zuten intelektualak ziren *Bulletinen* idatzi zutenak: Veyrin ohiko lankidea zen *Bulletinen* zein *Gure Herrian*. Era berean, Daranatz, Donostia eta Gavelek *Bulletin du Musée Basque* zein *Gure Herrian* idatzi zuten.

Bulletin du Musée Basque eta *RIEVEN* idatzi zuten Jean Baptiste Daranatz, José Antonio Donostia, Henri Gavel eta Philippe Veyrinek.

Bulletin du Musée de Bayonne eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen* Jean Baptiste Daranatz eta Joseph Nogaretek.

(66) *Bulletin du Musée Basque*, 1931, 3. eta 4. Zkiak, 192. or.

Azkenez, azaldu dugun legez, *Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonnek* Euskal Museoa sortu zuenetik elkarrekin bien arteko harremanak egonkorrak izan ziren. Horren froga lirateke Jean Baptiste Daranatz *Société*ko lehendakaria izatea eta *Bulletin*en ohiko lankide moduan aritzea (*Eskualdun*an ezik, aldizkari guztietan idatzi zuen); William Boissel *Société*ko lehendakariordea eta Museoaren zuzendaria izatea, *Bulletin*aren ohiko lankidea izatearekin batera; André Constantin *Société*ko lehendakariordea eta *Bulletin*aren gerentea izatea; eta Nogaret *Société*ko idazkari adjuntua eta gero lehendakariordea izatearekin batera *Bulletin*eko ohiko lankidea izatea.

1.8. Aintzina

Piarres Lafitte *Aintzina. Trait d'union mensuel des Régionalistes basques-français* (67) aldizkaria argitaratzen hasi zen 1934ko urrian, garai baten non Lafittek iharduera intelektuala bazuen jadanik, ikusi dugun bezala. Iparraldeko euskalzaletan berriak kaleratzeko helburua zeukan aldizkari horren aurkezpena egin zuen *Gure Herria* aldizkariak:

“Il se présente avec la coquetterie, l'entrain, la crânerie et la bonne humeur de la jeunesse... La rédaction en est soignée et très variée, le basque, jamais négligé, tend à se rapprocher du langage populaire.” (68)

*Aintzina*ren artikuluen gehienak Piarres Lafittek idatzi zituen izengoiti mordoa erabiliz (69). *Aintzina*ren goitizenez idatzi zuten ere: Léon Lasallek (“News Politic”) eta Jacques Mestelanekek (“Jakes Lehuntze”, “Menditar”, “Menditarorde”, “Yacue”). Dena dela oso idazle gutxi idatzi zuten *Aintzina*ren, laukiak erakusten digun bezala:

ARTIKULUEN SAILKAPENA GAIEN ARABERA. AINTZINA (1934-1937)

	Filologia	Etnologia	Geografia	Historia	Arteak	Literatura	Zientziak	Politika Zuzenbidea Gerrak	Erligioa	Ekonomia
Arotçarena, S.								2		
Jaureguiberry, M.							5			
Lafitte, P.	14	18		2	2	14		87		8
Lassalle, L.								10		1
Mestelan, J.		1						6		

(67) *Aintzina* aldizkariak bigarren aroa izan zuen 1942 eta 1943. urteen artean. Piarres Lafitteren ikasle izandako Marc Legasse eta Xabier Diharcekek burutu zuten prestaketa lana eta Legasse eta Pierre Xarritonek argitaratu zuten. 1930. hamarkadako *Aintzina* aldizkari politikoa izan bazen ere, bigarrena kulturala izan zen gehienbat.

(68) Barrandaria: “Aintzina”, *Gure Herria*, 1934ko abendua, 555-556 orr.

(69) Ikus Hernández, A.: “Piarres Lafitte *Aintzina*”, *Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura*, 15. zkia, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1997, 31-60 orr.

Aintzinaren produkzioa gainontzeko aldizkarien produkzioarekin konparaturaz gero:

Izena	<i>Société des Sciences,</i>				<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Aintzina</i> (1934-1937)	Adina 37an
	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Bull. M. Basque</i> (1925-1935)	<i>Lettres et Arts de Ba.</i> (1920-1940)				
Arotçarena, Salbat	1	248					2	
Jaureguiberry, Jean	9						5	
Mestelan, Jacques	3						7	
Lassalle, Leon	34	9					11	
Lafitte, Piarres	69	238					146	

Azken lauki hau Piarres Lafitteren idatzizko iharduera intelektualaren laburpena litzateke, 1920-1940 aroari zegokiona: *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkariak 20. hamarkadako Lafitte langile sutsua erakusten digute, 1930. hamarkadan *Aintzina* gehitu zitzaizela Lafitteren lanaren erakustoki bezala. Ez Lafittek ezta *Aintzinaren* gainontzeko lankideek ere ez zuten garai hartan artikulurik argitaratu *Société*, *Bulletin*, *RIEV* edo *Euskera* aldizkarietan.

Argi dago, beste aldetik, Lafittek *Gure Herria* eta *Eskualdunan* idazten zuten intelektualengana jo zuela *Aintzina* sortu berrian idatz zezaten

2. 1930. hamarkadako talde euskalzalea

Aintzina kaleratu zuen talde euskalzalea osatzeko Lafittek apez, apezgai eta beste gazte batzuk erakarri zituen —Unibertsitateko ikasleak, mediku, abokatu edo irakasleak—. Hala ere, euskalzale horietako batzuen hitzetara jotzen badugu, talde baino gehiago partidu bat osatzea zuten helburu: “Mon frère et moi qui sommes de longue date d’ardents nationalistes” (70); “nous pensions faire un état avec nos ‘zazpiak bat’” (71); “j’avais entendu parler de ce mouvement politique par mon frère Guillaumie” (72); “je serai très heureux de pouvoir suivre de près l’action du Parti Autonomiste Basque français.” (73)

Euskalzaleek burutu zituzten bileretara nortzuk joan ziren ezagutzeko, esku izan dugun Lafitten eskutizetara jo dugu (74).

Lehenengo bileran, 1933an egindakoa, Chapelet, André Ospital, Felix Ospital bere anaia (75) eta Arocena izan ziren gonbidatuak. Arocenak ezin zuela joan adierazi zuen (76).

(70) André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldudez, azaroaren 21a.

(71) Jean Pierre Casabonek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donezaharre, 1933ko apirilaren 25a.

(72) Jacques Grécietek idatzitako eskutitza, Lille, 1934ko iraila.

(73) Ad. Michelek idatzitako eskutitza, 1934ko otsailaren 15a.

(74) Pierre Andiazabalek bildurik dituen Lafitten eskutitzak dira.

(75) André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21ean.

(76) Arocenak idatzitako gutuna, Larresoro, 1933ko azaroaren 24an.

Félix Ospitalek lehenengo bilera hori prestatu zuenatariko bat izan zen —“*J'ai déjà travaillé certains jeunes qui pourront nous être précieux*” (77)—. *Gure Herriako* lankide bezala ezagutu dugun Jean de Jaureguiberry ere pres-takuntza lanean ibili zen: “*Je compte aller demain voir M. Jaureguiberry et ensuite nous nous entendrons, si vous voulez, sur la date et le lieu de la première réunion*” (78).

Bigarren bilerarako Félix Ospital, Maurice Olphe Galliard, Blainville eta Bernard de Coral (79) izan ziren gonbidatuak. Félix Ospitalek ez zela joango esan zion Lafitteri (80); hala ere, langile sutsua izaten jarraituko zuela ziur-tatu zion. Maurice Olphe Galliardek, bere aldetik, goizegi ikusten zuen bilera publiko bat egitea; egokiago ikusten zuen batzar pribatu bat taldearen oina-riak eta helburuak zehazteko (81). Blainvillek Olphe Galliard bere lagunak esandakoarekin ados agertu zen eta batzarrera ez zela joango adierazi zion La-fitteri (82).

1934ko abenduan talde euskalzaleak burutu zuen hirugarren batzarretara Chapelet, Pierre Héguy eta Mendiboure izan ziren deituak. Pierre Amoçainek (83)

(77) Félix Ospitalek bidalitako gutuna, Saint Jean de Luz, 1933ko abenduaren 19a.

(78) Ibidem.

(79) Bernard de Coral Fédération d'Action Populaire du Pays Basque (F.A.P.P.B.)-ko idaz-kari nagusia zen; Maurice Olphe Galliard eta Blainville ere talde horretako partaideak izan ziren Lafitterekin elkartu baino lehen. Badago Eugène Goyenechere eskutitz bat non harrituta eta ke-zuz adierazten zuen ia desagerturik zegoen F.A.P.P.B.-ri buruz berriro hitz egiten hasi zela egun-karietan; Eugène Goyenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26an.

(80) Felix Ospitalek idatzitako eskutitza, Donibane Lohitzune, 1934ko martxoaren 16an (Pierre Lafitteri zuzenduriko eskutitza dela suposa genezake, zeren eta “*Cher Monsieur l'Abbé*” esanez hasten baita). Eskutitz honetan Félix Ospitalek adierazi zuen arazoak edukiko zituela jen-deaurrean euskalzale bezala agertzekotan, aurreko urtean André bere anaia agertu zuen gauza bera (André Ospitalek Amoçaini idatzitako eskutitza, 1933ko abenduan).

(81) Olphe Galliardek Pierre Lafitteri idatzitako eskutitza, 1934ko martxoaren 20an.

Badago Olphe Galliarden beste eskutitz bat, bilera ospatu baino lehen, zinean ikusten den Lafittek batzar pribatua egitea erabaki zuela (Blainvillek Lafitteri idatzitako gutuna, Getaria, 1934ko martxoaren 24an). Azken erabaki honen ondorioa izan daiteke Galliarden bileran hitz egi-teko asmoa (Olphe Galliardek Lafitteri zuzenduriko eskutitza, datarik gabe.)

Bilera eginda zegoen 1934ko martxoaren 28rako; pribatua izanarren batzarraren berri jaso zuen Olphe-Galliardek *La Presse* egunkarian eta, publikotasunaz pozik agertu ez bazen ere (Olphe Galliardek Lafitteri idatzitako gutuna, 1934ko martxoaren 28an), emankor ikusi zuen el-kartzte hori.

(82) Blainvillek Lafitteri idatzitako eskutitza, 1934ko martxoaren 20an.

(83) 1935 urtearen hasieran Pierre Amoçain Txilera joan zen, bere ekintzak talde eus-kalzalean zirela eta arazoak izan baitzituen polizia frantziarrarekin. Bidaia hori iragarri ziguten eskutitz batzuek: “*J'ai appris que tu ne parlais pas pour le Chili avant la Noël. Je suis très content car ainsi je pourrai te voir*”, Eugène Goyenechek Amoçaini bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3an; “*Je regrette vivement ton départ de cet Euskal Herria magnifique où tu étais appelé à jouer un rôle à la fois ingrat et difficile*”, G. Mendibourek Amoçaini bidalita-ko gutuna, Baiona, 1934ko abenduaren 20an; “*Maintenant cet excellent collaborateur vogue sur les mers et son départ vous donne bien du travail en surcroît. Comment pourrez-vous même*

bidali zien gonbidapena: Chapeletek ezin izan zuen joan (84), Pierre Héguyk ere ez zuen parte hartuko (85) eta Mendibourek baietz esan zion (86).

Hirugarren bilera burutu baino lehen, 1934ko urrian, aipatu dugun *Aintzina. Trait d'union mensuel des régionalistes basques-français* aldizkariaren lehenengo zenbakia kaleratu zuten. Donibane Lohitzuneko Dargainsek argitaletxeak argitaratu zuten.

Jean Dubosq gerente izendatu zuten; honek Charles Hiribarreni dokumentu batez baimena eman zion gerentearen ordezkariak sinatzeko (87).

Dena dela, hasiera baten Lafittek ez zuen aldizkari bat sortzeko asmorik, uste baitzuen *La Presse du Sud-Ouest*, *Le Courrier de Bayonne* eta *Eskualduna* argitaratu ahal izango zituela euskalzaleen berriak (88). Baina *La Presse* eta *Eskualduna* mesfidantzaz ikusi zituzten euskalzaleak eta, *Le Courrier de Bayonne* *Aintzinaz* arduratu bazen ere (89), Lafittek aldizkari berri bat argitaratzea erabaki zuen. Euskalerrizaleak mesfidantzaz ikusi zituzten ere poli-

faire face à tant d'ouvrages divers?", Maurice Olphe Galliardek Lafitteri bidalitako eskutitza, 1935ko urtarrilaren 1ean. Txilera joan eta gero artikulu bat argitaratu zuten *Aintzina* Amoçainen omenez, baina Amoçaini ez zitzaion gustatu artikulu hori: "Je passe sur un article qui a été écrit sur mon compte par une personne dont je ne veux pas savoir le nom.. On aurait pu me demander mon avis... Comme oraison funèbre ce ne serait pas trop mal mais un journal sérieux doit s'abstenir d'une telle réclame. On jurerait qu'elle a été payée", Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

(84) Chapeletek Pierre Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko urriaren 20an.

(85) Pierre Héguy Pierre Amoçaini idatzitako gutuna, Ossès, 1934ko abenduaren 20an.

(86) G. Mendibourek Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko abenduaren 20an.

(87) "Procuracion pour autoriser à effectuer des opérations postales, télégraphiques et téléphoniques", Jean Dubosq eta Charles Hiribarrenek sinaturikoa, 1934ko abenduaren 22an. 1935 urtearen amaieran Charles Hiribarren talde euskalzalea utzi zuen Plontevoyra joateko; bidai horren berri eskeintzen digute eskutitz batzuk: "Puisque ce pauvre Charlot nous quitte, c'est à toi que je m'adresse... A propos, tu lui transmettras mon meilleur souvenir, avec tous mes voeux pour la nouvelle vie qui s'ouvre pour lui", Jean Hastoyk idatzitako eskutitza, 1935ko ...ren Sean; "j'en avais envoyé quelques-uns à Charles, mais comme il est parti, je préfère te les envoyer de nouveaux", Fabien Dargainsek bidalitako eskutitza, Donibane Lohizune, abenduaren 20an.

(88) "C'était un programme régionaliste, mais qui rencontrait beaucoup d'opposition dans le pays, parce que le gens avaient l'impression qu'on voulait se séparer de la France. Au fond c'était notre idée, mais on ne pouvait pas le dire, évidemment. Donc, ils se méfiaient de nous, et quand Lafitte a voulu expliquer ce que c'était dans les journaux de Bayonne de l'époque — il y en avait deux à l'époque: il y avait la *Presse du Sud-Ouest* et il y avait *Le Courrier de Bayonne*, et puis il y avait l'*Eskualduna* — on n'a pas voulu accepter certains de ces articles... c'est ensuite que l'idée est venue de créer un journal, si nous avions un journal nous pourrions dire ce que nous voulions", Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

(89) *Le Courrier de Bayonne*ren arduraduna zen J. de l'Espée Lafittekin elkartu zen *Aintzina*ren egitarauaz hitz egiteko, 1938ko apirilaren 6an Pierre Larramendik Lafitteri idatzitako eskutitz batek erakusten duen bezala. Apirilaren 28an beste eskutitz bat dago, de l'Espèk Lafitteri bialdu, harreman horiek islatzen dituenak.

tikoek, hala nola aipatu dugun Maurice Souberbiellek (90) —Uztaritzeko alkatea— eta Jean Ybarnégaray deputatuak (91) .

Aintzina aldizkaria saltzeko egin zuten propaganda handia izan zen eta, André Ospitalek uste bazuen ere zaila zela propaganda egitea (92), Camille Dargainsek ikuspuntutik guztiz emankorra izan zen (93). Eugène Goyehenecek ere pozik hartu zuen hilabetekaria (94). Amoçaini oso ona iruditu zitzaion urtarileko zenbakia, baina gerokoetan gorabeherak susmatu zituen (95).

Jean Biatarana legegizonak begi onez ikusten zuen *Aintzina* Euskal Herriko kanpo zegoenei bidaltzea (96). Jean Biataranaren ikuspuntutik *Aintzina*-ren artikuluak ulerterrezak eta interesgarriak izan behar ziren irakurlekoa erakartzeko (97).

Gutunek Lafittekin batera lan egin zuten hainbat euskalzaletan aipatzen dituzte: Jean Pierre Casabonnek Pierre Amoçaini eskatu zion Eugène Goyehenecheren helbidea (98) harekin harremanetan jartzeko. Goyehenecek goraintziak Amoçaini bidali zizkion Piarresentzat —Piarres Lafitte dela suposatzen dugu—, Philippentzat —Philippe Aranart— eta Jean Duboscqentzat (99); Lafitteri bidalitako beste gutun batean Jacques Mestelan eta Guillaumie-Reichen helbideak eskatu zizkion (100). André Ospitalek harriturik zegoen Casa-

(90) Oronos, M.: *L'information religieuse en basque dans les publications du Pays Basque Nord, de la fin du Concile Vatican II décembre 1965) au Ve Synode Romain (29 octobre 1977). Questions pour une Histoire future*, Université de Bordeaux III, 18982, 55-87 orr.

"Bertzaldi batez, bazterrak harrotu ziren. Barne bat alokatu zuen gazte batzuekin Uztaritzeko karrikan, "Aintzina" agerkariarentzat. Erran behar da barne hortarat jende frango agertzen zela, gizarteko gauzetan zituzketen dretxoan jakiteko. Jaun Merak zeukan, aldiz: ahal bezein guti behar zela Gobernuaren dirutik xahutu, eta ez zela jenderi jakin-arazi zer eskubide zuten, zer diru unki zezaketen. Erraiten zuen ederki bizi zirela, zauzkatenekin. Harek hala zion; jendeek, behar-bada, bertzela zaukaten. Bistan da: jendeek beren eskubideak ezagutuz geroz, Herriko Etxerat zozatzen galdezka; eta Herriko jaun horiek kexu", Diharce, X: "Piarres Lafitte apeza", *Muga*, 42 zkia, 1985, 66. or.

(91) "Ibarnegaray, qui a été élu, réélu pendant des années et qui se présentait comme député du pays Basque, mais qui aussi avait cette esprit assez conservateur. Il n'avait, pas de la haine, mais il avait quand même de l'hostilité pour l'abbé Lafitte, il ne l'aimait pas beaucoup. Il faut dire que l'abbé Lafitte ne le ménageait pas non plus", Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, 1998ko otsailaren 14a.

(92) "Je n'ai pu ramasser le montant d'une dizaine de 'Euskal Herri Zaleen chedek' quoique j'en ai donné plus du double. Tu sais toi-même combien il est difficile de faire de la propagande et de demander de l'argent", André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldudes, maiatzaren 3a.

(93) Camille Dargainsek idatzitako gutuna, Donibane Lohitzune, 1934ko azaroaren 26an.

(94) Eugène Goyehenecek idatzitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

(95) Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Santiago de Chile, 1935ko apirilaren 20an hasi eta 1935ko uztailaren 2an amaitutakoa.

(96) "sa présence serait judiciaire à l'Association Catholique des Etudiants à Bordeaux", Jean Biataranak Jean Duboscq'i idatzitako eskutitza, 1936ko urriaren 20an.

(97) Ibidem.

(98) Casabonnek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donazarre, 1933ko apirilaren 25ean.

(99) Eugène Goyehenecek Amoçaini bidalitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3an.

(100) Goyehenecek Lafitteri idatzitako gutuna, Paris, 1936ko azaroaren 19an.

bonnek idatzi ez ziolako baina Altabegoityk idatzi zion (101). Jacques Mestelaneek Amoçaini eskatu zion *Vie Catholiquen* agerturiko artikuluko bat, Lafittek gomendatu baitzion (102); Amoçaini adierazi zion ere *Aintzina* Jean Richteri bidaltzeko. Badago Mestelaneek Amoçaini zuzenduriko beste eskutitz bat non agertu zion ez zuela Goyeneche ikusi ordurako (103). Michel Diharceek Goyeneche ikusi zuela eta Euskal Ikasleen Biltzarran berriro ikustea espero zuela adierazi zuen (104). Pierre Amoçainek Lafitteri zuzenduriko gutun baten Olphe Galliardekin egon zela adierazi zion (105) eta Txiletik idatzi zion eskutitz batean gorantziak bidali zituen Jaureguiberry familia, Olhagaray emakumea, Lasalle, Aranart eta Mestelanentzat eta gutuna eurei erakusteko esan zion Lafitteri (106).

Ikus dezagun orain zer nolako ekintzak burutu zituzten aipatu berri ditugun euskalzaleek lan honetan zehar aztertu ditugun elkarte eta aldizkarietan:

Altabegoity

Amoçain, Henriette

Amoçain, Pierre (1915-1971): *Aintzinaren* idazkaria, 1934-1935

Aranart, Philippe (1901-1981): *Gure Herria elkarte*a, 1937.

Arocena: Gonbidatua Lafitten talde euskalzalearen lehenengo bilerara, 1933an; ez zen joan.

Arramendy, Elise

Barucq emakumea

Bernoville, Gaëtan

Bribet emakumea

Biatarana, Jean

Blainville: Lafitten talde euskalzalearen bigarren bilera, 1934.

Casabonne, Jean Pierre

Chapelet: Lafitten talde euskalzalearen lehenengo bilera, 1933. Gonbidatua Lafitten talde euskalzalearen hirugarren bilerara, 1934ko abendua; ez zen joan.

Dargains, Fabien

(101) André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21an.

(102) Jacques Mestelaneek Amoçaini bidalitako eskutitza, Ustaritz.

(103) Mestelaneek Amoçaini idatzitako gutuna, Paris.

(104) Michel Diharceek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko otsailaren 5ean.

(105) Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Baiona, irailaren 14an

(106) Ibidem.

Dargains, Camille

Diharce, Maddie (1918-2001)

Diharce, Michel (1914-1940): *Eskualzaleen Biltzarraren* 1928ko bilera.

Diharce, Xabier (1920-)

Duboscq, Jean (1905-?): *Aintzinaren* gerentea, 1934-1935. *Aintzinaren* idazkaria, 1936.

Goyheneche, Eugène (1915-1989): *Eskualzaleen Biltzarraren* 1933ko bilera.

Guéraçague emakumea

Hainçuberro emakumea

Hastoy, Jean

Héguy, Pierre: Gonbidatua Lafitten talde euskalzalearen hirugaren bilerara, 1934ko abendua; ez zen joan.

Hiribarren, Charles (?-1989): *Aintzinaren* idazkaria, 1935.

Jaureguiberry, Jean de (1880-1952): *Gure Herrian* (11 idazlan) eta *Aintzinan* (5 idazlan) idatzi zuen. *Gure Herria elkartearen* 1932ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1933ko bilera. *Eskualzaleen Biltzarraren* 1933ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1934ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1935ko bilera. *Eskualzaleen Biltzarraren* 1935ko bilera *Gure Herria elkartearen* 1936ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1937ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1938ko bilera.

Jaureguiberry, Madeleine de (1884-1977): *Gure Herria elkartearen* 1936ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1937ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1938ko bilera. *Aintzinaren* idazkaria, 1935-1937.

Lafitte, Piarres (107) (1901-1985): *Eskualzaleen Biltzarraren* 1928ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1930ko bilera. *Euskaltzaindiaren* 1930eko azaroaren bilera. *Gure Herria elkartearen* 1931ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1932ko bilera. *Eskualzaleen Biltzarraren* 1933ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1933ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1934ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1935eko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1936ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1937ko bilera. *Gure Herria elkartearen* 1938ko bilera. *Eskualduna* (238), *Gure Herria* (69) eta *Aintzinan* (146) idatzi zuen.

(107) Piarres Lafitte, talde euskalzalearen bultzatzaile nagusia izan bazen ere, ez zen euskalzaleen bileretara joatan, apaiza izatean egoki ikusi zuelako euskalzaleen antolakuntza politikotik kanpo egotea.

Lassalle, Léon (1881-1961): *Eskualdunan* (9 idazlan), *Gure Herria* (34 idazlan) eta *Aintzina* (11 idazlan) idatzi zuen. *Gure Herria* elkartearen 1934ko bilera.

Mendiboure, G.: Lafitten talde euskalzalearen hirugarren bilera, 1934ko abendua.

Mestelan, Jacques (1918-): *Gure Herrian* (3 idazlan) eta *Aintzina* (7 idazlan) idatzi zuen.

Olphe Galliard, Maurice: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen idazkari adjuntua, 1935-1940. Lafitten talde euskalzalearen bigarren bilera, 1934.

Olhagaray andrea

Ospital, André (1915-1987)

Ospital, Félix: Lafitten Euskalzaleen bilera, 1933. Gonbidatua Lafitten talde euskalzalearen bigarren bilerara, 1934; ez zen joan.

Richter, Jean (?-1940)

Saint Martin, Germain

Urricarriet, Jean Pierre (1905-1950)

Urricarriet emakumea

Ikusten dugun legez, 29 euskalzaleetatik 7k, elkarte kultural bilera gehiagotan egon ziren, Lafittek eraturiko taldean aritzeaz gain: Philippe Aranart, Michel Diharce, Eugène Goyeneche, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte eta Léon Lasalle.

Alde batetik, Jean de Jaureguiberry eta Piarres Lafittek Gure Herria elkartearen sei bileretan egin zuten topo eta Madeleine de Jaureguiberry euren elkartu zen horietako hiru batzarretan; Philippe Aranartek hirurak ikusi zuten horietariko bilera baten baino ez.

Beste aldetik, Lafitte Euskalzaleen Biltzarren bi bileretan egon zen; batean Michel Diharce eta Jean de Jaureguiberryekin elkartu zen eta bestean Eugène Goyhenechekin.

Laburbilduz, eta jadanik aipatu dugun bezala, Piarres Lafitte intelektuallak *Gure Herria* eta *Eskualdunaren* argitalpenetan eta *Gure Herria* elkartearen agertu zuen bere 1930. hamarkadako iharduera kulturala. Horrez gain, bilakera intelektual hori zertu zen aldizkari bat argitaratzean, *Aintzina*, eta talde kultural baten sorkuntzan, Euskalzaleak.

Beste aldetik, esan dezakegu 1920 eta 1940. urteen artean Iparraldean mugimendu euskalzale kulturala pizturik zegoela, Lafitte eragilea izanda, eta el-

karte eta argitalpen mailan ekintzak burutu zituela. Eta, beharbada euskalzaleen gazetazuna zela eta, ia inork ez bazuen ere ekintzarik burutu talde euskalzalearengandik at, Piarres Lafitte, Jean de Jaureguiberryrekin batera, maiztasunez joan zen talde euskalzaleaz gain beste elkarte bateko bileretara, hau da Gure Herria elkartearen batzarretara. Era berean, 39 urteko Lafitte gazteak hiru aldizkari ezberdinetan idatzi zuen aztertu dugun garaian —*Aintzina, Eskualduna* eta *Gure Herria*—, Léon Lasallek bezala, baino honek 59 urte izanda.

ERANSKINA

Aldizkarietako idazleak eta artikuluen kopuruak (1920-1940)

Izena	<i>Société des Sciences,</i>						
	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Bul. M. Basque</i> (1925-1935)	<i>Lettres et Arts de Bay.</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Aintzina</i> (1934-37)
Aguirre, José					7		
Alford, Violet			5		2		
Altube, S.						12	
Anguiozar, Martín de					36		
Apestéguy, Laurent	39	109					
Apraiz, Angel					17		
Apraiz, Odón	1				15		
Aranzadi, Telesforo					43		
Arbeletche, H.		9					
Areitio, Darío					10		
Ariztia, Marie	24						
Arocena, Fausto					15		
Arotçarena, Salbat	1	248					2
Azkue, R. M.						41	
Bahr, Gerhard					15	3	
Barandiaran, José Miguel					6		
Barbier, Jean	49	79			1		
Béhéty, D.	7						
Blazy, Edmond	6		2				
Boissel, William			16	1			
Bosch, Pedro					6		
Burguburu, Paul				5			
Camino, A.		6					
Campion				3	1		
Casédevant, Ed.				5			
Colas, Louis	11		3	1			
Constantin, Albert			10				
Courteault, Em. Henri				5			
Croste, René				9			
Cuzacq, René	26		2	8			
Daranatz, Jean Baptiste	40		6	61	18		
Dassance, Louis	26	22	1				
Delzangles, R.	1	3					

Izena	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i>						
	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Bul. M. Basque</i> (1925-1935)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Aintzina</i> (1934-37)	
Donostia, José Antonio	23		8		25		
Dop, Henri	30		1				
Dop, Pierre	16			3			
Ducéré				8			
Dufau, Dominique	6	3					
Duhour, Pierre	10	458					
Echegoyen, D.		8					
Eguskitza					17		
Elbé, Charles	4						
Eleizalde, Luis					22		
Elissague, Mayi	35						
Elissalde, Jean	66	159				1	
Etchecoin	15		3				
Etchepare, Jean	57	121					
Etcheverry, Michel	26			33			
Etxegarai, Bonifacio					14	3	
Etxegarai, Carmelo					3	1	
Fernández Giménez, S.			12				
Foix, Joseph	2				9		
Foix, Joseph	9			2			
Gallop, Rodney A.	11		4				
Gárate, Justo	1				44		
Garmendia, Pedro					20		
Gavel, Henri	76		9	7	12	1	
Giese, Wilhiam					22		
Gorostarzu	10						
Goyeneche	1	69					
Grimard, A.				5			
Guerra, Juan Carlos					17		
Gurruchaga, Ildefonso					7		
Héguy, Julien	2	3					
Hérelle, Georges	9		2	7	6		
Iriart, Michel		19					
Irigarai, Angel	7				20		
Irigarai, Pablo Fermín	9	366					
Istillart, Gratien		35					
Jaureguiberry, Jean	9						5
Lacombe, Georges	45		1	2	59	2	
Lacrambe				5			
Lafitte, Piarres	69	238					146
Lafon, René					12		
Lamarque, Jean	30		2	2			
Lambert, E.				5			
Larzabal, Pierre		5					
Lassalle, Leon	42	9					11
Lekuona, Manuel					12	1	
Leon, Léon	21	15					

Izena	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i>					
	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Bul. M. Basque</i> (1925-1935)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Aintzina</i> (1934-37)
Léon, Albert	6			1	6	
Lhande, Pierre	15		1		3	1
Menditte, A. de		129				
Mestelan, J.	3					7
Meyer-Lübke, W.					7	
Minvielle		13				
Moulier, Jules	59	82				
Mugartegui, Juan José					17	
Mugica, Serapio					12	
Munarriz, E.					5	
Nogaret, Joseph			17	10		
Nussy-Saint-Saens, Marcel			6			
Ormaetxea, Nicolas					8	8
Otacéhé		428				
Pérez Goyena, Antonio					5	
Picochet			10			
Poydenot, Raymond				5		
Rectoran			2	3		
Reicher, Guillaumie	20			4	1	
Rocq		1		4		
Saint-Pierre, Jean	17	180				
Saint-Vanne, A.				5		
Saroihandy, Jean					14	
Schuchard					14	
Soubelet, Dominique		376				
Souberbielle, E.	35					
Souberbielle, Maurice	5	56				
Spitzer, Leo					12	
Uhlenbeck, C. C.					13	
Urabayen, Leoncio					13	
Urquijo, Julio	1				52	
Valle, Alfonso del					23	
Veyrin, Philippe	34		14	1	12	
Vie, Georges				6		
Vinson, Julien	10			5	6	
Voulgre, André				5		
Ybarnégaray, Jean	1	11				
Yturbide, Pierre	11					

BIBLIOGRAFIA

Aldizkariak

Aintzina (1934-1937) (Lazkaoko benediktinoen liburutegian, Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean).

Bulletin du Musée Basque (1925-1935) (Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegian).

Eskualduna (1921-1944) (Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian, Belokeko beneditinoen liburutegian, Baionako udal liburutegian).

Eskualzaleen-Biltzarra (1905-1906, 1908-1913, 1919-1926, 1930-1936) (Donostiako Koldo Mitxelena kulturunea, Derioko Labayru liburutegia).

Euskera. Euskaltzaindiaren lan agiriak. Donostia, (1920-1937), 1980.

Eusko-Ikaskuntzaren Deia (1920-1936) (Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegian).

Gure Herria (1920-1936) (Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean).

“Herria 25 urte”, Herria, 1969.

Revista Internacional de los Estudios Vascos. Indices de autores, de libros recensionados, de materias y de ilustraciones (1907-1936), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1977.

Société de Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne (1922-1931) (Euskaltzaindiako liburutegian, Derioko Labayru bibliotekan).

Liburuak

Agirreazkuenaga, J. (dir.): *Diccionario bibliográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1998.

Díaz Noci, J.: *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994.

Díaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1995

Estornés, I.: *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1983.

Euskaltzaindia: *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Bilbo, Iker, 1983.

Haritschelhar, Jean eta beste Batzuk: “Hommage à Pierre Lafitte”, *Bulletin du Musée Basque*, 1986, 113-114 zkiak.

Jacob, James E.: *Hills of Conflict. Basque Nationalisme in France*. University of Nevada Press, 1994.

Larronde, Jean-Claude: *Eskualerri-zaleen Biltzarra (1932-1937), Eskualerri-zaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1994.

Urkizu, P.: "Elissalde eta Etchepare, Apaiza ta medikua gerra-kronikari", *Gerra eta Literatura*. Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura, Donostia, 1997.

Xarriton, P.: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak I. Euskal Gaiak*, Donostia, Elkar, 1984.

Xarriton, P.: *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak II. Mediku solas*, Donostia, Elkar, 1985.

PIARRES LAFITTE GURE ARBASOA (BERETIK ETA AZKENA)

Emile Larre

GIZONA NOLAKO!

Lafitte bezalako batek beharko zuen altzeiruzko osasuna. Baina ez dira beti gauzak hola joaiten batere gizonen artean: hots, batek baduena besteak ez du eta holaxe doa gure mundua, osoki dohain desberdinez egina, batetik bestera.

Gure Piarresen kasua aski erakutsia dugu jadanik ez zela hanbatekoa osagarriaren aldetik: hastean ahal bezala, gutitarik ateraia, ez iduri batere bizikoia zela haurra, burasorik gabe haunditua, gaztean indar balentria guti egina, kirola edo indarjokoz, halere beti gizon ernea ibili da bizkitartean, “itxura txarrean pixkor” eta beti bere lanttoetan ari. Beribilean elgarrekin ereman ditugun oren luzeetan, Euskaltzaindirat bederen gure bi orenak behar baiginituen Bilborainoko egun batzuetan, erabiltzen ginituen ere solasean gure osasun gorabeherak.

LO EGILE TXARRA

Erraiten zuen deplauki, gibleko aterik gabe, zer lo egile txarra zen, medikuetan ere asko ibilia, odolaren tentsione haundiegia, hau ere nork erranen zuen, harek zauzkan itxura hitsekin, eta diabeta ez dakit zenbatetan, jan-edanetan larderia zerbaiteko neurriak eta gomendioak zauzkala. Horiekin batean, harek zaukan arrailleria eta jostakin omorearekin, aterako zuen zirto bat ederra, erakutsiz ez direla haundiegi hartu behar sendagilearen beltzuriak. Hau ere entzun diot behin baino gehiagotan: “Nik behar dut hein bat tentsione nere lanetan doi bat kalipu izaiteko”. Eta hein hori omen zoan aski gora ere aldika, 18 eta 20 inguruetaraino, berak zionaz.

Egunak jin, egunak joan, holaxet zituen, beti bere uztarrian berme, 84 urte bilduak. Batere on balinbazen, eta on zen gutiz gehienetan, hor ginuen asteartetan Baionarako, beti ber urratsetan eta beti lana gogoan, hor ere Euskaltzaindian, ilabeteko bilkura orokorrean, eta berdin balio zuen Donostian,

Iruñean, Gasteizen edo Maulen balinbazen ere biltzarra, edo bizpahiru eguneko Jardunaldiak, harateko zen gure kalonjea, ustegabekoz kanpo.

GRAMATIKA EGUNETAN

Holako batzu gertatu ziren, 1984eko urte ondarrerat, Iruñean, Arturo Campion Gramatika Egunak Idioma Etxean. Eta joan ginen harat ere elgarrekin eta Euskaltzaindiko gehienak nik besotik lagunduz bereziki eskalaretan. Denak segitu zituen Lafittek, ernatzen eta pizten zelarik ere, zakien bezala, bereak zituen gai batzuetan eta denek errespetu ekartzen zioten, are gehiago gai horietan.

Oroitzen naiz, arats haietarik batez, ganbara berean ezarri gintuztela hotelako ganbara batean Lafitte eta biak. Gehiago ere, euskal antzerki baten ikusten izan zen bera beste lagun batzuekin arratsean: ni ez nintzan harat atera tenore berant harekin ez atrebiturik. Haritschelharrek kondatu du ere, nihaurek salaturik, liburu baten aintzin-solasean, nolako trenpuan ibili zen hau, bai-eta nik baino hobeki lo egin zuela ere, egundainotik goizean goiz berriz jeiki aintzin, eta sekulan baino bipilago.

OSPITALERAT JOAN BEHAR

Azken uztarrak ote?... handik geroxago agertu ziren Lafitteen nekadurak eta gaitz...ren desmasiak. Eguberri eta Urtats baino lehenago, urtearen azken ilabete eta asteetan, ezin etorri zen astearte batez, eta berriz ondokoan, Baionako urratsetarat. Beti bezala Uztaritzetik pasatu nintzan, berrien hartzeko bederen, eta gibelerakoan, arratsaldean, laneko berriak ekartzen nizkion, baina behar izan zuen ixtante, Ospitalean sartu. Geroztik, harat beharko zuen Lafitte ikusi nahi duenak bisita egin.

Ezarria zuten, ospitale zaharraren Basusarri-Arrangoitzerateko hegalean, erdi-erdiko erloia eta aintzindegiari behatzen diozularik, irakurlea, han nunbait, eskuineko xoko hari, 19 garren ganbara ote zen hastean?... eta geroxago ez dakit zein xuxen, lekuz ere aldatu baitzuten.

Nik aldiz, hamabost urtez Uztaritzerat ene asteko bisita astean behin egin, aise sinetsiko naute denek hemen, erraiten badut betiko deboziora berarekin egin diotala ospitalerako bisita egunaz eta berdin gauaz ondarrerat, eta ez nik bakarrik orobat. Asteartearekin lehenik, hasi nintzan ixtanteko biharamunean berrikatzen ene itzulia. Oroit Irisarrin nintzala orduan 35 kilometretan. Egoiten nintzan hantxetan jarri-ta Lafittekin, solaseko trenpurik batere zuenean kanpoko berriak ekarriz, eta lehenik HERRIArenak, edo ixilik, liburu bat eskutan.

JEAN LAHARGOU-REN LAGUNTZA

Huntaz ere oroitzen bada irakurlea, eta oroitzen ez bada bietan, behar dut orain berri bat salatu: aintzineko urte heietan, ikusiz nekeak bazituela HERRIAK, familietan xaharra hil-eta gazteek euskararen gose guti batetik, eta diru konduetako kezka bestetik, zin egina nuen nik laguntzaile hurbilenekin, behar ginuela kaseta iraun-arazi... "Lafittek begiak hetsi arte". Zorionez, orduantxe gertatu zen ustegabeko berri ona: **Jean Lahargou** suhuskundarra, Baiona-Bokalen apez eta apez-langile egona. Gure seminarioko aspaldiko lagun hori etorri zitzaigun *Herriara*, bere kar eta su guziarekin, gure aren alde ekonomikoa berriz xutitu ziguna eta berriz haxean ezarri, beste adiskide batzuen eta herri batzuen dirulaguntzekin.

HERRIA BETI AINTZINA

Geroztik dira gauzak bideratu, emeki-emeki, *Herriaren* bi batzordeak ere berrituz, ekonomikoa eta idazleena, dela Haritschelhar, Goity, A. Ospital, M.J. Minaberry eta herrietako berrikerari andana luzatuz eta beren segidako eginbideetan finkatuz, nahiz hauek beti urrikakoak egonen badira ere, baina badakite halako baten berri iparralde huntako kaseta euskaldunek. Horiek hola, badira hor kide asko Lafitten denborakoak eta besteak berriak. Hauek oro, Lafittek, bera ahulduz zoan denbora hartan, etzituen ez xuxen xuxena jakin, baina berriz goratze eta xutitze hortaz zerbait salatu ahal izan diogu halere gure erriari, hitzerdika bederen, baietz ba, ongi zoala *Herria* beti aintzina;

Arte horretan, zer eri xarmanta eta atsegina ez da izan Lafitte ospitalean, han ezagutu dutenentzat; ez, ez; ez dio nehorik ezagutu gizon miresgarri horri, eriaren ingrat eta minkortasun hartarik batere. Beti ele ona, beti esker ona erizainen artatze, zerbitzu ala pikuretan, eta beti baietz, segurki baietz, eza eta beldurra mihi punttan izanen zituzkeelarik ere bere ezinbertzean. Eta hori denekin: bihotzeko artatzaile medikua, hango zerbitzuko burua bera loriatzen zuen, andere erizainek ez jakin zer erran eta nola goretz, beti hoin grazios eta goxoa zuten eri xahar hori. Batzuek eta besteek zerbait egin nahi ba dohaka-bearentzat baina ezin;

ARBASO EZIN AHANTZIA

Behin, gehiago deusik ezin hartuz Lafitten barneak, eskaini ginion nahi zuenetz ezta. Erdi plazer egiteko naski, baina bakearen gatik zela aitortu gabe, baietz erran zuen eztiarentzat. Gu bi jauziz joan ginen eztiaren erosterat. Daturik; lehen jastaldian berean bazuen aski. Azken muga joa zuen gizon haundi harek.

Aski bazuen ondikotz eginik Lafittek mundu huntan. Bere saila beste batzueri utzi ordua jina, segitzeko, 1985eko otsailaren 23 hartan. Uztaritzeko elizan egin giniozkan guk aldiz elizkizun ederrak. Bai-eta bildu ginela ere berderatziurruneke meza batentzat han berean, meza ixila, herriko erretora, B. Goity, A. Ospital, J. Haritschelhar, Monzon, de la Sota, Charritton, eta ahanztiek barka. Gu aldiz han ginen ezin ahantziz, beste ainitzen gisan, Piarres Lafitte “arbaso” “maitea”!

SOUVENIRS SUR LE CHANOINE PIERRE LAFITTE: “LES MARDIS DE HERRIA”

*Alexandre de la Cerda,
de l'Académie des Jeux Floraux*

Ces quelques mots pourraient s'intituler : “propos d'un inculte”, en référence à la remarque d'un des participants —le chanoine Etienne Sallaberry— à ces “mardis” de Herria qu'on m'a demandé de vous relater. En effet, à l'automne 1979, lors du premier anniversaire de Radio Adour Navarre, fêté à Biarritz sur la terrasse du “Victoria Surf” qui venait, hélas, d'enlaidir le rivage biarrot, j'avais demandé au chanoine Sallaberry, qui assurait une chronique régulière sur notre antenne, d'adresser quelques phrases à l'assistance en majorité erdaldun, dont le député maire, à l'époque Bernard Marie. Il commença par une longue déclaration en euskara, qui mérita d'autant plus d'applaudissements que la plupart n'y avaient pratiquement rien entendu, mais le coucher de soleil était somptueux et le buffet, offert par l'un de nos annonceurs publicitaires, très prometteur. Soudain, sans se démonter, de son timbre quelque peu nasillard, le chanoine fit tomber cet arrêt implacable et définitif : « *Et maintenant, pour les incultes* », tout en poursuivant en français !

Eh bien ! moi aussi, hélas, en dépit des leçons de grammaire basque que le chanoine Lafitte m'avait administrées avec une patience infinie, je suis resté un inculte, et je ne pratique pas suffisamment le basque pour l'employer dans cette causerie. Or mon témoignage sera bref et davantage anecdotique que savant, car d'autres ont déjà énuméré les innombrables mérites spirituels, humains et scientifiques de l'homme, du prêtre et du grand linguiste. Je ne ferais qu'égrener quelques souvenirs personnels liés à la fréquentation assidue de ce qui m'apparaît à présent comme l'un des cénacles les plus exceptionnels rencontrés au cours d'une vie de publiciste. L'expression même de cénacle pourrait prêter à sourire eu égard à la modestie, à l'humilité des circonstances et du lieu qui nous rassemblaient. Et pourtant, quelle réunion d'intelligences, de savoir et, par-dessus tout, de caractères humains bien trempés lors de ces déjeuners des mardis de Herria, pris sur une très commune toile cirée dans une humble auberge du bas Mouguerre !

C'était à la fin des années soixante-dix, et vous me pardonnerez de rappeler d'abord les raisons de ma participation à ce déjeuner qui faisait suite aux corrections des épreuves de l'hebdomadaire basque précédant sa parution le jeudi ; repas frugal entre tous qui rassemblait ses collaborateurs les plus proches, rejoints à l'occasion par quelques personnalités plus "extérieures". Je venais de fonder Radio Adour Navarre avec pour objectif avéré de donner la parole à une région et à une culture qui en étaient singulièrement dépourvues, en particulier les moyens modernes d'expression telle la radio. A l'origine, j'avais bénéficié d'une heure quotidienne d'émission sur Radio Popular de Loyola, alors confiée aux mains d'une personnalité extraordinaire, précurseur à bien des égards de ce "média" en Pays Basque puisqu'on le chargea, après Loyola, de mettre sur rail et de diriger la chaîne de radiodiffusion publique créée en 1983 par le gouvernement d'Euskadi. Le père Ignace Arregui, jésuite fin et lettré, avait bien compris mes motivations ainsi que l'intérêt d'accorder un temps d'antenne aux habitants des provinces septentrionales ; en outre, ces émissions montraient aux auditeurs Guipuzkoans et limitrophes qu'il existait également un pays, une langue et une culture basques au Nord de la Bidassoa. Cependant, mes premières interviewes rencontraient parfois quelque réticence, et je me souviendrai toujours de cette réplique fusant un jour à Cambo : « *Le micro n'est pas un instrument basque !* » Or mon idée était précisément que, petit à petit, il le devienne. Il convient d'ajouter qu'à l'époque, s'il paraissait difficile de faire parler en euskara devant un micro, trouver quelqu'un capable de délivrer une chronique construite et régulière tenait du miracle. Or parmi ceux qui m'avait considérablement aidé dans ma tâche en me facilitant l'accès à d'innombrables milieux propres à alimenter la substance de mes programmes, je n'exprimerai jamais assez de gratitude à l'endroit d'Es-kutik, alias Louis Toulet, cet infatigable chantre de la pelote —appelé "basque", comme il se plaisait toujours à le souligner—. Le premier, il avait procuré à notre sport national une tribune médiatique dont on connaît l'importance qu'elle revêt de nos jours. Donc, c'est lui qui m'invita, à l'origine, à un "mardi" de Herria afin d'enregistrer une chronique en basque. Celle-ci, d'une durée de cinq minutes environ, devint, elle aussi, hebdomadaire. Elle était assurée par l'abbé Emile Larre qui annonçait en avant-première le thème des articles à paraître dans Herria ; s'y ajoutaient parfois d'autres sujets "quémandés" au chanoine Lafitte, qui participait à l'occasion, et de bonne grâce, à des émissions beaucoup plus longues. Je garde en particulier le précieux enregistrement de ses souvenirs d'enfance et de jeunesse, de prêtrise, de journalisme et d'écriture. Malgré son âge déjà avancé, il faisait toujours preuve d'une mémoire très alerte et ne manquait pas d'émailler ses récits d'anecdotes et de mots certes plaisants, mais jamais empreints d'une quelconque vulgarité. C'est bien là qu'apparaissaient les qualités humaines incommensurables du chanoine, toujours le coeur sur la main. Toujours disponible, également, pour fournir le renseignement demandé et, dans son invraisemblable "chambre-archi-ve-bibliothèque", extirper d'une main sûre et savante, avec la fulgurante

précision d'un ordinateur, la brochure idoine de dessous une montagne de dossiers et de livres. Cette bonhomie naturelle n'excluait aucunement le jugement acéré et vif, un peu à la manière du vieux dicton ornant la cheminée de la salle à manger du château d'Arcangues : la dent était douce pour ceux qui se trouvaient autour de la table, mais elle savait se faire dure —toutefois, sans méchanceté aucune— à l'encontre de ceux dont l'attitude ou les écrits lui déplaisaient fortement. Je me souviens en particulier de quelques remarques bien senties concernant des publications auxquelles il n'aurait certes pas délivré son "imprimatur" moral ou des analyses qu'il estimait erronées —par exemple la psychologie de l'euskarien réinterprétée par Pierre Loti ou celle d'Etxahun "le malchanceux" romancée et poétisée par Pierre Espil. Il n'hésitait pas, non plus, à fustiger certaines excitations militantes ne paraissant pas s'appuyer sur des connaissances historiques ou linguistiques sérieuses. Et le rappel de quelques attitudes troubles ou ambiguës pendant l'Occupation avait le don de déclencher sa réprobation.

Je revois encore le chanoine, déjà chaussé de lunettes à verres épais, s'armer encore d'une grosse loupe qu'il promenait au-dessus des morasses du journal à l'Imprimerie des Cordeliers. L'essentiel de la vérification accompli, il nous rejoignait à Dibusty, chez Etxebaster, le petit bistrot de Mouguerre où nous partagions quelques crudités, une "sauce" et un gâteau basque carton-neux, le tout arrosé de quelques verres de picrate à l'enseigne d'un "Toréador" inconnu. Il y avait là les habitués : l'abbé Emile Larre, qui est, de nos jours encore, la cheville ouvrière de Herria, à l'allure et au débit (d'enregistrement au micro) toujours pressé, les chanoines Lafitte et Sallaberry, ainsi qu'André Ospital, au rôle plus administratif et comptable, qui racontait souvent quelque histoire de contrebande ou de chasse dans sa palombière aux Aldudes. D'éminentes personnalités du monde linguistique ou historique, ainsi que des élus s'associaient à notre petit noyau dans le but de rencontrer le chanoine Lafitte en partageant l'humble repas. Ainsi, aux professeurs Haritschelhar et Allières, se joignirent à l'occasion Paul Dutournier, alors maire de Sare et président des maires du Labourd, des universitaires américain, tchèque, et le directeur de l'Institut Ethnologique de Tokyo avec une équipe de chercheurs et de cameramen, en quête d'analogies entre les Basques et les Aïnous. Je fus d'ailleurs chargé de piloter ces derniers auprès de l'Abbé Barandiaran, dans sa villa "Sara". Le chanoine Lafitte recevait avec courtoisie et écoutait attentivement ses hôtes, sans pour autant partager toutes leurs vues, entre autres Louis Charpentier quand il écrivait son "Mystère basque". Il n'hésitait pas à exprimer clairement ses réserves, voire même des mises en garde devant quelque excessive "fantaisie". On a peine à s'imaginer l'intérêt des conversations échangées autour de cette table, l'élévation des propos, ce qui n'empêchait nullement le regard perçant du chanoine de s'animer soudain d'un éclat vif et coloré de malice : une bonne plaisanterie, délivrée au moment le plus inattendu, avec cet accent rocailleux que l'on soupçonnait parfois d'être cultivé par plaisir, détendait une atmosphère chargée de gravité.

Moments particulièrement privilégiés que ceux-là, dans un cénacle dont on espère qu'il n'était pas formé de penseurs —ou de poètes— amenés à disparaître, certains sont encore bien présents, et on attend la relève pour l'avenir des Lettres et des Etudes basques. Du moins, tel semblait être le voeu le plus ardent du Chanoine Lafitte, et l'objet des incessants efforts de toute sa vie.

EGUNEROKO EUSKARAREN ERE SUSTATZAILE (Piarres Lafitteri omenaldia, Uztaritzen, 2001eko irailaren 22an)

Henri Duhau

Noiz ezagutu nuen Piarres Lafitte? Euskaldun Gazteriako idazkari-ibiltari nintzen Baionan, soldadogotik landa, 1963 urte hondarraz geroztik. E.G., badakizue, baserritar gazteen mugimendu giristinoa dela. Hain maitatua izana zen *Gazte* kazeta orduan itzalia zen eta haren ordaintzeko nolabait ireki genuen sail berri bat *Herria* astekarian “Gazteen Oihartzunak” deitu genuena eta sail horren arduradun gertatu nintzen laster. Gazteek artikuluak igortzen zizkiguten eta nik mekanikaz jorik ezartzen nituen gero *Herria*-rat eramateko. Eta beraz aste guzietan ikusten nuen Piarres Lafitte. Segidan biziki errexki antolatu ginen elkarrekin. Guk ahal bezain planttan egiten genuen lana eta *Herria*-n ere estimatzen zuten gazteen parte hartzea beren artean. Harreman hoberenak ukan ditugu beti. Horra beraz harekilako ene lehen ezagutzak.

Nahi nuke oroitarazi gertakari bat goiz huntan nehork aipatu ez duena. 1964an Piarres Lafitteri omenaldi bat eskaini zitzaion (ukan duen lehena, ene ustez) Baionan *Herria*-k hogei urte bete zituenean eta han gertatu nintzen hain xuxen “Gazteen Oihartzunak”eko arduradun bezala. Sekulako laudorioak ukan zituen denengandik eta guzietan eskerrak bihurtzerakoan hauxe atera zuen: «Hoinbertze lore ukaitearekin, uste nuen hila nintzela!» Entzule guzietan irri zafla eder bat jauzarazten zigula!

Omenaldi hura bururatzean Piarres Lafitte hasi zen han ginen guzietan presentatzen bederazka. Ene aldia etorri zenean, izena erran eta gero “Leizarragaren ildotik hitzak” erabili zituen. Soberakinak atzeman nituen zeren-eta ez bainuen denbora hartan batere pentsatzen egun batez euskararen barnetik ikasten ariko nintzela! Euskaltzalea nintzen, baina euskara enetzat komunikazio tresna on bat zen fedeaz hitzegiteko, ideia berrien zabaltzeko, laborari mundua aitzinarazteko, laneko moldeak hobetzeko eta abar... Ez nuen bigarren mailako ikasketarik eginik, eta ondorioz, hizkuntzalaritza osoki gai helezina zitzaidan; errexki ulergarria da beraz ene orduko pentsamoldea.

Gero ezkondu nintzen eta zombait denboraz ez nuen anitz ikusi Piarres Lafitte. Dantzaz okupatu naiz hogoi bat urtez eta denbora hartan Euskal Dantzarrien Biltzarrak gaitzeko saila eramaki zuen. Dantza gehienak batu egin zituen, euskara batuak lehen urratsak eman zituen urte beretan hain xuxen. Bai-

na dantzen batasuna egin arau aipatzen zen ere behar zirela bildu urrats batzu oraino biltzekoak (dantza osorik, biltzekorik, ez zen pentsatzen bazegoela) eta horrelako gomendioak entzutean ari nintzen beti ene buruarekin: «Dantza urrats hondar horiek horren garrantzitsuak badira, zenbatez ez dira baliosago oraino biltzekoak diren hainbertze euskalki?».

Ni ez nintzen dantzari irakaslea ofizios eta dantzaren teknikan baino errexkiago nenbilen euskalkien erdian. Iparralde guzia kurrutua nuen ezkondu aitzin eta gure aldeko euskalki gehienen ulertzeko gai nintzela ere iduritzen zitzaidan. Bertzalde etxean eta herrian euskara hutsean bizi izanak ginen gure haur eta gaztaro guzia, ez baita holako unibertsitaterik euskalki baten bereganatzeko bederen...

1980-1981 urteetan Koldo Artola ere ibilki zen hemen gaindi karraskan euskalki biltzen eta horra nola ni ere lotu nintzen Beskoitzeko aditza behar nuela idatzirik eman, ohartua bainintzen lau eleketarako formak biziki ontsa ematen genituela: toka, noka, zuka eta xuka. (Ikus *Hasian-Hasi Beskoitzeko Euskara* - lehen parte). Geroxago deklinabidea eta ahoskera ere bildu eta landu nituen. Eta gero hor nintzen ez jakin zer egin ene lanttoarekin. Lafitteri igortzen banio? Ez nekien orduan zenbatetaraino euskalkiez axolaturik zebilen, baina banekien Euskal Herriko gauza orok interesatzen zuela eta beraz igorri nion. Igorri banuen igorri ikusi beharko zenuten zer ongi etorria egin zidan! Handik goiti iduri zuen ni nintzela jauna eta hura ene zerbitzaria! Zinez sobera ona izan da enetzat geroztik.

Bizkitartean kezkatu joana nintzaion lehen aldian ene lanttoarekin. Herrietako euskara batetik eta bertzetik euskara batua gomendiatzen bainuen delako lanean. Eta jakina Lafittek eta bertze batzuek Iparraldeko euskara batu bat bezala landua zutela artoski, bai *Herria*-n, bai elizkizunetan erabiltzeko eta lapurtar-baxenafartar gehienek edo denek ulertzen dutena. Baina ez zen kexatzerik gertatu nehola ere eta bizpalau aldiz elkar ikusi genuen eta bertze bizpalau gutun ere igorri zizkidan beti ene sustatzen ari zela. Bainituen oraino halako uzkuratun batzuk. Eta Lafitte ohartua zatekeen.

Behin batez erraten dit: “ttenpan” hitza Beskoitzeko dela iduritzen zaizu? Nik baietz segidan. Beharbada ez dut nehoiz erabili baina Beskoitzekoa izan daitekeela beti bai. Hala da, erraten dit Lafittek, misionest batek kondatua baitaut. Huna. Misioneko azken eguna, meza nagusia eta jendea heldu otoitzerat trumilka. Apez misiolaria ere han denen agurtzeko eta ongi etorria egiteko. Aita familiako bat ere heldu da bere bortz edo sei urteko muttikoarekin. Elizan sartzean erraten dio bere haurñoari: «Harraxu ur benedikatua, Aitaren egiteko, Jesus hor baita». Eta haur ttipiak, abantxu nigarez, aitari buruz: «Jesus hor baita, ttenpan?» (ttenpan = trenpan = bustia). Lafittek hori kontatzean ari nintzen ene buruarekin: «Zer da istorio hau: “ttenpan” bezalako hitz ttipi ez-deusa, erdaratik zuzen-zuzena hartua, horren inportanta baitzaio gizon jakintsu horri, munduko literatura finenak aztertuak dituen horri?»

Baina istorio ttipi horrek ukan zuen bere eragina ene baitan: “ttenpan” garrantzitsua bada, dena da garrantzitsua, egin nuen. Ausartzia emendatu zidan eta deblauki ene lanen publikatzerat bultzatu ninduen; lehenagoko “Leizarragaren ildotik” soberakinak neuzkan hitz haiek ere nolabait inarrosi ninduten bezala eta bertze asko solas eta gutun beti ene sustatzaile izan direnek bezala. Piarres Lafitteren pedagogia hori nahi dut azpimarratu arras eraginkorra izan baita. Jokabide eta jeinu horri ohartu naiz emeki-emeki, ikertzaile munduan, mailarik apalenean bada ere, sarrarazi baininduen nihaur kasik ohar-tu gabe.

LAFITTE, IPARRALDEAREN ETA HEGOALDEAREN ARARTEKO

Pako Sudupe

Zuetako askok ondo ezagutzen zenuten Piarres Lafitte; ardua mintzatuak zineten berarekin buruz buru, eta gutxi asko maitatua zenuten. Neuk ez dut inoiz berarekin hitz egin; ikusi bai, gogoan iltzatua dut nola ikusten nuen Iruñeko Larraona ikastetxean Udako Euskal Unibertsitatearen karietarat, bere sotana luzearekin, eta bere gorputz hauskor aire eta konkortuarekin. Nire Lafitteren ezagupena idazkien bidez heldu da; berataz idatzi dutenengandik, eta guztien gaineratik berak bere baitarik argitara eman dituenetarik. Eta mintzaldi honetan idatzizko ezagupen horren zertzelada batzuk azalduko dizkizuet, bereziki Ipar eta Hegoko harremanen ikuspegitik; baina, horretara mugatu gabe, Lafitteren lanaren interpretazioa zirriborratzen ere entseatuko bainaiz.

Badu Lafittek *Dendariak* izeneko kontakizun labur bat; eta, bertan dendariak edo nahi baduzue, neska ezkongabeak oro har, Angeluko seroren komentura biltzera gomitatzen ditu; eta, horretarako honako kantua du eskaintzen, lau zortziko handiko ahapaldiz biribildua:

Goizik egin daut zori-gaixtoak
Bihotzean zarrapoa,
Zazpi urtetan betikotz joan zait
Nigarrik gabeko loa.
Beti eskas dut oherakoan
Amaren musu beroa.
O zoin beltza den ama iresten
Daukun hil-herri ziloa!

Zonbait egunen buruan aitak
Umexurtz ninduen utzi:
Eritasunak uste gabean
Hobirat zuen iraitzi.
Geroztik, Jainko Jaunari esker,
Komentu huntan naiz bizi
Serorek beren alaba gisa
Nute orai arte hazi.

Ama samur bat izan zait beti
 Hemen edozein serora,
 Nahiz ez naizen zorigaitzeko
 Umexurtz gaixo bakarra.
 Ni bezalako berrogei nexka
 Elgarrekilan bagira,
 Gure berrogei amak zerutik
 Ama-serorei begira!

Ondikotz, ama berri hauk ere
 Bertzen ganat zaizku joaiten.
 Eta nehor heien ordaintzerat
 Etxe huntarat ez jiten.
 Ondar neguan zortzi hilentzat
 Bi gazte baizik ez aurten.
 Umexurtxak, bai, berriz umexurtx!
 Asma zer pena ez duten!

Ezkongabe emaztekoa gizon bilaka, eta esan liteke autobiografikoa dela zinez olerki-kantu hau; eta aldi berean bere bizitza guztiaren laburbilduma. Ez al zen Lafitte umezurtz gelditu zazpi urtetan, ama eta aita, biak ere hilabete gutxiren epean galdurik?, ez al zuten Belokeko apaizek altxatu, eta gero Baionako Seminario Handiko irakasleek eta Tolosako Institutu Katolikokoek?, ez al zuten bere bizitza guztian, nola Uztaritzeko seminario ttipitik edo *Herria* eta kazetatarik bizitzaren ikuspegi erlijiosoaren alde eta laikoari buruzki gudukatu, nonahiko Jainko-seeak eta alabak, oro har; baina, oroz gainetik, hurkoen zituen euskaldunak, Jainkoaren aldera bildu beharrez?

Apaiz izateko bokazioa, berak Serge Monierri (1) kontatuaren arabera, apaiza herrian norbait zela ohartzetik etorri zitzaion. Haatik, banago hau ez ote den hartu behar erdi txantxetan, erdi irriz, Lafittek arras maite zuen estilo jostalariaren zirto barregarri gisa. Altxatu zuen familiaz den bezainbatean, Monierri egindako adierazpenak kontuan, esan liteke fede handikoak zirela, eta aita bera ere, frantses estatuaren funtzionario izanagatik, aduanazaina zenez gero, garbi ikusten da fededuna zela, eta girstino bertuteetara emana. Beraz, apaizei ohartu bide zien larderiak sortutako lilurari bezainbat zor dio apaiz izateko bokazioa, horrela erratea zilegi bazait, altxatu zuen familian edoski zuen giro girstinoari.

Haatik, maitekiro hazi zuen izeba biamesari eta, batere meriturik kendu gabe, ene ustez, benetako aita izpiritual, espiritu gidariak beste batzuk izan ditu, eta hauetarik bat biziki markatu zuena zalantza izpirik gabe Saint-Pierre apezpikua, Baionako Seminarioan irakasle izandakoa: honek bildu zuen eus-

(1) MONIER Serge: *LE PERE LAFITTE entretiens souvenirs avec*; ELKAR, Donostia-Baiona; 1992, 55-63 orr.

kararen alderako Afrikan misiolari izan nahi zuen apaizgai gaztea. Gaur eta hemen omentzen dugunak apezpikua hiltzean honela idatzi zuen *Gure Herrian*: “Bazen behin euskaldun ttipi bat aitaren eta amaren aldetik umezurtz zazpi urtetarako, izeba biarnes batek altxatu eta hazia, sehaskan ikasitako ama hizkuntza ahantzia zuena. Euskaldun ttipi hau sartu zen Seminario Handian, eta han bere moraleko irakaslea entseatzen da, ez jakin zergatik, bere gurasonen hizkuntza ikasarako zezan. Apaizgai gazteak zalantza handiak ditu hain lan-tegi alimalearen aurrean. Zuzendariak hertsatzen du, berotzen du, eta ahaide baten arartekotasunez lortzen du biltzea: uzten dizkio bere euskal liburu eta kazeta guztiak, bere <<Azkue>> eta <<Eskualdun ona>>ren bilduma guztia, gogoz beroturik atxikitzeko; eta idazkiak laburrarazten dizkio, alemanetik edo espainoetik itzularazten dizkio euskarari buruzko artikuluak; eta hainbertzeraino ezen arras grinatzen baita eskualdeari dagozkion ikasketen aldera. Euskaldun ttipi hau, zuen zerbitzari hauxe zen”.

Batetik maisu izan du Saint-Pierre, euskal idazletzan maisu, Jean Etxepare eta Jean Hiriart-Urrutyrekin batean; eta bestetik, euskararen bidez euskaldunenganako eta hitz batean Euskal Herriaren alderako maitasuna txertatzen lagundu dio, hil arte bazter utziko ez duena. Saint-Pierrek utzi bazizkion Azkue handiaren euskal lanak; Azkuek berak jadanik 1928an, artean Piarresek 27 urte baino ez zituelarik, euskaltzain urgazle izendatu zuen, euskararen alde egindako lanen aldera, eta jakina, bide beretik jarrai zezan adoretzeko. Ordurako idatziak zituen hainbat artikulu *Eskualdunan*, 1925etik 30 arte Saint-Pierrek zuzendu zuen astekarian, eta *Gure Herrian* ere bai olerkiak, antzerkiak eta euskarari buruzko artikuluak eta; eta, bestalde, ordurako ezagutua zuen Pierre Lhande Tolosako Institutu Katolikoan, eta lexiko bilketan laguntza ematen hasia zen; eta *Grammaire Basque* alde batera bere lanik handienan ere bai Saint-Pierrek sustaturik.

Egun euskara batuari buruzko Euskaltzaindiaren gramatika dugu eskura, oraindik zer asko zehazteko dituen, baina hainbat puntu axolazkotan argitasunak ematen dizkiguna; eta erraz ahazten ditugu ondorio honetara ekarri gaituzten alde aurreko lanak, besteak beste, Lafitteren lankidetzaz bipilaz eginak; eta, ez diogu Lafittek eta beste hainbatek eginei eskerrik ematen, baina bere garairako, Iparraldeko literatur tradizioari zegokionez, nafar-lapurtar literarioaren azterketa oso lan bete izan zen gaur omentzen dugunak egina. Haatik bere lanak izendatzen hasten bagara, mintzaldian ez dugu bestetarako astirik izanen.

Goazen Hegoaldeko euskal kultur langileekiko harremanetara. Askorekin izan zituen harremanak, ideologiaz karlistak zirenekin bezala nazionalistak zirenekin, eta ez karlista eta ez nazionalista zirenekin ere bai. Zerrenda luzea aipa liteke: Resurreccion Maria Azkue, Julio Urkixo, Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Jose Markiegi, Martin Lekuona, Antonio Maria Labayen, Aingeru Irigarai, Jokin Zaitegi, Federiko Krutwig, Joseba Intxausti..., baina hauekiko guzti-eko harremanak aztertu gabe, guztietarik bat bereiziko dut Jose Ariztimuño

Aitzol nazionalistarekin izandakoak hain zuzen. Uztaritzeko irakaslea ez zen laudorio merkeen zale, eta horrexegatik gehiago nabarmendu beharrekoak dira haren goresmenak. Aitzolen *La Democracia en Euzkadi* liburua iruzkintzen ari, bi adjektiboz goraiatzen du idazle tolosarra; batean idazle jakintsua dio, eta bestean idazlari paregabea. Bada zerbait Lafitterengandik datozela kontu eginik.

Ildo beretik, badu *Aintzinan* idatzitako artikulu bat hunkigarria bezain goangarria, besteak beste, Ariztimuñori eskainia. 1936ko abenduan idatzia, jadanik Espainiako anaia-arteko gerrak hilabete batzuk bazituela, eta jadanik Aitzol hila zutela. Lehenik, aitortzen du <<croisade>>ren zaldunek apaizak garbitu zituztela, hil zituztela ez armak altxatu zituztelako hauek, baizik ere euren Herria maite zutelako; eta, hildakoen zerrenda ematen zuen, hamahiru apaiz hilena; hauetarik batzuk Lafitteren lankideak izanak euskalgintzan hala nola Martin Lekuona Erreterriako apaiza, eta Jose Markiegi Arrasatekoa; eta, aurrerago Aitzolez ari: Hiltzeko ordua iritsi zitzaionean, Ariztimuño apaizak, Euzkadi goratu eta Jainkoari urrikia eta gupida galdegin aurretik, besarkada eta barkamena eskaini zizkion hil behar zuen soldadu-taldearen buruzagiari. Irakaspen handia, ona Espainiako alderdi guztientzat eta gainera, atera zen euskal bihotz eskuzabal eta apostolikoaren duin.

Honek ez du esan nahi Lafitte bat zetorrenik euskal nazionalistek Espainiako gerran hartu zuten jokabidearekin. Zalantzan zebilen. Adiskideak alde bietan zituen: bai Frankoren aldeko karlisten aldean; eta baita, sozialista eta komunistekin batean, Errepubika aldezteko hautua egin zuten nazionalisten aldean ere. Moralki bi jokabideak zuzenesten zituen, eta heriosuhar baketu eta adiskidetu nahi zituen elkar hiltzen ari ziren nafar eta bizkaitar anaiak. Lafitte eskuinetik zetorren, eta eskuindarrengan jarri zuen fidantzia; baina, huts egin zioten Mola eta Yagüe jeneral eskuindarrek, eta hauen barrabaskeriak salatu zituen, Gernikaren txikizioa salatu zuen bezala, bere ingurunean, hots, Euskal Herriaren Iparralde honetan, gehienak Ibarnegarayrekin zirela, *Eskualduna* barne, Frankoren altxamenduaren alde eta gorrien aurka. Hirurehun eta gehiago haur, Espainiako gerratik ihesi Iparraldera etorritako haurrak artatzen ere erakutsi zuen bere benetako giristinotasuna, egokitasun edo komenientzia ideologiko-politiko guztien gainetik.

Aitzol eta Lafitte batetik oso hurbil zeuden elkarrengandik, eta bestetik bazituzten urruntasunak ere; eta badakigu bi pertsona hauek nortasun handiko norbanako ez ezik Hegoaldeko Eliza euskaltzalearen zati garrantzitsu baten eta Iparraldeko Eliza euskaltzalearen zati axolazko baten ordezkari ere izan zirela; eragin gaitza izan zutela nola batak hala besteak; batak Hegoaldean bezala, besteak Iparraldean.

Hurbil zeuden elkarrengandik Jainkoaren eta Lege Zaharren alderako atxikimenduan. Laikotasunaren aurka, bizitzaren ikuspegi laikoari aitzki, ko-

munismo eta sozialismo jainkogabeari buruzki biek ere zenbat guduka ez zuten egin! Lege Zaharren alderako atxikimenduan beste horrenbeste.

Lege zaharraren deiturapean aitonen legeek zuten on guztia hartu eta egungo legeei jarraiki, etorkizunerako abiadura hartzea ulertzen zuten *Eskualherrizaleak* elkartekideek. Eta labur-labur bildurik hiru aldaxka zituen Lafitte-rentzat lege zaharrak: familia, irabazpidea eta herria. Familiaren zuzenak behar zirela ezagutu eta ezagutarazi aldarrikatzen zuen batetik; etxearen onari jazartzen zitzaizkion lege-gaien kontra ariko zirela: ondoriotasunak porroskatzeko zituen legearen kontra, edo ezkontza hautsi eta desohoratu nahi luketenen kontra. Aldiz, eskolako libertatea zuen galdegiten, haur-arauko boz-emaitea eta haur-arauko sari-gaina galdegiten zuen bezala. Euskaldun legeen arabera, emazteek eta gizonak eskubide berberak zituztenez primantzari buruz, zioen euskaldunek betidanik ezagutu dutela andreak ere gizonak bezainbat izaten ahal direla, bai zentzuz bai nagusigoz, eta ondorioz onesten zutela emazteek boz-emaitea.

Bizibide edo irabazpideari zegokionez, langileak eta lan-emaileak biak behar zirela faboratu zioen *Aintzinan*. Batzuek eta bertzeek sindikatu giristinoak behar zituztela moldatu. Aitzol ere biziki lehiatu zen Euskal Langileen Alkartasuna, hots, euskal langile kristauen sindikatua sortzen.

Herriaz berriz, Euskal Herriaren ona eta Euskal Herriaren eskubideak galdetzen zituen. Euskara ahoz nola idatziz erabiltzea, elebitasunaren alde egitea, eta herriko kontseiluen eskubideen alde gudukatzea hauek gobernu jakobino zentralistaren mutil ezdeus bilaka ez zitezen. Halaber ez zuen onesten ahal Frantziako eskualdeen artean korapilaturiko lokarri hertsia eta galgarria, herrialdeak bereiziago utziz elkarretarik, on gehiago zuketela denek irizten zion. Erregionalismoa hedatzeko Frantzian: Flandre, Bretania, Auvergne, Provence eta Alsaziako herrizaleekin eskuz esku aritzeko xedea agertzen zuten *eskualherrizaleak*. Puntu hauetan, eta euskal arrazarekikoan eta, nago baduela zorrik Lafittek, Sabino Arana, Engrazio Arantzadi eta Aitzol bezalako nazionalisten aldera. Orain *Eskualherrizaleen* mugimendu horretan, eta hiru urtez atera zuten *Aintzinan* beste puntu asko dago Hegoaldekoekin zerikusirik ez zutenak, edo izatekotan Hegoaldekoek Iparraldekoengandik hartuak izatea baino ez, hala nola pertsonalismoaren defentsa, Emmanuel Mounier eta Esprit aldizkariaren urratsetan.

Zein kontu txinatar polita bildu zuen *Aintzinako* orrietara Lafittek: eskailera izeneko ipuina hain zuzen. Behin Txinako mandarinak etxe handi bat erakitzekeo manua eman zuen, herrixkako biztanle guztientzat izanen zena eta auzo bakoitzeko solairu bat izanen zukeena. Solairuen arteko joan-etorria ziurtatzeko eskailera bat eraikiarazi zuen. Eskailera hori hertsiegia zela eta, hedatzeko manua eman zuen birritan ere, eta azkenean eskailera leku gehiago hartuz joan zen biztanleen etxebizitza geroz ttipiagoak baino. Biztanleek beren bizitza guztia eskaileran egiten zuten; eta azkenerako eskailera horren sobera-

niazko pisuak etxearen egitura hondatu, eta bertan behera erori zen etxea. Estatuaren soberaniazko boterearen sinboloa da ipuin txinatar hau; eta, pertsona errespetatu beharrarena. Hala adierazi zuen aleman izenburuko artikuluan: *Euzkadi über alles* (Euzkadi guztien gainetik): Jainkoaren ondotik giza pertsona da guk gehien errespetatzen duguna: zer balio dio gizakiari unibertso osoa irabazteak, arima galtzen badu? Mundua, Europa, Frantzia, Euskal Herria, herria, familia, norbanakoaren salbamenduaren zerbitzuan behar dute egon. Zalantzarik gabe, guk Euskal Herriaren alde egin nahi dugu, baina hau soilik gure aberkide maiteen salbamendu moral eta materialerako giro ego-kiagoa sortzearen.

Aitzolekin zituen hurbiltasunak aipatu ditugu, eta zerikusi handirik gabeko zerak ere bai. Eta urruntasunak? Ez da lan samurra hauek zehaztea. Bate-tik iduri du Aitzol Hegoaldean ahalegindu zen bezala benetako karlista tradi-zionalistak eta euskal nazionalistak elkarren artean batzen euskotar populu kristaua bildu nahiz, Lafitte ere beste horrenbeste entseatu zela Iparraldean: Jainkoa, Frantzia eta Euskal Herriaren aldekoak Jainkoa eta Lege Zaharraren aldekoekin estekatzen, azken mugimendu hau haren ondorio eta haren bilakera-erak naturalizat jotik, aurrerapenezko bilakaeratzat; bestetik, desberdintasunak ere nabariak dira Aitzolen eta Lafitteren artean.

Lafittek Monierri adierazi bezala, *Aintzina* agerkaria argitara baino lehen gauzak ongi pisatu zituen; eta bere programa *Eskualherriaren alde* plazaratu baino lehen, aholku eske ibili zen. Dakigunez, ez zion iritzirik eskatu Aitzoli, eta ez zen zer miretsirik egin balu; izan ere Aitzolek 1932an hiruzpalau artiku-ku idatzi zituen nazionalismoaz eta abertzaletasunaz, eta abertzaletasunaz eta apaizgoaz. Ariztimuñok ere Cambraiko Chollet artzapezpikuaren aipuak biltzen zituen Xalbat Arotzarenak bildu zituen bezala *Eskualdunan* nahiz biek aurore beraren zati desberdinak biltzen zituzten eta ondorioz oso bestelako on-dorioetara iristen ziren; edo Arras-eko apezpiku Julien monsinorearenak edota Erromako Gregorianako Aita Vermeersch famatuarenak. Artikulu hauek idatzi zituen Aita Saindu Pio XI.ren entziklika *Charitate Christi compulsi*-ren kariatarat. Baina gorago esan bezala, dakigunez ez zion aholkurik eskatu tolosar-ri; ziur dakiguna da Pariseko Yves de la Brière jesuita famatuari galdegin ziola.

Hau Tolosako Institutu Katolikotik ezagutzen zuen; eta honek *Eskualherri-zaileen* programan hiru osagai ikusten zituen: eskakizun katolikoak, kultu-ralak eta politikoak. Lehenbizikoei zegokienez, erlijio, familia eta eskolari bu-ruzko eskakizun katolikoei, inongo eragozpenik ez zien sumatzen; aitzitik, sustatu beharrekoak zirela irizten zien apaizak eta erlijiosoak aitzindari zirela. Kulturei zegokienez: literarioak, artistikoak, eta aberri ttipiari zegozkion ohi-tura, usantza eta oroipenei buruzkoak garrantzi txikiagokotzat jotzen zituen hauek, eta aurrekoak bezain zuzenak eta arazorik gabeak apaiz eta erlijioso-entzat. Eskakizun politikoetan ikusten zituen arriskuak eta oztopoak. Aberri ttipiarentzat separatismorik gabe autonomia lortzera bideraturiko lege eta era-

kundeen aldetiko aldakuntzei zegokienez, helburu gisa legezko eta bidezko-tzat jotzen zituen Yves de la Brière jesuitak baina, gogora ekarriz orduko Frantzia unitarioa, ez zion irizten egoki apaizak politikan aritzeari, jendaurrean, sinestunen artean sor zezaketen zatiketagatik; eta are gutxiago erlijiosoak. Bi hitzetan, eskakizun katolikoak sustatzeari bai, kulturalak ere bai, baina eskakizun politikoetan zuhurtzia eta kontu handia aholkatzen zizkion Lafitteri.

Nahi baduzue ziurtasun edo babes horrekin ekin zion *Eskualherrizaleak* mugimenduari Lafittek, eta halaber muga horiexekin. Espainiako gerra hasi zenean, argi utzi zuen zatiketa Lafittek, zatiketa politikoa Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean: *Politikaz den bezanbatean, gauden nor gure alde: antola ditela ahal duten bezala Espainiarekin; gu, Frantziarekin antolatuko gira; kulturala ez Gero, eskualdun mintzai, teatro eta ohidureri buruz, ez dugu nahi zazpi eskualdeak berech dituen elgarretarik; eta egia da, deus heraberik gabe agertu girela bai nazionalisten bai tradizionalisten bilkuretan. Bainan ez dugu heien politikari den gutieneko zorrik. Frantziako regionalistekin dugu gure egitekoa, erlisionaren bahean zetabetzen ditugularik heien irin guztiak; baina politikoa bai. Eta zatiketa espirituala ere erants liteke. Lafitte ez zen erabat fio Aitzol aberkidearekin, edo ez zitekeen fida egitura politiko-erlijiosoak zeuden bezala; Lafittek, Pariseko Institutu Katolikoko jesuitengan zuen konfiantza.*

Aberri handia, 1940an, zubiak eraikiz eta zubiak suntsituz zerbitzatu baino urtebete lehenago, banderei buruz zer iritzi eta zer sentimendu zituen adierazi zuen. Erraten zuen bazirela erregionalista aipatuak euskal ikurrinari eraso egiten ziotenak, eta bandera bakarrarekin, hots, urdin-zuri-gorriarekin aski zutela. Berak berriz, maite zuela urdin-zuri-gorria, bere borondatez landako hainbat gorabehera tarteko, bandera horrek orduan Frantzia ordezkatzan zuelako, eta ez halako edo holako iritzi politikoa. Baina, halaber, maite zituela Ama Birjinaren koloreak ere, Jeanne d'Arc-enak eta eskaut-enak ere; eta bera Euskal Herria deitzen den jende-multzokoa bazen, nork galarazi behar zion euskal ikurrina maitatzea. Erruki zituen bandera bakarrekoak, eta berak hiru maite zituela zuen aitortzen. Aitzolek horrelako sentimendurik ez dakit izan duen; idatzia behinik behin, nik dakidala, ez du utzi; eta idatzi balu, espainolizatza joko zuten.

Herriako orrietarik, Gure Herria eta gainerako aldizkariak ahaztu gabe, irakasle gisa eta gazteekin eta egindako lana ahaztu gabe, urte luzez hiru banderak zerbitzatu ditu; lehenik erlijioarena, gero Frantziaren bandera, eta Euskal Herriaren ikurrina. Erljioarena bizitzaren ikusmolde laikoaren aurka. Frantziarena zerbitzatu du, eskola librean alde, gurasoek haurrengana dituzten edo izan behar lituzketen eskubideen alde, eta herriko kontseilu eta eskualdeen eskubideen alde, eta baita ere bigarren mundu gerraren ondotik, frantsesak euren buruarengan galduxe zuten konfiantza berreskuratzearen alde. Euskal Herriarena berriz; batez ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan gaitzaz.

1956an, norbaitek gutun bat igorri zuen *Herria* astekariaren erredakziora galdetuz ea bazekiten zer nahi zuten. Dakizuen bezala Lafitte *Herriaren* haste-hastetik, 1944tik 1967 arte zuzendari izan zen. *Herriaren* arropostua hau izan zen Euskal *Herriaren* politikari zegokionez: *Bertzeak bertze gure ametsa da Eskual-Herriko zazpi probintziek, egun batez, bat egin dezaten. Bainan Eskual Herriaren <<bat-ze>> hori ez dugu ikusten auzo erresumetarik kanpo, are gutiago heiekin etsaigoan. <<Bat-ze>> hori nahi dugu Europa eta Eurafrika behin, handiago zerbait gero, izanen den erresuma baten barnean eta pean. Hortakotz gira hemen Europa eta Eurafrikaren alde eta heien lehenbailehen eraikitzeari atchikiak.*

Urte horretan bertan idatzi zuen Pazko aroan, *Eskual-Herriak noiz duke Bazko?* Kinka txarrean sumatzen zuen Euskal Herria, euskaldunak bakantzen eta sorlekuan arrotza sartzen “*ulia hilikirat bezain usu*”. “*Arrotza sartzen eta nausitzen*” zioen; “*sartu-eta eskualduntzen balitz, ez litake makurrik; baina harek gitu beretzen, iresten eta kaskointzen. Beha zonbat herritan ez zaizkun nunbaiko batzu jabetu meriaz eta bertze asko karguz!*”

Ez da harritzeko erdarak hiltzen baitauku eskuara, toki gehientsuenetan. Haurreri bereri erdarazko liburuak eta agerkariak emaiten diozkate irakurtzerat saka-saka; damurik ez baitiote deus ere eskuarazkorik eskaintzen kati-chima baizik, eta hau ere ez denetan.

Eskualdungoaren geroak heriotze baten itchura gehienak baditu”.

Gaitzari aurre egiteko hiru puntu aipatzen zituen: lehenik, euskaldunak sorlekuan atxikitzea, horretarako kondizioeak edo baldintzak sortuz, hots, lana, ofizio berriak euskaldunentzat, eta elkarren arteko laguntza. Bigarrenik, Euskaldun iraun nahia gogo-bihotzetan sartzea. Eta horretarako zioen, herriz herri ibili behar lirakekeela zerbait dakiten jaun eta andereak jakintza gai gehientsuenei buruz jendeak euskaraz argitzeke. “*Eskualdunak hola argituz, erna litazke; ez litazke ez uzkur, ez herabe, bethi bertzen lekaio eta uzkipitzer. Har lezakete zerbait badirelako sendimendua, eta herrian aski direla berak, egitekoen kudeatzeko, arrotzen ondotik ibili gabe*”. Eta azkenik, euskaldun orok bat egin beharra aldarrikatzen zuen, juduek egin zuten bezala galdutako lurra berreskuratzeko eta hildako mintzaira pizteko: *Delibera baginte mundu zabaleko eskualdun guziak, ttipi ala handi, batasun azkar baten egiterat Eskual-herriaren alde, hitz eta promes dautzuegu Euzkadik balukeela zonbait menderen bizi oraino. Batasun hori osa bagineza, ai orduan luke egiazki Eskual herriak Bazko!*”.

Egungo egunerako ere ez dira aholku txarrak, ez direnez!

Mintzaldi hau bururatu baino lehen, Clément Mathieu monsinorea aipatu nahi nuke. Saint-Pierre aipatu dugu, Aitzol aipatu dugu, Yves de la Brière aipatu dugu, eta Mathieu ere aipatu beharra da. Baionako Seminarioa utzi baino pare bat urte lehenago, teologiari zegokionez arazoak zituen ez zuen kon-

prenitzen ahal Jainkoak nolatan igorri zuen bere semea Jesus lurrera, eta galdez joan zitzaion Mathieu teologiako irakasle zuenari. Honek erran zion oso kritikoa zela, arrazoimenean baino ez zuela fidantziarik, eta bazuela halako gorroto edo herra bat gizarte guztiaren aldera, iraultzailea zela, eta bere idatzietan ez zela inoiz sentimendurik. Jendearengana bihurtzea, ikaskideez arduratzea aholkatu zion, bihotza irekitzea, eta Jainkoa hurko edo protsimoarenaganako amodioaren bidez atzematea. Lafitteri Mathieurekiko enkontruak aldaera gaitza ekarri zion, behiala Paulori Damaskoko gertakariak bezalatsu.

Lafittek, irakaskuntzan egindako lanaz bestalde, gazteekin eskaut mugimenduarekin bat eginik egindako lanaz bestalde, *Eskualherrizaleekin* eta *Begiraleak* eta *Menditarrak*-ekin egindakoaz landa, eta kultur lanez bestalde, lana egin du behartsuen alde: Tolosa ondoko amirun edo almidoi lantzaileen auzoan langile behartsuen ondoan bezala, Uztaritzeko *Lotan* familia desegina zuten gazteen aldean, ahal zien laguntza eskainiz. Eta bide horretan Mathieuk eragindako durduzaldiak garrantzia izan zuen hain segur. Hau Akize eta Landetako apezpiku izendatu zutenean, honen euskaltasuna nabarmentzeko artikulua idatzi zuen. Besteak beste adierazi zuen Ekonomia Politikoan oso euskaldun agertu zela. Deszentralizazio administratiboaz eta ondoriotasun legeei buruz zituen tesiak oso ongi ezkontzen zirela euskal Zuzenbide zaharrarekin. Ez zuen uste Mathieuk inoiz pentsatu zuenik euskal foruak aldezte; baina, oso pozgarri gertatzen bide zen erregionalista gazteentzat euren sentimenduak zuzenetsiak ikustea, nondik eta euren irakaslearen arrazoi hotzaren aldetik.

Hasierako kantura itzuliz, goizik egin zion zorigaiztoak bihotzean zarrapoa Lafitteri. Zazpi urtetan betikotz joan zitzaion negarrik gabeko loa. Beti eskas izan zuen oherakoan amaren musu beroa. Zenbait egunen buruan aitak umezurtz zuen utzi; geroztik Jainko Jaunari esker Saint-Pierrek, Mathieuk, Yves de la Brière jesuitak eta, zuten hazi beren seme gisa, eta bizitza guztian entseatu zen seme-alaba giristinoak hazten, munduan maiteen eta hurbilen zuen Euskal Herriko txoko maitetik, ahalegin bizian, gorago aipatu hiru amodiorekikoak egin nahiz: Frantzia katolikoaren alde, Euskal Herri giristinoaren alde, eta guztien gainetik Jainkoaren zerbitzuko gizadiaren alde.

LE PÈRE LAFITTE, DIRECTEUR DE CONSCIENCE

Raymond Saint-Jean s.j.

Il est des hommes qui ne devraient pas mourir ! Pierre Lafitte est de ce nombre. Certes, il est immortel comme tout être humain et en plus comme académicien ! Il l'est surtout dans le souvenir de ceux qui l'ont connu et aimé. Quant à moi, je n'ai jamais renoué avec un être aussi exceptionnel. Pour esquisser de lui un portrait du directeur de conscience, le plus simple est de partir de quelques CONSTATATIONS. Ces constatations invitent à chercher certaines EXPLICATIONS. Les explications ne sont convaincantes que si on atteint les FONDATIONS, le secret de l'être. Pas facile avec ce prêtre réservé et pudique, apparemment distant, à la bonne humeur permanente, qui sans doute ne s'est jamais pris au sérieux.

1. QUELQUES CONSTATATIONS

Entre 1940 et 1947 où je fréquentais le Petit Séminaire d'Ustaritz dont je garde un souvenir impérissable, avec sa spacieuse façade tournée vers la vallée de la Nive, l'abbé Lafitte s'égayait autour de la cinquantaine. Professeur de français et de basque en troisième, c'est à lui que je dois le goût du style littéraire, la passion pour la poésie. Il était capable de tenir en haleine au moins la partie de la classe la plus intéressée, en lisant intégralement, en plusieurs séances, le *Cinna* de Corneille, l'*Annonce faite à Marie* de Claudel. Il nous apprenait aussi des chansons comme "Aldapeko sagarraren adarraren punttan, punttaren punttan, xoria dago abeslari" ! Je ne les ai jamais oubliées et les fredonne souvent sous les lointains tropiques. Moyens d'accrochage précieux pour un père spirituel.

Lorsque la houle en classe devenait trop bruyante, il s'indignait et prononçait la sentence avec un accent mille fois imité : « Monsieur Untel et son voisin de gauche, vous me ferez quatre heures de coin (pause) chacun ! » Hilarité générale, vite réprimée. La sanction n'étant pas notée sur un carnet, nous savions qu'elle serait oubliée et que les délinquants s'en tireraient à bon compte. On devinait un cœur d'or qui devait se faire violence pour maintenir la discipline. Cette indulgence bonhomme exerce de l'attrait.

Il avait la réputation de ne pas être trop regardant dans la correction des copies. La légende raconte que lorsque le gros paquet des quarante grimoires échouait dans sa chambre, il déversait les copies sur le plancher, quand il avait un moment et les prenait au hasard, l'une à la suite de l'autre. C'était le classement ! Ce sont là sûrement des récits apocryphes. Ils révèlent tout de même un brin de vérité : Pierre Lafitte croyait à la valeur de chacun et ces classements scolaires ne l'intéressaient pas.

Bien qu'on ne sût pas alors que pendant son enfance il était chétif et malingre, traînant un petit air de "crevé", il avait une réputation confirmée de marcheur. Aumônier des scouts et des routiers, les promenades avec lui se transformaient en longues randonnées. Il arrivait harassé au bas de la colline. Les élèves déjà sur la cour attendaient son apparition et s'écriaient en chœur : « Tu arrives, Pierrot ? » — « Oui, oui, j'arrive et taisez-vous ! ». Avec l'accent inimitable et toujours imité. L'interpellation et la réponse le classaient unanimement dans la catégorie des braves types.

Lorsqu'il fut question pour moi de répondre à la vocation missionnaire, je trouvai en lui un précieux conseiller. Il me fit découvrir les Jésuites dont je n'avais aperçu la moindre silhouette. Il me fit lire *La vie du Père Léonce de Grandmaison* par le Père Lebreton et les *Ecrits spirituels* de celui qui composa la merveilleuse prière : « Sainte Marie, Mère de Dieu, gardez-moi un cœur d'enfant, pur et transparent comme une source... ». Il présenta aux philosophes le célèbre *Jésus-Christ* du Père Léonce. Initiations qui ont laissé des traces indélébiles.

On savourait ses prédications, quand c'était son tour à la chapelle, certain d'avance qu'elles seraient originales. Rien à voir avec l'éloquence majestueuse de Bossuet. Plutôt des récits qui se voulaient à la portée des jeunes et faisaient rire souvent beaucoup plus que pleurer. Il lui était impossible de parler cinq minutes sans provoquer le rire, à moins évidemment que le sujet fût sépulcral. Les saints humoristes comme Philippe de Néri, ami de Saint Ignace, étaient ses compagnons.

Il avait le don d'ouvrir des horizons, la capacité de répondre à n'importe quelle question, grâce à une érudition jamais prise en défaut. Les jeunes admiraient cette encyclopédie ambulante, l'un des premiers experts de la littérature basque, familier des plus importants auteurs français, qu'il savait faire goûter. Il écoutait avec un air sérieux et concentré, détendait l'atmosphère par quelque histoire drôle. Foncièrement gai, il prisait les récits pittoresques, avec quelques pincées d'affabulation. Rien n'était banal avec lui. Il aimait l'inattendu, le curieux, le burlesque.

1980an eman zuten Urdiñarben, *Iparragirre*, Etxahunen azken pastorala. Moda berriko pastoraletarik beraz. *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian idatzi artikulua batetan bere ikusmoldea ematen du. "Ikusi ditugun pastoraletan hoberenetarik, oso berria eta oso tradizionala (45)."

Hobetuz

Pastoralak gure literaturako adar bat dira. Zer balio aurkitzen zien alde horretarik? "Gehienetan pastorek ez dute literario garbitasun distiratsurik (46)". Beste noizbeit esplikatzen du pastoralen estiloa artifiziala dela, frantsesetik hartu hitzak hobesten dituztela, ustez eta horrek kategoria gehiago ematen diola (47).

Baina gauzak aldatu dira. Laudorioak egiten dituen *De Treville* pastoralaz zioen "Beharbada hitz frantses soberaxko erabili dituela erran dute (48)."

(41) *Gure Herria* 1922, 577 or.

(42) *Gure Herria* 1952, 157 or.

(43) *BMB* 1964, 85. or.

(44) *BMB* 1964, 85 or.

(45) *BMB* 1980, 213 or.

(46) *SSLA* 1976, 534 or.

(47) *BMB* 1964, 80 or.

(48) *Herria* 1966, VIII;11

Santa Garaziz aldiz idatzia zuen: “Xiberotar bat gain gainerik landua, oso interesantea literatura, linguistika eta etnologia aldetik (49).”

Iparragirrez, ikusi dituenen hoberenetarik dela. Jokolariak, ongi jauntziak eta ederrak. Mende laurden bat lehenago, Etxahun Barkoxerenzat egin zen bezela, Iparragirren kantuak ematea oso egokia zela. Bai Bedaxagar “sujetaren” abotsa, bai koroaren kalitate handia azpimarratzen ditu (50).

Hérellek baitzioen ainitz eliza kantu bazela (latinez) eta oso guti profano, gaur egun, eliza kantuak ja ja desagertuak dira eta badirelarik euskaraz ematen dituzte. Vatikanoko kontzilioak izan du bere eragina pastoraletan ere (51)!

Hiruetanhogoi urtez ikusi dituen pastoraletan izan da aldaketa garantzitsu bat: emaztek emazteak egitea eta gizonak gizonak. Hura hoin feminista agertua “*Aintzina*” ren garaietan eta hiru lerro baizik ez du horretaz gehiagoko komentariorik gabe: *Berritasun nabariena, emazteen papela emaztek egiten dutela eta ez gizon trabestituak, nahiz bi neskek parte hartu duten satan dantza, dantzariz jauntzirik* (52). Ez ote da laburxko Satanetaz hoinbeste idatzi duen feministarentzat? Gainera, ez zen lehen aldia emazteak ari zirela: Parisko Xiberotarrek eman bi pastoraletan, emaztek zuten emazten papela egiten: *Matalas* (1964) eta *Etxahun Koblakari* (1967) (53).

Jean Louis Barrau famatuaren ikasle izanik, 30 urte hartan bere ofizioz jokolari zen Paristar batek erran zion xoraturik eta mututurik egona zela Iparragirre pastoral horretan: “Gehienik hunki nauena: jokolariek agertzen duten ‘sinestea’, aingeru eta debruen presentzia, itsaso ibilaldiak, gudukak, Zumalakarregiren ehorzketak, ardi agertzea tranpa gainean, eta bereziki nola txalotzen duten entzuleek, edo berdin txistukatzen, bai eta kantatzen. Herri antzerkiaren bila gabiltza. Bainan hor daukagu (54)!”

* * *

Ezagutzen dugun Lafitteren funtsezko lehen artikulua, pastoraletaz da. Hil arte interesatu zaie pastoralei. Eta hurbiletik. Ikusi ditu eta bere kritikak egin, beren on gaitzak aipatuz. Ez liteke harritzeko gaur egun pastoralak izan dituen aldaketak, parte bederen, Piarres Lafitteri zor balizkio, aldaketa horietan parte handi bat aspalditik eta behin baino gehiagotan proposatua baitzuen.

Eta hasieran hirugarren bide bat aipatu bazuen, laster Pastoraletan ikusi zuen gero gure antzerkiaren geroa. Georges Herelle hiltzearekin, idatzi zuen:

(49) *SSLA* 1976, 534 or.

(50) *BMB*, 1980, 213-214 or.

(51) *Gure Herria* 1922, 200. or.

(52) *BMB* 1980, 213 or.

(53) *La Pastorale, Lauburu* 1987, 102 or.

(54) *BMB* 1980, 214 or.

Euskal Berpizkunde batetaz mintzo delarik, gure antzerkia berritzeko, zer gatik ez har oinarritzat Xiberoko tradizioa, gure burua galtzeko partez bereizitasun guti daukaten kopietan (55).

Zer gatik ote liteke horrenbeste interesatu pastoralei, Manex hori? Zer aurkitzen zion bada hoin interesgarririk beti huts eta estakuruak azpimarratzen zizkiolarik? Berezia da. Mendeak dauzkan zeremonia bat bere aspalditik finkatutako errito ezin hunkiekin. Hots erlikia bat eta erlikia bat ez dela gaztetzen (56).

Oharra: Frantsesezko artikuluentzat, guhaurek egin dugu itzulpena euskarara.

BIBLIOGRAFIA

Piarres Lafitte:

- Pastoralak. *Gure Herria*, 1922/574-578.
- Egiazko argia, *Gure Herria* 1927/114-113, 302-309, 494-503.
- Antzerti, 14-15.
- Georges Hérelle. *Gure Herria*, 1935/512-514.
- L'auteur de 'Maitena' est mort. *Gure Herria* 1938/118-120.
- Sarea, Norvègeko kantore xahar bat P. Ithurraldek eskuaraz antolatua ikhusagarri gisa. *Gure Herria* 1950/4-8.
- Arroltzeak. *Gure Herria*. 1951/18-21.
- A propos d'une pastorale: *Jeanne d'Arc*. *Gure Herria* 1952. 155-158 o.
- Orratza. *Gure Herria* 1955/97-115.
- *Santxo Azkarra*. *Herria*, 1963/VIII, 15+22.
- Un essai de pastorale labourdine: *Orreaga*. *Bulletin du Musée Basque* 1964. 76-86.
- Zer pentsatzen dugun ondarreko pastoralaz. *Herria* 1966/VIII.11.1.
- Mauleko pastoralaz. Chiquito de Cambo, gauza eder bat, *Herria*, 1967/VIII.24.3.
- Deux pastorales souletines en 1976. *Société des Sciences, Lettres et Arts*. 1976/533-539.
- Junes Casenave. *Santa Garazi* pastoralala. *Jakin* 1976. Arantzazu. Piarres Lafitte Aintzin solasa (7-18).

(55) *Gure Herria* 1935, 513-514

(56) *SSLA* 1976, 538 or.

- La pastorale *Iparagirre* (Impressions d'un spectateur) *Bulletin du Musée Basque* 1980. 211-214.

Georges Hérelle:

- Les pastorales basques. Georges Hérelle. *Gure Herria* 1921/201.208-308.317.
- La musique et la danse au théâtre basque. *Gure Herria* 1922/190.203 + 280.292.
- Arnaud Agugaray: Pastorales de 1951 à 1980. 93-104 or. In "La Pastorale", *Lauburu*, Baiona 1987.

ENBATIARREN ARTIKULUAK *HERRIA* ASTEKARIAN 1962-1968

Xipri Arbelbide

Gerla aintzin jadanik abertzale izana zen Piarres Lafitte: *AINTZINA* hila-betekaria sortu zuen, *ESKUALDUNA* et beste kasetetan baino askatasun gehi-
go izanen zuelako, nahi zuena idazteko, bereziki abertzalegoari zoakionaz.
Ikusi nahi izan dugu nola agertu duen bere abertzaletasuna, berea zeukan *HE-
RRIA* astekarian, *AINTZINA*ren giroaz beste batetan, *ENBATA* sortu eta lehen
urteetan. 1962tik 1968rat egin dugu gure ikerketa.

Lafittek berak 105 artikulua idatzi ditu 7 urte horietan. Gehienak liburu
berriak aipatzeko bai eta literatura edo eliza gaiak. Behin baizik ez du politi-
ka hunki, ez bada besten artikuluetaz egin ohar labur zenbeit.

1965an, Bozken ondotik prefeta aldatu zuten, bai eta Kontseilu Nagusiko
lehendakaria. Bi hauen kritika egin zuen *Aldairak Pauen* artikuluan. Eta arti-
kuluaren itzulpena Oberñara igorria zuten prefetari helarazi norbeitek! Uste izan
behar da *HERRIAK* bere pizñoa bazuela, zeren eta delako prefetak errepostua
egin zion! Hiru artikulua izenpetu zituen Lafittek berak karia hortara.

Bestek idatzi artikulua ikertu ditugu. Enbataren ikusmoldeak zabaltzen
edo krikatzen dituzten 37 artikulua aurkitu ditugu 1962an, 59 1963an, 113
1965an, 110 1966an, 112 1967an, 112 1968an, 144 1968an. 700 bat artikulua
orotara, gehienak frango luzeak. Ez ditugu kondutan hartu Etienne Salaberry-k
aste oroz idazten zituen bi artikulua. Ez eta, lehenagotik Mariano Izetak Baz-
tandik igorri berriak.

1968an gelditu gira, urte hortan gelditu baitzen Enbata zenbeit hilabetez.
7 urte horietan ikusten da, *HERRIAZ* baliatu zirela Enbatatiarrak, beren ideien
zabaltzeko... euskara zekiten ber. Jakinez *ENBATA* hilabetean behin agertzen
zela, erran daiteke, kasik kaseta horrek bezenbat hedatu dituela *HERRIAK*
abertzaleen ikusmoldeak, diferentzia haundi batekin: abertzale munduko mili-
tanteak hunkitzen zituelarik *ENBATAK*, *HERRIA*ren irakurleekin abertzaleen
mundua baino eremu zabalagora hedatzen zen, lauzbost aldiz gehiago ale bo-
tatzen baitzuen *HERRIAK*.

*HERRIA*ren beste abantaila, kontrako ikusmoldeak ere ikusten direla, alde
eta kontrakoaren arteko eztabada andana bat agertu baitu. *HERRIA*tik kanpo ez

dakit beste nihon irakur daitezkeen kontrakoen ikusmoldeak. Hori guretzat gaur. Bainan Enbatakoentzat ere abantaila zen, pilota norat bota ikusten baitzuten.

Enbata haizea ez da hala sendi *HERRIA* astekarian 1962ko uztailleko 5a arte, Lafittek xixtaño bat idatzi zuen arte, "Beleak Xoxoari beltza" titulu pean:

Enbata hilabetekari erneak bere zazpi egin ahalak egiten ditu Eskualdunen bihotzetan sortherriaren karra sustatu beharrez. Aitortuko dugu asko pondutan haren xedeak gure gureak direla biziki aspaldi danik.

Bainan gauza batek xifritzen gaitu: "Enbata" noiz nahi pleñi da bertzeak ez direla eskuaraz mintzatzen beren solas eta lerro guzietan.

Pollitena da frantsesez egiten baitituzte beren erasiak. Ez dea hala Elizalde? Ez dea hala Jean Irigaray?

Zer zaitzue, ala eskuara ez aski, filosofia hortara heltzeko?

Othoi adixkideak, emaguzue ezten ukaldi gutiago eta eskuara gehixago (1).

Kurioski, 7 urtez izan diren eztabadetan, nehork ez die gehiago gauza hori leporatuko Enbatatiarrei, beren kasetak beti segitzen zuelarik, euskarari toki sinboliko bat baizik ez ematen. 40 urteren buruan hein berean dagoea aitortu behar da eta Euskaltzainek ere frantsesez idatzi behar dutela kaseta horretan.

Lafitten inbido horri idoki egin zioten. Ez, *ENBATA*n euskaraz idatziz, hango intelektualak ez baitziren aski zohi ulertzeko mintzaira bat salbatzen dela mintzaira hori erabiliz eta ez mintzaira hori erdaraz aipatuz, bainan *HERRIA*n idatziz. Erran daiteke, *HERRIA*ren orrialdeak nasaiki ideki zizkiela Lafittek.

Lafitten artikulutxo hortatik hamabost egunen buruan, bi artikuluz izan zituen *HERRIA*k. Bat, bi zenbakitan agertuko zena, Jean Louis Davantek igorria: "Eskual Herriaren geroaz gazte batzuen xedeak" (2). Bestea Manex Eyheramendyk izenpetua, 5 zatitan agertuko zena: "Eskual Herriaren eritasuna" (3). Bost zati: ikus dezakezuen bezala ez zen laburra. Biek *ENBATA*ren ideia berriak zituzten: Euskal Herriaren batasuna eta euskara. Bainan euskaraz aldi honetan. Eyheramendik bururatzen zuen lehenbailehen lanari lotzerat gomitatuz: "Politikak egin gaitu Frantses alde batetik, Español bestetik. Politikak behar gaitu Euskaldun egin, edo hobeki, berregin. Bainan ez dugu deus igurikatu behar gobernamentutik. Nahi balinbadugu Eskual Herria salbatu, bere jendaiarekin, eta mintzairarekin, behar dugu guhaurek egin." (4) Hitz gutiz denak erranak dira: hizkuntza eta lurraldetasuna.

(1) Beleak xoxoari beltza. P.L. 1962.VII.19

(2) Eskual Herriaren geroaz gazte batzuen xedeak. JLD, 1962.VII.19, 26

(3) Eskual Herriaren eritasuna. Manex Eyheramendy. 1962.VII.19, Eskualdun bat Eskualduner. Manex Eyheramendy. 1962.VIII.2, 9, 16, 30, IX.13

(4) Eskualdun bat Eskualduner. ME, 1962.VIII.2, 9, 16, 30, IX.13

Nor ziren idazleak? Ez da erraz jakitea, gehienek izengoiti batekin izenpetzen baitzuten: radiolari, Lekukoa, Han zen bat, Ikusle, Laguna, Adixkide, Xittoa, Bidekari, Karkana, Biotzkide, Maite Egia, eta honi erantzuna “Ez maite gezurra”, zenbeit baizik ez aipatzeko. Eta zenbat “Abertzale”?

Hainbestetaraino non, Xan Irigarayek artikulu bat idatzi baitzuen: “Nor dira BX, MI, eta bertze”.

Bainan bada izen ezagun frango ere. Jakes Abeberri, Jacques Ainciart, Martxalin eta Xalbat Arbelbide, Piarres Arradoy edo Narbaitz, Paul Baraciart, Gratien Bidart, Maurice Borthayrou edo Karkana, Ramuntxo Camblong, Jean Pierre Curutchet, Jean Louis Davant, André Diharce, Manex Eyheramendi, J. Erramouspe, Eñaut Etxamendi, Jean Pierre Etxeverri apezta, Luzien Etxezaharreta, Pantxo Etxezaharreta, Joanes Goyhnetche, Arño Hegiaphal, Roger Idiart, Raymond Idieder, Alexis Inchauspe, Michel Inchauspe, Jean Irigaray, Arnaud Iroume, Michel Itzaina, J.P. Lafaurie, Daniel Landart, Gexan Lantziri, JB Larremendy, FB Larzabal, Piarres Larzabal, Mixel Lekuona, Jean Louis Maitia, JP Mendiboure, Beñat Mendisco, Patxi Noblia, René Ospital, B. Oxandabarratz, Manex Pagola, Pitrau, Louis Saint Esteben, Piarres Xarriton. Orotara 50 hurbil, hiruetarik bi abertzaleak; hiruetarik bat, ez zirenak Enbataren aldekoak, beraz.

Horien artean izan eztabada zenbeit nahi genituzke aipatu orai.

Hego aldeko berriak

700 artikulu horiek sailkatzen baditugu oartzten gara *HERRIAK* berak agerrarazten zuen Hegoaldeko berrien saila dela nagusi, “Mugaz bestaldeko berri” titulupean lehenik. *Hego-alde* deitu zen, Hiriart Urruty apezta *HERRIAN* sartu zenetik: orotara 150 bat aldiz agertu da sail hori.

1965 urtarrileko 21ean agertu zen lehen aldikotz. Hastapen batean, noizean behinka baizik ez da ikusten. Gero, kasik aste guziez. *ENBATA* sortu eta lau urte eta erdiren buruan senditu du Lafittek gai horrek bere irakurle zati bat bederen interesa zezakeela.

Ez dut dudatzen Enbata mugimenduaren sortzearen ondorio bat izan dela. Gogoratzen naiz, gazte nintzelarik, *EUSKO DEIA* hilabetekaritik hartu berri labur batzu, gehienak ekonomikoak, igorri nizkiola Herriari behin baino gehiagotan. Bihirik ez zen agertu.

Hiriart-Urruty sartu zenetik, saila hor da aste oroz bospasei berri laburrekin. Gai guziak hunkiak dira: euskara, euskal bestak, ekonomia, Arrasateko kooperatibak, sindikatak, Napartar nexkatxak sasoi egiten Iparraldean, lantegi berriak Gipuzkoan frantses diruarekin, ixtudianteak... Baina antifranquismoak eta errepresioak daukate tokirik handiena, eta urrundik. Soberaxko

Hegoaldeko baten ustez: *Iduri luke egoaldeko Eskualherri huntan, eskualdun-go guzia, polizekiko borroka zozo hortan dela, aizkora apustua edo arri altxatze dema bat baliz bezela* (5). Gaude ez ote zuen Larzabalek segurtatzen sail hori...

Eliza barneko kataska minberak ere aipu dira: Jesuiten buruzagiak urrundu apez bat. Bilboko apezpikuak Francoren alde eskatu otoiiza. Gipuzkoako seminario handitik, apezpikuak, lehenik 5 irakasleren eta gero apezgai guzien kanporatzea. Bizkaiko 47 apezek apezpikutegia okupatzea, gero 63k seminarioa. Gurpide beren apezpikuaren ixiltasuna salatzeke, ehun apezpez goitik Nuntzioari apezpiku hori alda zezan eskatzea...

Gai horiek azpimarratzen ditut zeren eta *HERRIAk* deus ez zuen erran, hemen, Baionako seminariotik lau apezgaien kanporatzeaz, horietarik bi sudiakre zirelarik. Ez eta, kanporatze horrek ekarri zituen Bernard Housset eta Andre Hiriart Urruty irakasleen demisioetaz. (Housset orain, Montaubaneko apezpiku da Hiriart-Urruty Parisera joan zen eta han hil duela zenbeit urte).

Christiane Etxaluzen gelditzeaz eta Piarres Xarritonon kolegiotik joaitez gauza guti: Hazparneko berriketariak aipatu zituen behi lasterrak, abere primak, garañoak, San Markeko errogazionea..., baina ez abere portu ondoko kolegioan egun beretan gertatu zena.

Mugaz bestaldeko berrietan aipu da Montserrateko abadearen kasatzea, baina ez, hemen, Hazparneko kolegioko zuzendariaren joaitea.

Gauza guti erraten duen artikulu labur bat aurkitu dugu Etxaluzen gelditzeaz. Xarritonon joaiteaz, "adixkide bat" izenpetu lerro bitxi batzu: *Holako helgaitzek gizona higaturik ere ez da mirakuilu, bertze kontrakoak bertzalde, denak batean: ama eta aita urte berean galdu, hoinbertze eskolier eta eskolemaileekin betiko buruhausteak. Ez da ez harritzeko, Charriton jauna, jende guzia ohartu bada ere zure itxurek etzutela argitzen zuen familiako azken okasionean* (6).

HERRIA baizik irakurtu ez zuenak usteko zuen Xarriton pausatzeraz joan zela Hazparneko kolegiotik!

Zergatik ez zen Iparraldeko eliza Hegoaldekoa bezela aipatua? Ez luke iduri Lafittek zentzura egin duenik zeren eta 1968 ondarrean, Piarres Xarritonon lau artikulu luze agertu zituen "Eliza eta Euskal Herria" (7) titulupean, ahoan bilorik gabe mintzo baitzen Piarres, erbestetik itzuli eta, beti egiten ohi duen bezela. Nago, *HERRIAk* ez ote zituen igorri artikuluak agertzen. Nehork ez zuelarik deus igortzen gertakari batetaz, gertakari hori ez zen aipatua. Nehork ez zukeen artikulurik igorri gorago aipatu gai horietaz.

(5) Mugaz bestaldean ez ote da beste berririk. Bidasotar batek. 1962.XII.26

(6) Charriton apezaren joaitea. Adiskidea. 1965.IV.15

(7) Eliza eta Euskal Herria, PC 1968..XI.7, 14, 28, XII.2

Hego Aldeko berri horietara itzultzeko, lau urtez, 150 bat aldiz agertu da sail hori. Xortaka xortaka, jendea ohartu da Hegoaldean bazela Euskal Herri bat, ordu arte gehienek ez zekitena. Eta hori bera zerbeit zen, ikusiz zertan ginen garai haietan.

Euskarazko irratia

Ondotik artikulu gehien eman duen gaia da: euskarazko emankizunak irratian. Berrogoi eta hamar bat artikulu kondatu ditugu. Ainitz da urtean hila bete eta erdi baizik ez zutela irauten oroitzen bagara. Urtean barna ez zen irratirik hemen, Euskal Herrian bizi ziren 250.000 jendeentzat, baina udan, aste bat edo birentzat etortzen ziren zenbeit dotzena mila Paristarrentzat sortzen zuten "radio Côte Basque".

Donibane Lohizunen irrati saltzen ari zen Pantxo Etxezaharretak, mundu hori ezagutzen zuen, Larrun gainean antenak finkatzen lagundu baitzituen. *Jaun hunek (Etxezaharretak) zituen muntatu duela 6 urte, udan, eskuaraz zabalitzen diren emankizunak.*

Paristarrek erran zioten arazoak bazituztela oren guziak betetzeko eta harek zien proposatu zerbeit egitea euskaraz. Kitorik bistan dena. Horrela ziren 5 minuta izan goiz guziez euskaraz, oren bat ostegunetan, oren erdi bat igandeko goizetan, gehi igandeko meza. Emankizun horiek ez dizkiogu zor Pariseren esku zabalari. Bainan zilo bat tapatzeko bazela ohartu ziren abertzale bartzuri eta haiek egin lanari.

Urte oroz aipu da emankizun hori *HERRIAN*, edo eginen dela jakin arazteko, edo batere eginen ez delako beldurra aipatzeko.

Igandeko meza euskaraz

Artikulu gehienak, igandeko mezaz izan ziren kalapitak. Etxezaharretak garbiki idatzi zuen:

Orai beretik jakin arazten dugu ez dutela Radioko buruzagiek eman den mendreneko ordrerik "gure" radio-ko mezetan predikuak erdaraz egiteko.

Predikua frantsesez izan zen batez, arduradun batek ohartarazi zuen goiz hartan 8 meza bazirela frantsesez irratian.

Lehenago jadanik beste batek idatzia zuen:

Saminki otoizten ditugu radioan parte hartuko duten guziak

1 - Ez dezaten radioan hitzik jali, eskuaraz baizik, eskuarari emanak diren tenoretan.

2 - Ez dezaten nehoi baimenik eman erdaraz mintzatzeko, igandetako elizkizunak radioaz zabalduak direlarik bere elizatik. Ez da radioan erdarazko meza eskasik, erdara nahi dutenentzat.

Agian ez du eskuarak Judasik aurkituko Jesusen apairua errezebitzean (8).

Baina, boteretro bat eskutan daukaten pundutik, Aita Sainduaren boteretik zatitxo bat daukatela senditzen duten apezak badira, eta Aita Sainduaren agintzatik zatitxo hori duten ber, haren infallibilitate famatu haren zati berdinez beteak direlako kontzientzia daukate. Euskarazko mezak izateko erri ttintila mugitu ez zuten horiek ziren frantsesez ari, jaun eta jabe izan balira bezala, Euskaldun batzuk, euskaraz izanen zelako ardietsia zuten meza horretan. Eta horrek ekarri du irratiaz idatzi artikuluen hedadura.

Egia errateko batere ez nau harritzen horrek. Euskal Irratiak sortu genietelarik, osoki euskaraz egin genituen. Beti izan ditugu arazoak mezarekin. Beren etxean izan balira bezala sartzen zitzaizkigun apez batzu eta nahi zutena egiten. Erranen dautzuet nola dugun azkenean ardietsi meza horiek osoki euskaraz izan zitezten. *GURE IRRATI*ako Biltzar Nagusi batek ordezkariak igorri zituen apezpikutegira, meza osoki euskaraz izan zedin eskatzeko. Debaldetan. Azkenean, laneko nintzen bi igandez, apeza frantsesez hasi zelarik predikuan, moztu nuen erranez zergatik, eta musika pasatu predikua bururatu arte. Bi aldiz egin nuen hori eta geroztik ez dut uste frantsesik izan den. Bada kukuaren politika egiten ohitua den apez kasta bat: mundu osoa ez ote da Jaun Goikoarena... ohandzeak barne. Jaun Goikoaren gizon izateak ez ote die arroltzeak edozein ohandzetan erruteko eskubide osoa ematen?

Entzuleetan ere izan dira frantsesaren aldekoak. Eta Donamartiriko JBL batek esplikatzen zuen, predikua frantsesez egin behar zela, udatiarrak mezan zirelaketoz.

Predikua erdaraz? Guziek dakiguna, sasoin huntan hoinbertze sasoinlari, menturaz Eskualdun bezenbat joaiten dela meza horietarat; (...) Ez balitz erdara phuxka hori emaiten ahalko jende aldea ethor ote leite meza horietarat? Ez dut uste. (...) Ez ote dugu kondu eman behar erresumako 200entzat batto girela?

Azken hitz: utz ditzagun tipikeria horiek, har dezagun konfidantza buruzagietan, izan dituen aphez edo bertze, bat egin dezagun. Orduan bai, orduan bakarrik dukegu esperantza, Eskual Radioa adituko dugula (9).

(8) Euskaraz radiotik. 1965.VII.1

(9) Euskal radioaz. JBL. 1967.VII.31

JBLEk ez zekiena, euskal emankizunak baldin baginituen ez zela buruzagiei esker.

Baigorri Pilotarien Biltzarraren kariatara, predikua frantsesez izan baitzen euskarazko mezan, Larzabalek idatzi zuen “kostatarra” izenpean; Lafittek eman zion errepostua, Pilotarien biltzarrako predikua beti frantsesez egin zela (10). Hain ginen alienatuak non, ez baitzizaion gogora jin, irratiko meza euskaraz zenaz gain, Pilotarien Biltzarrari zela menturaz lege horri plegatzea eta ez kontrarioa.

EGIA-ko ixtudienteen ikerketak

Bigarren kalapita izan zen EGIA elkarteko ixtudientek urte oroz egiten zuten ikerketaz. Urte hartan, 1965ean, Hazparnen ziren. Irratitik eman zuten beren lanen berri. Ixtudiante batek galdetu zuen. “Hazparnen familia bat hazi behar duen gizon batek, Kongoko langile batek baino gutiago irabaztea, xuxen dea?” (11) Kongoko langile bat! Mukuzu horien kopeta!

Idieder erretorak eta Andrein auzapezak bixi bixia telefonatu zuten irratirat... nahiz ez zuten emankizuna entzuna. 9 lantegitako nagusiek 4,5 milioi zentima damu domaia eskatu. Auzitara jaukitu zuten irratiazen zuzendaria. Eta euskarazko emankizunak geldo arazi Parisek!

Beren abokatak nagusiei konpreniarazirik ez zutela irabazteko xantza izpirik, plenta kendu zuten azkenean eta emankizunak berriz hasi ziren.

8 artikulua idatzi dituzte gertakari horretaz alde bat edo bestekoek.

Christiane Etxaluz

Andere honen gelditzea guti aipatua izan bazen, gero, presondegitik eta libratzera, manifestaldi, bisita eta auzitan gandi pasatuz, artikulua andana ederra izan da. Daniel Landart eta Jean Pierre Curutcheten arteko eztabada iduritu zaiku aberatsena, Curutchetek goraki erraiten baitu jende ainitzek ixilik pentsatzen zutena eta hori baita *HERRIA*ren interesetarik bat, kontrakoen ikusmoldea agertzea.

Daniel Landart, “Euskaldun Gazteria”, elizako gazte mugimenduaren ize-nean, *HERRIA* kasetako “Gazten oihartzuna” sailaren arduraduna zen. Sail horretan artikulua luze bat idatzi zuen, Euskaldun girixtinoek axola guti zutela preso zen Etxaluzez. “*Aski zian geldirik egoitea*” erran eta Pilatusek bezela

(10) Baigorriko predikuaz. Kostatarra. 1962.VIII.16

(11) Hazparneko nausi batzuek, eskual radioa auzitan emaiten dute. Argitzaila 1965.VII.29

eskuak garbi (12)". Danielek ebanjelioko lerro hau oroitarazten zuen: "Preso nintzen eta ez zirezte ene ikustera jin".

Curutchetek erantzun zion Christiane ez zela preso, bainan komentu batetan (Jendek entzuna zuten serorekin zela eta mezan ibiltzen zela. Ez zitzaien gogoan pasatu ere serorak eta mezak izan zitezkeenik presondegian). Pekatuko zuela bestek egin hutsa eta beste horiek han utziko zutela. Enbatatiarrek, mugituz, ixilean zerbeitetara heltzeko xantza zutenak trabatzen zituztela.

Aipatzen zuen Hendaian izan manifestaldi bat, jendek interpretatu zuten bezela: "*Erran behar dautzut manera hitsak erabili dituztela Enbatarrek. Nehor ez da ikusten polizari lurrean etzaten; gizonak bat da; baina emaztekiak? Zubi baten gainen gizonekin nahas etzanik emaztekiak, hori duzue balentria? Gerlaz kanpo nor eta nun ikusten da holakorik?* (13) (Ohartu "gerla" hitz horri. Gero ere agertuko da.)

Haran jauna ari oihuka "tira potreta"! Hori balinbadu Eskual Herrirat bisitaz heldu direner eskaintzeko "carte postala"! Ohidurak atxiki nahi dituzuela? Ez nuen uste mota hori ere bazela!

Ez estona, Eskual Herriari kalte egiten duzuela erraiten badute. (...) Oraino ez dugu ikusi behin ere Enbatarrik xutik ezartzen, edo pertsulari egun bat, edo kantari egun bat edo eskual dantzen erakusteko toki bat. Afixetan dirua igor orde, ene ustez, hobe litake; obrak, afixak baino gehiago ematen du ene gustuko".

Hots! Enbatatiarrak, bazter nahasle batzu ziren, arrabots ainitz baizen gauza baikor guti egiten zutenak. Aldiz, Euskal Herriari kalte egiteaz akusatuak ziren.

Curutchetek hunki pundu konkretuei, errepostu luzeago batetan oraino Danielek oroitarazi zion, Jakes Abeberri Oldarra dantzari taldearen buruzagia zela. Haranek zuela sortu 'Le Club du Disque Basque', Mixel Burukoa zela "Ohidurak", "Ibaia" eta "Euskal Idazkaritzaren" lehendakaria. Hiruak ENBATAREN sortzailetarik (14).

Pundu bertsuak hunki behar zituen Jean Louis Davantek ere beste artikulatu batetan (15).

Oroitarazten ahalko zitzaioketen ere Curutcheti, alde guzietarik ateratzen ziren erran merranak entzutearen bortxaz, ahantzi zitzaiola Telesforo de Monzon, ENBATAREN beste sortzailetarik batekin ikasia zuela berak antzerki jotkatzen, Heletara jiten baitzen urte oroz, aste oroz, Heletarrak antzerkia ema-

(12) Gazte bat preso. D. Landart. 1965.IX.23

(13) Gazte bat preso. D. Landarti errepostu? JP Curutchet. 1965.X.14

(14) Neskato bat preso. D. Landart. 1965.X.28

(15) Ez mintza jakin gabe. JLD. 1965.X.28

ten formatzeko. Eta hain zuzen HERRIAren zenbaki berean bertsoen bidez ematen zizkion Monzoni bere doluminak, ama galdu zuelakotz (16).

Curutcheten artikuluetan agertzen ziren, airean zabiltzan erran merranak ENBATAren kontra eta HERRIAri esker dira plazara atera argi eta garbi.

Gerla

Curutchetek atera ditu "herra" eta "gerla" hitzak. Bai herra bazen ENBATAren kontra eta gerla solasak ere. Beste bi Heletarren artean izan eztabandan agertzen da hori ondoko urtean.

HERRIAK aipatu zituen beren garaian, Hazparne eta Donapaleun ENBATAk egin zituen bi biltzar publiko, ostatuak bete baitzituzten eta oso ongi iragan baitziren. Hirugarren bat programatu zuten, Heletan. Xalbat ene anaiak, herriko etxeko gela eskatu zion auzpezari eta honek eza eman, nahiz komunixteri idekitzen zien, boz kanpainetan eskatzen zioten aldi oroz, komunistak ez zituelarik begiko zikina baino gehiago jasaiten ahal. ENBATA oraino gutiago beraz.

Bilkura ostatu batetan egin behar zen meztatik landa, baina ekaitza gatik ez zen egin. Ondoko astean, "Baketiarrak" izenpetzen zuen batek idazten zuen HERRIArean: "*Xantza izan duzue, ezen denbora ederra izan balitz izaten ahalko zen haize zirimolaren orde, beste ziliporta zonbait, ez baitzen pollitago izanen.*" (17) Bezperan arroltzeak botaiak izanak ziren murru baten kontra, jela bat ateraia. Artikulu horren ondoan beste bat idazteko beharra senditu zuen Lafittek: "*Bakebide ala gerlabide* (18)?"

Ondoko astean Xalbatak galdea egin zion: "*Baketiarrak sinatzen duzu. Nor da mehatxuka ari izan (fuxinekin jin beharrak, arroltzeak prest) zure kidekoak ala gu* (19)?"

Delako baketiarrak azken artikulua bat bururatzen zuen erranez: "*Ala gerlak kasatu gizon batzuekin hasia duzelakotz mogimendu hori, uste duzue gerlarekin bitoria irabaztia?*" (20) Horra berriz gerla hitza.

1936ko gerlatik landa, hegoaldetik hona ihesi etorriak zituen gogoan. Han bezala hemen ere gerla piztuko zutelako beldurra sortu zuten ENBATAren kontra.

(16) De Monzon jaunari bertsuak. JPC. 1968.X.28

(17) Heletako Enbataren biltzarriaz bi solas. Baketiarrak. 1966.II.24

(18) Bakebide ala gerlabide. P.L. 1966.III.5

(19) Baketiarrari errepostu. S. Arbelbide. 1966.III.5

(20) Baketiarrak errepostu. J. Ainciart. 1966.III.17

JB Larramendy Donamartiriko berriketariak ere horrelako zerbeit senditzen zuen, abertzaleetaz zioenean: *Badute beren artean lanik aski, gerla go-rria ari daukute muntatzen zioen azken astekariak* (21).

Alabaina, zenbeit aste lehenago “abertzale” izenpetzen zutenetarik batek erraten zion Louis St Estebeni: *Eskual Herriaren alde odol ixurtzea daukazu ez bearrezkoa edo egin ez nezakena (...) Ez ote dute beren odola ixuri eta oraino ixurtzen anitz Eskualdunek beren aberriarentzat? Ez ote duzu katiximan ikasi, ala bearrean odola ere bear dela ixuri aberriarentzat* (22)?

Baionako katiximan hona zer ikasia dugun ttipian:

Baduzu eginbiderik herriaren alderat?

Bai, behar ditut errespetatu herriko buruzagiak, lege zuzeneri obeditu eta artoski bete Herriaren alderako eginbideak.

Herriaren alderako_eginbide handienak dira: zerga pagatzea, herriaren zaintzea beharrez odolaren gostuz, bozaren ematea kontzientziaz (23).

Hori katiximan sartu zutenek ez zuten gogoan pasatu ere, haiek Frantzia gogoan idatzia, egun batez Euskal Herriari lotuko ziotela beste batzuk.

Ez uste izan gerlaren beldur hori, laborari zozo zenbeiten ustekeria zenik. Gouyon apezpikuak bildu zituen, Akizen ziren apezgai Euskaldunak eta erran zien: *“Badakit politika sailean gizon batzu Euskal Herria jazarri nahiz ari direla... So egizue, Algeriako nahasmenduetarik ateratzen ari gira doi doia eta ez dugu Euskal Herrian, beste hoinbertzeren beharrik* (24).”

1968an, Matalas antzerkia eman zutelarik Baionan ikaragarriko arrakastarekin, JP Etxeverri apezak, agertu zuen hiru zatitan, *HERRIA*ko bi orrialde oso betetzen zituen artikulu luze bat (25). (Orduko bi orrialdeek oraiko lau eginen zuten!). Eztabada hauxe zen: *“Haizu da apez batentzat gerla bidea hartzea?”* Matalas gogoan, ezezko errepostua eman zuen. Artikulu labur batetan oroit arazi nion, apezek, bestek bezela egina zituztela 14-18ko gerla, 39-45koa bai eta, zuzen kontrakoa zen Algeriakoa (26). Eztabada hortan gelditu zen.

St Esteben eta “abertzalearen” arteko eztabada hartan Davantek idatzi zuen: *“Enbatak beti erran izan du, basakeria guziak bazter utzirik, gure saila eraman behar dugula eta beti bere erranen arabera gobernatu da: abertzale guziek hortan etsenplu har dezagula, pentsatuz Gandhi zenak India libratu zuela Ingles bat hil gabe* (27).

(21) Biba Louis St Esteben. JBL. 1964. XII.10

(22) Eskual Herriaren geroa. Abertzale. 1964.X.8

(23) Baionako katixima. Tours, Mame. 1950. 252 or.

(24) Mixel Oronoz: Jalons pour une hisoire de l'Eglise Catholique en Pays Basque Nord de 1965 à 1967. 16.or.

(25) Matalaz antzerkiak zenbeit gogoeta. JPE. 1968.V.2, 9, 23

(26) Matalaz eta gerla. X.A. 1968.VI.27

(27) Gandhi ere abertzalea zen. JLD 1964.XI.19

Baina bakezko lerro guzien gatik, gerla ideia hori lotua gelditu zitzaion abertzalegoari. Baketzale izateko, *ENBATA*ren kontrakoa izan behar zen. *ENBATA*ren kontra izatea aski zen! Eta iheslariei hatxeman pixtoleta, dinamita eta gaineratikoek ikusmolde hori lagundu zuten erroak egiten. Eta barna. Hortan gara oraino gaur egun funtsean.

Algeriak 1962an ardietsia zuen independentzia, sei urte gerlaren ondotik. 20.000 Euskaldun gaztez goiti ibilia zen gerla horretan. Independentzia eta gerla elgarretarik hurbil ziren jenden gogoetan. Eta *ENBATA*k independentzia aipatzen.

Departamendua

*ENBATA*k zuen berriz atera, departamendu berri baten aspaldiko ideia zaharra. Jean Louis Davantek aipatu zuen HERRIAN, Atarrantzen egin bilkura batetik landa. Jean Irigarayek egin zion errepostua “*Ez sinets hala ez denik*” artikulua bidez. Hona zer zioen besteak beste: “*Nahi baduzue denbora galdu bururik ez buztanik ez duen politika batean, horra xede paregabe bat, gure izariko departamendu baten galdegitea* (28). Arrazoinamendu bera entzuten da oraino.

Ondoko astean Davantek “*Imido Jean Irigarayi*” (29). Hamabostean Irigarayek “*Departamendu koxkor baten beharrik ez dugu*” erranez: “*Ofreitzen balaukute emaithea, galdegin bezen segur, erran nezake: har dezagun, edo ez, ez du inportantzia handirik. Bainan jendearen asaldatzea ainitz urtez gauza inutil baten ukaiteko, diot kalte baino kalteago litekela, indar higtzaile eta esperantza faltsu emaile* (30).

Lehen artikuluan Irigarayek idatzia zuen ere: *Mugak kalte badira, ez dezakegu asma muga berri batzuen ezartzea Eskual Herriaren inguruan.*” Baraciar batek erantzun zion: “*Uste dut muga guziak ez direla gisa berekoak. Kartieren arteko mugek ez bide dute herrien artekoak duten munta bera, ez eta naski departamenduen artekoak, erresumen artekoena* (31).

“*Guk ere errepostu*” artikuluan, André Diharce batek zioen: “*Politika horrek bururik ez buztanik ez badu, gorputz bat badu. Nola arrain bati buru eta buztanak kendu eta zerbeit gelditzen zakon, bertzela ez luke kario balio* (32)”.

Jean Louis Davantek ere *HERRIA*ko bi aletan agertu errepostu luze bat igorri zuen: *Jean Irigaray, auzapezen eta kontseilari jeneralen arteko batasun-*

(28) Ez sinets hala ez denik. J.I. 1964.II.27

(29) Imido Jean Irigarayi. JLD 1964.III.5

(30) Departamendu koxkor baten beharrik ez dugu. J.I. 1964.III.12

(31) Xehetasun galdez. Baraciar. 1964.III.12

(32) Guk ere errepostu A.D. 1964.III.19

naren alde zira. Bainan guk departamendu bat eskatu ezpaginu etzuten hola-
korik aipatuko bozetan gure Herri gizonek. Delako departamenduari buruz,
huna lehen urrats bat egina (33).

Jean Irigarayek segitu zuen “Enbataren finak” (34) artikuluan: *Galdegi-
nez departamendu bat guretzat bakarrik eta hedatuz, eskandala balitz bezela,
kontseilu jeneralean 15 Eskualdun direla bakarrik eta 26 Biarnes, erakuste-
rat eman dute Enbatarrek ez dela hori justizia, ez dezakegula ukan zor dugu-
na, ebatsiak girela.*

Davant kexatu zen “Ttipikeriarik aski” (35) artikuluan: *Zure azken arti-
kulua dena ttipikeria, malezia eta jukutria da, besterik ez dakar. Ene hitzetan
nahi dituzunak atxikitzen dituzu inportanteenak bazter utzirik...*

Auzia, ondoko zenbakian gelditu zen Davant eta Irigarayen bedera arti-
kulu laburrekin, Lafittek eman gain titulu honen pean “*Bi adiskidek elgarri
esku*” (36).

“*Auzi hortarik zerbeit onik aterako dela uste dut. Eiki, zuk eta nik gora-
ki erran ditugu ainitzek ixilka pentsatzen dituztenak.*” Davanten bi lerro hauek
erraiten dute biziki untsa hilabetez hilabete, batzuk ala bestek *HERRIAN* ager-
tu artikuluen balioa. Ostatu xokoetan ahapetik ateratzen zirenak, plazaratzen
ziren *HERRIAN*.

Beste eztabada zenbeit

Goi mailako politika gaiak utzirik bazekiten ere tokian tokikoari so egi-
ten. “*Zertako heda gezurra*” (37) titulupean, Hazparneko berriketariak idatzi
zuen: *Iduri du presuna batzu pagatuak direla hedatzeko, Hazparne gero ta
gaizkiago johan dela arras plantan johan delarik. (...) Lana badugu, zapata
lantegietan frango nasai bulta huntan eta laborantza hein ederrean dela idu-
ri. Bazter guzietan etxe berri egiten ari, zer dugu bada hain gaizki doanik?
(...) Ez, ez gira hain gaizki, apantziarik ere. ENBATAko kritikatzaleak zituen
partida, gauzak gaizki zoatzila baitzioten.*

Noizean behinka *HERRIAN* “Karkana” izenpetzen zuen batek eman zion
errepostua (Geroztik jakina dugu “Karkana” hori, Maurice Bortheyrou, CFDT-
ko buruetarik bat zela.). “*Zertako heda gezurrak*” (38) titulua beretuz, segitu
zuen: “*Lana badugula bulta huntan, errazu, zer da bulta hura? Joan den ur-*

(33) Europatiar, bainan lehenik Eskual Herritar. JLD. III.26, IV.2

(34) Enbataren finka. J.I. 1964.IV.16

(35) Ttipikeriarik aski. JLD 1964.IV.30

(36) Bi adiskidek elgarri esku. JLD 1964.VII.8

(37) Zertako heda gezurra. 1965.VII.8

(38) Zertaako heda gezurrak. Karkana. 1965.VII.15

tarrilean aita familiako batzuk 26.000 libera zahar hunkitu dituzte hilabetearendako. Hori ez da hain aspaldi. Bertzalde orai bezenbat gazte noiz joan da Hazparnetik? Lana balitz herrian zendako zenbaitek egiten dituzte 50 kilometra egunean lanean artzeko? (...) Laboraria ezin hobeki? Zer laguntzak... Ahatge niz erraiteko zozbat etxe diren oraino urik gabe. Etxe berriak ba, eta ere etxe berriak izanen dira ba, kanpotiarrek eginak, Euskaldunek hustu lurretan.

Balio du delako Karkana horren ganik entzutea jende zer erraiten zuten ENBATAz, 1965ko apirilean bozkak izan zirelarik Kontseilu nagusirako. “*Bainan pollitena da, (erran badezaket) nola etxez etxe, jaun andere batzuek esplikatu duten ENBATAren politika. Irakurleak kasu! Lot untsa erori gabe! Huna zer duten kondatu: ENBATA hori Español batzuek jalia da. Nahi dute hemengo Euskaldun zenbeiten laguntzarekin, Franco hemen sar arazi, eta haren politika hemen ezarri. ENBATA pasatzen bada, Darraidou medikuak kenduko ditu zahar-sos, alokazioe eta “*securité sociale*” guziak. Espainiako miseria, langabe, esklabotasuna hunat hedatuko dira. Gero, Hazparden ez da sartuko industria berririk, ez baitugu subventionen hoitarik izanen deusen muntatzeko (39).*”

Darraidou zen Hazparne aldeko Kontseilari Nagusia.

Uste ez den lekuan hatxemaiten ziren abertzaleak: Lapurdiko Jatsun apez etxea inkantean salgai emanik, *Gertakari ahalgegarria* artikulua idatzi zuen norbeitek. “*Abertzale bat*” izenpetzen zuenak bere kekuaren berri eman zuen, titulu hori bera beretuz: *Jatsuarrek, beren jakinean, beren nahitarat, kanpotiar bat buruzagi hautatu dute (...)* Eskual Herria Kanpotiarrek galduko, segurki. *Bainan maleruski, Eskualdunen laguntzarekin dute ehortziko. Eskualdunek eman bozeri esker. Hori ere gertakari bat miresgarria, edo ahalgegarria (40).*”

Arrasateko kooperatibak

Jadanik erran dugun bezela, orduan dute hemengo jende gehienek Hegoalde bat bazela deskubritu. Eta bereziki Arrasateko kooperatiben mugimendua. Gazte bidaien helburu bilakatu zen Arrasate. Mito bat. Behin 42 ixtudiant gazte izan ziren “*Ulgor*” kooperatibaren bisitatzen. Manex Pagolak kondatu zuen HERRIAN nola harriturik itzuli ziren han ikusiaz: lana ausarki, ongi pagatua, lantegi puntakoa... (41)

(39) Hazparneko bozemaile baten gogoetak. 1965.IV.1

(40) Gertakari miresgarriak Jatsun. Abertzale bat.1962.IX.13

(41) 42 ixtudiant ikuska. P.J. 1965.V.6

“Maite Egia” izenpetzen zuen batek idatzi zuen, bere herrian ezagutzen zituela honara sehi etorri eta hemen ezkondu ziren Hegoaldekoak. Zer pasatu zen bada artean: *Sinets ahal bada! Nago Frankoren gobernamentuak ere ba ote duen zerbait onik* (42)!

Sua piztua zen. Bi ihardespren izanen zituen frango bipilak, bainan errepostu egileak paradaz baliatzen ziren hegoaldea hobeki ezagutarazteko hementxo irakurleei (43).

Eta handik bizpahiru hilabeteren buruan, Manex Pagolak, gazteak gomitatzen zituen Arantzazurat (44) eta bidaia egiten 26 gaztekin, egundainokotan Arrasaten gelditzen zirela. Ondotik Donazarreko 26 (45).

Beste behin Irisarriko 55 gazte ziren joan Iruña alderat aldi hontan (46), Urepelekoak Loiola eta Zarautzerat (47), bai eta Hazparne itzuliko 140 bat, Enbata zirela eta ez zirela, hor ere kalapitak izan baitziren HERRIAN (48).

Piarres Larzabalek kondatu zuen ere, ez gaztek, bainan Baionako Kometzio Ganberako buru, ekonomilari eta bertze zenbeitetik zituztela bisitatu hiru kooperatiba (49).

Bidaia horien garantzia ikusteko, oroitu behar da garai haietan gaztek ez zutela beribilik berak joateko eskuin eta ezker: Hegoaldera joaitea zinezko espedizioa zen.

Horra hor, Lafittek Herrian agertu zituen abertzaleen artikuluetarik jasta. Dakizuen bezela, apezek ez baitute politikarik egin behar, besten gain utzi du lan hori.

Eta berriz errateko, *ENBATA*k baino irakurle gehiago zuen *HERRIA*k. Biziki gehiago. *ENBATA* kaseta irakurtzen ez zutenak. Bana beste astean bi artikulua agertu dituzte hor *ENBATA*koek, *HERRIA* gabe hunkiko ez zituzten irakurleentzat. Hilabeteaz zortzi artikulua erran behar genuke, hilabeteaz behin agertzen zen *ENBATA*rekin konparatzeko. Gainera eztabadak baziren akort ez zirenekin.

Ageri da *HERRIA*rekin zer laguntza ekarri dien Lafittek orduko abertzaleei, berak ohartu ez badira ere.

(42) 42 ixtudianter zonbeit galde. Maite Egia. 1965.V.20

(43) Maite Egia. Ez Maite Gezurra. 1965.VI.3

Maite Egia errepostu. MD. 1965.VI.10

(44) Gurekin nor Arantzazura? M.P. 1965.VII.8

(45) 26 gazte ikuska. P.M. 1965.IX.2

(46) Irisartarrak piaiaz mugaz bestaldean. Han zen bat. 1966.VI.30

(47) Urepele. Piaia ederra. 1967.VI.22

(48) Hazparne aldeko gazteak kurri. 1967.XI.9

Hegoa eta Enbata. R Camblong. 1967.XI.16

R. Camblongi errepostu. JP Mendiboure eta M. Dubois. 1967.XI.23

(49) Arrasaten izan gira. Kostatarra 1966.XI.24

ENBATATIA RREN ARTIKULUAK *HERRIAN*

Xipri Arbelbide

- 1962.I.25 Etxahun. Manexa
1962.I.1 Etxahun-ez bi hitz. A. Lichalt
1962.II.22 Etxahunez berriz ere. Etxahun-zalea
1962.III.1 Etxahunen alde. Kostatarra
1962.III.29 Etchahoun. Mauletar bi Batichtak
1962.IV.5 Bi Batichta jauner. Lichalt
1962.V.10 Eskual Herriaren eritasuna. Khexatiar
1962.IV.17 Eskual Herriaren eritasuna. Khexatiar
1962.VI.14 Duela 25 urte: Gernikaren suntsitzea. Abertzale
Radioa eskuaraz
1962.VII.5 Beleak xoxoari beltza. P. Lafitte
1962.VII.19 Bakotxari berea P. Lafitte
1962.VII.19 Eskual Herriaren geroaz gazte batzuen xedeak. J.L. Davant
Eskual Herriaren eritasuna. Manech Eyheramendy
1962.VII.26 Eskual Herriaren eritasuna. J.L. Davant
1962.VIII.2 Barkochen pastouala
Eskualdun bat Eskualduner. Manech Eyheramendy
1962.VIII.9 Lau mila pastualzale Barkochen
Eskualdun bat Eskualduner. Manech Eyheramendy
1962.VIII.16 Baigorriko predikuaz. Kostatarra
Eskualdun bat Eskualduner. Manech Eyheramendy
1962.VIII.30 Radio Côte Basque mintzatuko da 10' egunean
Eskualdun bat Eskualduner. Manech Eyheramendy
1962.IX.13 Gertakari miresgarriak Jatsun. Abertzale bat (apezetxea saldu)
Eskualdun bat Eskualduner. Manech Eyheramendy
1962.IX.20 Gure radioaren harat hunatez. Radiolari
Ziberoa zertan den. J.L. Davant
1962.X.18 Atharratzeko kantonamendua suntsitzeko bezperan ote da? Pitrau
1962.X.25 Eskualdun gazte gobernuak kasaturik bazterrak airean. P.L.
Atharratzeko kantonamendua suntsitzeko bezperan ote? Pitrau

- 1962.XI.1 Atharratzeko kantonamendua suntsitzeko bezperan ote? Pitrau
 1962.XI.8 Atharratzeko kantonamendua suntsitzeko bezperan ote? Pitrau
 1962.XI.22 Atharratzeko kantonamendua suntsitzeko bezperan ote? Pitrau
 Arrutza eta Aresti. Gabriel Mora, Iñaki Aldekoa, Juan J. Zabala
 1962.XI.29 Arrutza eta Aresti. Gabriel Mora, Iñaki Aldekoa, Juan J. Zabala
 1962.XII.13 Lau Eskualdun haizatuena harietarat. Argentinatik.
 Lur berritze eta Eskual Herriko moldez. Lekhukoa (Mehaindarra)
 1962.XII.20 Echaniz jaun apheza auzitegian
 Mehaindarrari kanpotiar batek. Kanpotiarra
 1962.XII.27 Kanpotiarrari abisu. Lekhukoa
- 1963.I.3 Ganixen ihardespena. Ganix
 Bordeletik, Embata ikasleen batasunaren berri. Girondarra
 1963.I.17 Laborari herrestak Ganichi. Lekukoa
 1963.I.31 Ganixen azken hitza. Ganix
 Laborari gazteak eta geroa. SA
 Auzi eta jauzi. P.L.
- 1963.II.7 Eskual Herriko laborariaz Pettanek ere bere hitza. Pettan
 1963.II.14 Ez du balio gordeka bethi artzea
 Bekaizkeria, arrazoin tcharra. Laguna
 Pan Pin (4000 saltzen)
- 1963.III.21 Ayalda-ren bi gogoeta bi Eskual-Herriez
 1963.IV.18 Itsasuko biltzarra (aberri eguna) Jokin
 departamendu solas. Legetiarra
 1963.IV.25 departamendu solas. Legetiarra
 1963.V.23 Baionako portua Nafartarrena ere izanen denez
 Baionako gertari hilen orhoit harri zikintzaleak nor othe diren.
 1963.V.30 Bokaleko lantegiaren alde egin den bilkura handiaz
 telebista entseguak Utsun
 Eskuara eta Eskualdun kantuak. Daniel Landart
- 1963.VI.13 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy
 1963.VI.20 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy
 Berri on bat: udako radioa eskuaraz
 1963.VI.27 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy
 Ez ezar arrotz guziak saski berean E. Garat kalonjea
- 1963.VII.4 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy
 Bokale bezelatsu Sokoan. Kostatarra
 1963.VII.11 Baionako Euskaldunen biltzarra
 1963.VII.18 Bozak Hazpainen
 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy

- 1963.VII.25 Zertan gira Euskal Herrian. P. Arradoy
Gothagneko pastoralara (PL?)
- 1963.VIII.1 Zertan da iphar EHko jendetzea. JLDavant
Phastoual bat ederra
Iruñatik Baionarako bidea
Zertan den Eskual Herriko jendetzea. J.L. Davant
- 1963.VIII.15 Biltzarra Arantzazun hiztegiak
Santxo Azkarra
Donostian apezpiku euskalduna (Bereziartua)
demokrazia, izana eta izena MP
- 1963.VIII.22 Hazparneko lantegietan zertan giren CFTC
Galde eta ihardespren. V. M. Errepostua: PL
- 1963.IX.12 Radio hortaz. Larreko
Eskual Herria eta politika. Kostatarra
- 1963.IX.26 Europako batasunari buruz J.L.D.
- 1963.X.3 Nori ixkiria? (Apezpiku solas)
Zertan den Bokale. Kostatarra
Lantegi eskasa gure departamenduan Jean Irigarai
- 1963.X.10 Hazpamen sukarra CFTC
- 1963.X.17 Apezpiku berriari buruz apez gazte baten letra . Mixel Lekuona.
Hazpandar langile gaztek erran daukute
- 1963.X.24 Irakurleen saila. J.B. Cachena
- 1963.X.31 Azparneko grebaz. Kostatarra
- 1963.XI.14 Bordeleko euskaldun ikasleen berri
Espainian, Gaixo langileen zortea. Kostatarra
- 1963.XI.21 Erromatik zenbeit berri. Erromanoa
- 1963.XI.28 Industria hemen gairi. Kostatarra
Eskualdunak eta "bertzeak". Maurice E.
- 1963.XII.12 Enbataren biltzarra Donibane Garazin. J. G.
Pariseko Eskualdun gazteari. J.L. Davant
Eskualdunak eta "bertzeak" Oihanaria
Langile solas. Kostatarra
- 1963.XII.19 Bokalen lantegi berri
Pierre Duhour jaunari gazte batek. J. Goyhenetche
- 1964.I.2 Eskualdun laboraririk izanen ote da 20 urteren buruan? J.L. Davant
- 1964.I.9 Eskualdun laboraririk izanen ote da 20 urteren buruan? J.L. Davant
- 1964.I.9 Eskualdun laboraririk izanen ote da 20 urteren buruan? J.L. Davant
- 1964.I.30 Antzerki edo Teatroaz. B.X.
- 1964.II.6 Baionatik Iruñarateko bide handi bat behar dela Alduden gairi
Eskualtzale eta euskaltzaineri. Bizkaixipi

- 1964.II.13 Bilkura balios bat. Jean Louis Davant
Kantarien eguna Baionan
- 1964.II.20 Eskualdun Amerikanoak. Bizkaixipi
Hiru ikusgarri Baionan. Daniel Arberu
Makearrari errefera (irratiaz). Radiolari bat.
- 1964.II.27 Bozkak: Haran eta Etxeverri Ainchart
Ez sinets hala ez denik. Jean Irigaray
- 1964.III.5 Imido. Jean Irigaray
- 1964.III.12 Departamendu kokor baten beharrik ez dugu. Jean Irigaray
Xehetasun galdez. Paul Baraciat
- 1964.III.19 Guk ere errepostu. André Diharce
- 1964.III.26 Aldairak Pauen
Orreaga. Adixkide
Radiolari bati gazte batek errepsostu. Gazte bat
Europa berrian lehenik Eskual Herriar. P. Baraciat?
Europatiar, bainan lehenik eskual herriar J.L. Davant
Afrikaz. C. Arbelbide
- 1964.IV.2 Radiolariak errefera. Radiolari bat
Europatiar bainan lehenik Eskual herriar JLD
Goratik Eskual Herriari so. B. Oxandabarratz eta Arnaud Irumé
- 1964.IV.9 Jaun prefet ohiaren letra batez. Pierre Lafitte
Gernikan aberri egunaz. Ikusle
Ttipikeriarik aski. Jean Louis Davant
- 1964.IV.16 Orreagak ez du izan merezi zuen behatzale aldea. Beha zagon bat
Enbataren finak. Jean Irigaray
- 1964.IV.23 Ttipikeriarik aski. J.L. Davant
Bertze letra bat Paueko artikulu berari buruz P. Lafitte
- 1964.IV.30 Dantxariako CRS hiltzailea
Bi adiskidek elgarri esku. J.L.D. - J.I.
- 1964.V.14 Erresuma eta nazioea J.L. Davant
Radiotik oiharzun. F. Ertxeharreta
Orreaga Beskoitzen
- 1964.V.21 Eskual radioa. B.S.
- 1964.V.28 Eskuara hori. André D.
Eskual Herriaren gidarieri. Kostatarra
- 1964.VI.4 Baiona Hazparnen portua izan ote da? Pedrito Choribit
Lapurdiko auzapezen biltzarraz. Phagoteguy
Expansion économique (Hazparne)
Frantzia eta Espainia. Kostatarra
- 1964.VI.11 Oraiko eta lehengo gazteak. B.X.
Ekuara radioan
Eskuara atxiki behar dugu. Xalbat Arbelbide

- 1964.VI.18 Radiotik, eskualdunentzat pindar bat. Z...
- 1965.VI.25 Oraiko eta lehengo gazteak M.I.
Ixtudianten oihua. P.N.
- 1964.VI.7 Industriari buruz. Kostatarra
- 1964.VI.25 Biltzar balios bat Hazparnen. J.B. - M.B.
- 1964.VII.2 Euzkadi eta Europa. Jakes Abeberri
- 1964.VII.16 Nor dira BX, MI eta bertze? Jean Irigaray
Eskual antzerti edo teatro radiotik. F. Etxezaharreta
- 1964.VII.23 Eskuarazko meza radiotik. Kostatarra
Ukatzaileak. A. Etxamendi
Eskual teatrozaleen batasuna
No giren gu? (J. Irigarayi errepostu) B.D.
- 1964.VII.30 Ukatzaileak. A. Etxamendi
Eskuarazko meza radiotik. Kostatarra
- 1964.VIII.6 Eskuarazko radioaz. Kostatarra
Populu ttipi baten gora beherak. (Lafitte-n mintzaldi)
- 1964.VIII.20 Radiolarieri eskerrak. Phagoteguy
Emazte eskualtzale sail bat? Mari-Xemark
Eskuararen aldeko bilkurak. (Loiolan)
Populu ttipi baten gora beherak (Lafitte)
- 1964.VII.27 Loiolako biltzarra. Xitox
Populu ttipi baten gora beherak (Lafitte)
- 1964.IX.3 Kulturazko eskuararen batasunari buruz. Han zen bat.
Populu ttipi baten gora beherak (Lafitte)
Emazteak eta eskualdungoa. Marider
Hango langilen guduka (hego)
- 1964.IX.10 Ikas eta eskuara eskolan
Emazteak eta eskualtzale. Marittipi
- 1964.IX.17 Motion de Ikas
- 1964.X.1 Eskual herria eta industria. Kostatarra (2)
Hazparne eta Bastida: comité d'action économique
- 1964.X.8 Euskal Herriaren geroa. Abertzale
- 1964.X.15 Eskuara Donostiako seminarioan
- 1964.X.22 Batasun berri MRP-basque. J.I.
Djezair aberritik. Abertzale
Bestaldeko berri. Bidekari
- 1964.X.29 Abertzale lagunari errepostu. Louis St Esteben
- 1964.XI.5 Menzano sindikalaria kondenatu dute
Euskadiko laborantzaz. Abertzale
Europa lanjer handian, Jean Irigaray

- 1964.XI.12 Presondegitik, amairu eskualdunen deia
Eskual abertzale gazte bati. Abertzale
Abertzalearen errepostua. Abertzale
- 1964.XI.19 Louis St Esteben ene laguna. Jean Irigaray
Ghandi ere abertzalea zen. J.L. Davant
Eskual abertzale bati. Abertzale
Ametseri uko. Giltza petik
- 1964.XI.26 Lau Eskualdun kasatu nahi
Azkena. Ba eta ez. Louis St Esteben
- 1964.XII.3 Arrasaten izan gira. Kostatarra
Bi mugak. R.C. Abertzale
Espainiatik: Eskualdun langilen guduka
- 1964.XII.10 Biba Louis St Esteben. J.B. Larramendy
- 1964.XI Nor dira B.X., M.I. eta bertze. Jean Irigaray
- 1964.XII.3 Arrasaten izan gira Kostatarra
- 1964.XII.17 Lau Eskualdun kasatuen egitekoa zertaratu. P. Lafitte
Mouvement démocrate basque. Bernard Mendisco
Zertako abertzale. Abertzaletarik bat.
- 1964.XII.24 Arrasaten izan gira. Kostatarra
Heldu den larunbatean, feria egunean, Enbata'ren bilkura
- 1964.XII.31 Donaphaleu: Enbata'ko bilkura
Eskual Herria eta Euskadi. D.L. abertzalea
Bitxikeria bat. Giltza petik
Demokrata zer den. B Mendisco
- 1965.I.7 Demokrata zer den B. Mendisco
Bai jendeak mintzo. M.P. abertzale
- 1965.I.14 Zazpi oren auzitegian
Ama Euskal Herri (bertsoak)
Gizontasuna. B. Mendisco
- 1965.I.21 Mugaz bestaldetik: euzko langilen alkartasuna
Enbata Haparnen. Enbatatiar bat
Bai, jendeak mintzo. M.P. Abertzale
- 1965.I.28 Enbataren bilkura Aldabidean. Han zen bat
Bozeri buruz. Abertzale
Eskualdunen geroa... gure grifia. B. Mendisco
- 1965.II.4 Mugaz bestaldeko berri (Jokin Garate kolpatua)
Madrilleko auzia
- 1965.II.11 Hazparnetik Iruñara (C. Etxaluz)
Nola joka EHan industriaren muntatzeko. Jean Irigaray

- 1965.II.18 Txantxikitin. P.L.
Mugaz bestaldeko berri
Eskual Herria iratzartzen ari. Hordago
- 1965.III.4 Ibayaren eguna Baionan
- 1965.III.11 Lantegi berri? Gogo berri! J.L. Davant
Mugaz bestaldetik
- 1965.III.18 Nor izan abertzale. Martxalin Arbelbide
Mugaz bestaldetik.
- 1965.IV.1 Hazparneko bozemale baten gogoetak. Karkana
- 1965.IV.15 Mugaz bestaldetik
Charriton jaun apezaren joaitea. E.L. Adixkidea
Eskualdun gazte gaizoak Beñat
- 1965.IV.22 Aberri eguna
Euskera irrati bidez Xemartin (Oñatibia metodoa)
- 1965.IV.29 Iratzartzeko tenoria. Arño Hegiaphal
- 1965.V.6 Mugaz bestaldetik
42 ixtudiant ikuska. P.J. (Arrasaten)
- 1965.V.20 Britainian ibili Itsasurreri. Jeannot Euskadi.
42 ixtudinter zenbeit galde. Maite Egia
- 1965.VI.3 Maite Egiari. Ez Maite gezurra.
Mugaz bestaldetik
42 Eskualdun ixtudiantek zuri Maite. P.J. Baionako ikaslea
- 1965.VI.10 Paper batetarik landa. A.M. (diosesa euskalduna)
Mugaz bestaldetik
Maite Egiari Errespostu. M.D.
- 1965.VI.17 Mugaz bestaldeko berri
- 1965.VI.24 Mugaz bestaldeko berri
EGIA (Bordale). Egia
- 1965.VII. Bertsolarisak
- 1965.VII.1 Mugaz bestaldetik
Euskaraz radiotik
Baigorri gaindiko bidez
- 1965.VII.8 Mugaz bestaldeko berri
Zertako heda gezurra
Gurekin nor Arantzazura? M.P.
- 1965.VII.15 Zertako heda gezurrak? Karkana
Radioaz. Panpili
Mugaz bestaldetik
- 1965.VII.22 Gora Euskadi. Miatzailea
Eskualtzaleen biltzarrari buruz. Zazpi gazte
Mugaz bestaldeko berri
Gora Euskadi: 7 = 1. (tinduak) Miatzailea
Euskaraz radiotik. Louis G. Aditzaile

- 1965.VII.29 Mugaz bestaldeko berri
Stuttgartetik landa. Mezulari.
Hazparneko nausi batzuek Eskual radioa auzitan emaiten dute. Ar-
gitzailera
Radioan aipatu Hazparneko ikertzeaz. EGIA
Donamartiritik Eskualtzaleen Biltzarraz. J.B.L.
- 1965.VIII.7 Mugaz bestaldeko berri
Hazparneko erretorak "Argitzaileari". Raymond Idieder
Eskualtzaleen Biltzarraz. J.L.D.
Domintxine: Christiane Etxaluz
- 1965.VIII.14 Mugaz bestaldeko berri
Hazparnetik: Trolliet, Lafitte, Etxezaharreta (segida)
Eskualtzaleen Biltzarraz. E. Etxamendi
- 1965.VIII.19 Hendaian eta Pausun zer gertatu den. Enbatatiar bat
Hazparne, xifre zombait. P.L.
Mugaz bestaldeko berri
- 1965.VIII.26 Industria eta laborantza A. Hegiaphal
Mintzatu gira Haran jaunarekin. Beti bera
Donamartiritik. Milesker jaunak. J.B.L.
- 1965.IX.2 Mugaz bestaldetik
Hazparneko lantegietan: xuxentze. CFDT
26 gazte ikuska P.M. (Donazaharrekoak Arrasaten)
Eskualtzalen biltzarraz. Hernandorena
- 1965.IX.9 Enbata poliziarekin borrokan
- 1965.IX.16 Hendaian Beti aintzina
- 1965.IX.23 Gazte bat preso. Daniel Landart
- 1965.IX.30 Bidea. PL
- 1965.X.7 Mugaz bestaldetik. Mugakoa
- 1965.X.14 Gazte bat preso. Jean Pierre Curutchet (Daniel Landarti errepostu).
Naparrako apezek biltzar bat hemengoekin
- 1965.X.21 Eztenkadak: J. S. Martin). PL
Neskato bat preso. D. Landart
Mugaz bestaldeko berri.
- 1965.X.28 De Monzon jaunari bertsuak. J.P. Curutchet
Neskato bat preso. J.P. Curutchet
Ez mintza jakin gabe: Curutcheti. J.L. Davant
Mugaz bestaldeko berri
- 1965.XI.4 C. Etxaluzen auzia gelditzen dugu
Radio Côte Basque ukanen ote dugu?
- 1965.XI.11 Mugaz bestaldeko berri
Enbatako buruzagiak Paueko auzitegian

- 1965.XI.18 Enbatak zer dion. Enbata
Mugaz bestaldeko berri
- 1965.XI.25 Mugaz bestaldeko berri
Hango polizak zafratu nau. P. Noblia
Lau Eskualdun kasatu nahi.
- 1965.XII.2 Mugaz bestaldeko berri
- 1965.XII.9 Mugaz bestaldeko berri
- 1965.XII.16 Mugaz bestaldeko berri
Afrikatik. Arbelbide
- 1965.XII.23 Christiane Etxaluz.
Eskualdunak preso eta auzitan
- 1965.XII.30 Eskualdun ikasleak Pauen. Daguerre, Etxezaharreta
Muru zikintzailez ez da aldi huntan nehor ere pleñitu Jakes Or-
ganbide
- 1966.I.6 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.I.20 Mugaz bestaldeko berri
Radio Euskadi. P.M.
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.I.7 Gazteri berriak, kantu berri. Manex Pagola
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.II.3 "Egia" berriz agertu. J.L. Maitia
Egia. P. Larzabal
- 1966.II.3 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.II.10 Mugaz bestaldeko berri
Eskualzainek egiteko luketen berexkunde lan batez. E. Etxa-
mendi
- 1966.II.10 Bilkura batetik landa S.A.
- 1966.II.17 Mila enplegu berri urtean Eskual Herriarentzat. Han zen bat
Kantu berriak. Daniel Landart
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.II.24 Radio Euskadi gure alde irrintzika M.P.
Heletako Enbataren biltzarriaz bi solas. Baketiarra
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.III.5 Mugaz bestaldeko berri
Zenator eta deputatu Etxaluzen alde
Bake bide eta gerla bide P.L.
Baketiarri errepostu Sauveur Arbelbide
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.III.10 Argi zirrinda zenian. Zuhafieta

- 1966.III.17 Aberri eguna Itsasun
Baketiarrek errepostu S. Arbelbideri. J. Ainciart
Mugaz bestaldeko berri
Eskuarari laguntza. ("h"-ez) Eñaut Etxamendi
- 1966.III.24 Enbata eta UNR ados direa. René Ospital
Portugesen gisa Eskualdunak joan beharko ote dira. Borrokari
Mugaz bestaldeko berri.
- 1966.III.31 Radioa eskuaraz
- 1966.III.31 Enbatak René Ospital jaunari. Enbata
- 1966.III.31 Andere Etxaluzen berri
- 1966.III.31 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.IV.7 Cristiane Etxaluzen auzia Han zen bat
- 1966.IV.7 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.IV.14 Aberri eguna
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.IV.21 Mugaz bestaldeko berri
Zer gira euskaldunak. Arño Hegiaphal
Algeriaren mirailan Euzkadi. Manex Pagola
Garaztarra naizela. Zuhafieta
- 1966.IV.28 Mugaz bestaldeko berri
René Ospitali bi gogoeta. J. Apeceix
- 1966.V.5 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.V.12 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.V.19 Errecart zenaturra. Mintzo Bidasoako zubiez eta Iruñarako bidez
Nor da hobendun. Martxelin Arbelbide
Eskuararen erakasteaz. M. Arbelbide
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.V.26 Biltzar baten ondotik
Mugaz bestaldeko berri
Devan zer gertatu da? N.G.
- 1966.VI.2 Dei bat bestaldeko Euskalduneri. Biotzkide
- 1966.VI.9 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.VI.16 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.VI.23 Zoin dira apez girixtinoak Españan? Luzien Etxezaharreta
Eskuaraz radiotik
- 1966.VI.30 Irisartarrak piaiaz mugaz bestaldeko EHan. Han zen bat
Leialtasuna politikan ere P.J. Penapartarra
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.VII.7 Mugaz bestaldeko berri

- 1966.VII.14 1966ko Eskualdun ikasleen ikertzea. EGIA
La guerre est finie. Alain Bardez
- 1966.VII.21 Mugaz bestaldeko berri
Gu gira, gu, Euskaldunak. M.B.(Euskaldunak Frantziako itzulian)
- 1966.VII.28 Mugaz bestaldeko berri
Eskuarazko radioaz. Berriketaria
Urtsuak aldatu urrian R. Zuhañeta
- 1966.VIII.4 Mugaz bestaldeko berri
Ezpeletan ikusi dut. M.P. Gabica, barne azkarreko gizona. J. Apeceix
Eskual radioari. Piarres Heguitoa
- 1966.VIII.11 Mugaz bestaldeko berri
Iruiko pastorala. Manexa
- 1966.VIII.18 Mugaz bestaldeko: Etxaluz libratu
- 1966.VIII.25 Baigorriko biltzar baliosa
Mugaz bestaldeko berri
Biarritze: Christiane Etchaluz mintzatu. Berriketari.
Gazteak eta euskara. EGIA
Radioko sariketa
- 1966.IX.1 Gure radiolarien partez. Pantxo Etxezaharreta
gazteak eta eskuara. EGIA
- 1966.IX.8 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.IX.15 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.IX.22 Mugaz bestaldeko berri
Leher egin eta D. Landart. (Euskatzaleen Biltzarraz)
- 1966.IX.29 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.X.6 Mugaz bestaldeko berri
Mendia mintzo. Mendigoizalea (7=1 Baiguran)
mugari tiro. D. Arberu
Neskatoak indarkatuak R. Zuhañeta
- 1966.X.13 Zeri buruz doa EH? M.B.
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.X.20 Mugaz bestaldeko berri
Nexkatxak indarkatuak. R. Zuhañeta
- 1966.X.27 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.X.3 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.XI.10 Erdiko gizonak: zein egiteko. J.P. Lafaurie
Eskuara denentzat. R. Camblong
Garazin gerla. E Etxamendi. (Ihiziaz)
- 1966.XI.17 Mugaz bestaldeko berri
Herriko ihiztariak elgarrekin (Eiheralarre)
Branka. P. Larzabal
Garazin gerla. E. Etxamendi

- 1966.XI.24 Arrasaten izan gira. P. Larzabal.
- 1966.XII.1 Paueko ikasleen berri. L. Etxezaharreta
- 1966.XII.8 Mugaz bestaldeko berri
- 1966.XII.15 Garazin bakea. Mixel Inchauspe
- 1966.XII.22 Nun dugu eskual politika
Mugaz bestaldeko berri
- 1966.XII.29 Mugaz bestaldeko berri
-
- 1967.I.5 Mugaz bestaldeko berri
Mixel Inchauspe jaunari. Alexis Inchauspe
- 1967.I.12 Mugaz bestaldeko berri
Bakea gerlatik heldu deno. Gexan Lantziri
Labeguerie jaunaren koinatari. M. Inchauspe
- 1967.I.19 Garazi bizi nahi. J. Erramouspe
- 1967.I.26 Mugaz bestaldeko berri
Egiazko auzia. J.L. Davant
Garazi bizi nahi. J. Erramouspe
- 1967.II.2 Mugaz bestaldeko berri
Mixel Inchausperi errepostu. A. Inchauspe
- 1967.II.9 Mugaz bestaldeko berri
SOD eskuara SOS (gegotik) Gexan Lantziri
Egiazko auzia. J.L. Davant
- 1967.II.16 Mugaz bestaldeko berri
Berri latza. R. Idiart
- 1967.II.23 Mugaz bestaldeko berri
Boz emaileri dei bat (Haran eta Etxaluz deputatu gai)
Egiazko auziaz. J.L. Davant
- 1967.III.2 Mugaz bestaldeko berri
Aberri egunari buruz. R. Idiart
Auzia trenkatu behar. J.L. Davant
- 1967.III.9 Girixtinoen kontzientzia eta nazionalismoa. Gratien Bidart
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.III.16 Gernika. Etxezaharreta
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.III.23 Itsasu. Aberri eguna. Enbata oldea
Garaziko deputatu berriari. Eñaut Etxamendi
- 1967.III.30 Mugaz bestaldeko berri. Aberri eguna
Aberri eguna Itsasun. Lekukoa
- 1967.IV.6 Mugaz bestaldeko berri
Iruñan nintzen L.E.

- 1967.IV.13 Mugaz bestaldeko berri
Branka. Irakurle bat
- 1967.IV.20 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.IV.27 Mugaz bestaldeko berri
Karlismoa nagusitu. Etxezaharreta
- 1967.V.4 Maiatzaren lehena Donostian. Gazte bat
Mugaz bestaldeko berri
Karlismoa nagusitu. Etxezaharreta.
- 1967.V.11 Udako radiorik ez dugula izanen
Mugaz bestaldeko berri
Hazparnen zertan giren. CFDT
Direla 30 urte: Gernika. L. Etxezaharreta
- 1967.V.18 Mugaz bestaldeko berri
Batasun baten behar gorrian. (Auzapezen biltzarra)
Urrats handi bat. C.L. (manif Hazparnen)
- 1967.V.25 Udan ez dugula "gure" radiorik ukanen
Galda ezazue eta izanen duzue. Karkana
- 1967.VI.1 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.VI.8 Mugaz bestaldeko berri
Eskual radioaz. P. Etxezaharreta
Hazparnetik Baionara. CFDT
Gipuzkoan
- 1967.VI.15 Mugaz bestaldeko berri
Radioak eskuara ixil arazi. Panpili
- 1967.VI.22 Mugaz bestaldeko berri
Gure lotsagarria Yon Etxaide (Xalbador Anoetan)
Urepele, piaia ederra (Donostiara)
Donostiako pertsulari egun handia. M. Itzaina
Kantu ta kantari berri. R. Camblong
- 1967.VI.29 Radiotik igandeko meza euskaraz. L.L.
Donostiako pertsulari egun handiaz. M. Itzaina
- 1967.VI.29 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.VII.6 Eskuara radioan uda huntan ere
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.VII.13 Mugaz bestaldeko berri
Eskual radioaz: Kasu huni. (predikua frantsesez, eliza buruzagien manuz?)
Anoetatik lekora. Panpilli
Herri gizonen batasunaz. R. Camblong
- 1967.VII.20 Mugaz bestaldeko berri
Eskuara radioaz. M. Inchauspe

- 1967.VII.27 Eskual radioaz (predikuak euskaraz!)
Udatiarrekilan. Mañex Ibaralde
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.VIII.3 Mugaz bestaldeko berri
radioaz. Panpilli
Quebec libre. Jean Louis Davant
Radioa eta euskararen eguna. (predikuak frantsesez)
- 1967.VIII.10 Eskualdun batek dei egiten dauku.
Mugaz bestaldeko berri
Eskualdun baten deia (iheslariak kanporatuak)
Eskual radioaz. C.L. (predikuak frantsesez)
Cote d'Ivoiretik. Eskale eta urgulu. Arbelbide
- 1967.VIII.17 Mugaz bestaldeko berri
Hiru Eskualdunek izkiriatu daukute. (iheslariak)
- 1967.VIII.24 Eskuarazko radio eta beste
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.VIII.31 Mugaz bestaldeko berri
Eskual radioaz (Donamartiri) J.B.L.
- 1967.IX.7 Mugaz bestaldeko berri
Eskual herria lehenik. J.L. Davant
Donamartiri: J Hazparnekoari errepostu. JB Larramendi
Hiru euskaldunen berri
- 1967.IX.14 Jose Etxabe kasatua
Mugaz bestaldeko berri
3 hautagai abertzaleen argazkiak
Bi urrats balios. J.L. Davant
- 1967.IX.21 Hauta esperantza. J.L. Davant
Mugaz bestaldeko berri
- 1967.IX.28 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.X.5 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.X.12 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.X.19 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.X.26 Arantzazuko lege berriek zer ekartzen daukuten. Kalakari
Mugaz bestaldeko berri
Mugaz bestaldean ez ote da beste berririk? Bidasotar batek
- 1967.XI.2 Mugaz bestaldeko berri
- 1967.XI.9 Hazparne aldeko gazteak kurri. J.P. Mendiboure eta M. Dubois.
Erreboluzione baten erroak. J.L. Davant
Hegoalde

- 1967.XI.16 Erreboluzione baten erroak. J.L. Davant
Hego alde
Hegoa eta Enbata. R. Camblong
- 1967.XI.23 Rusiatik Eskual Herrira. J.L. Davant
Hego alde
R. Camblongi errepostu. Mendiboure eta Dubois
- 1967.XI.30 Hego alde
Mugaz bestaldeko berrietaz. Bizkaitar bat
- 1967.XII.7 Hego alde
EH Iparraldea libro ote da?
- 1967.XII.14 Hego alde
- 1967.XII.21 Hego alde
- 1967.XII.28 Baiona: Enbataren biltzarra. Enbata oldea
Hego alde
Paueko ikaslek oldar berri bat. L. Etchezaharreta
- 1968.I.4 Hegoalde
- 1968.I.11 Hegoalde
- 1968.I.18 Bretainia handia gurekin. J.L. Davant
Hego alde
- 1968.I.25 Hego alde
- 1968.II.1 Hego alde
- 1968.II.8 Eskual radiorik ukanen ote dugu?
- 1968.II.15 Hego alde
- 1968.II.22 Hego alde
- 1968.II.29 Eskualduna jalgi hadi plazara. M.U.
Hego alde
Zaintzaleak eta zanpatzaleak. Eñaut Etchamendy
- 1968.III.7 Nafarran eskual kultura nahi dute piztu. Ramuntxo Camblong
Nafarraz bi kantu (Labeguerie eta Echamendy)
- 1968.III.14 Zer abantail luke Eskual Herriak, Espainia Merkatu komunean
sar baladi? J.P. Lafaurie
Hegoalde
Eskuara radioan
- 1968.III.21 Mugako apez. P. Larzabal
Hego alde
Euskadik abantail onak Europako merkatu berrian. M. Pagola
- 1968.III.28 Mugako apez. P. Larzabal
Hazpandarrak beren gain. Ramuntxo Camblong
Radiotik eskuaraz
Hego alde

- 1968.IV.4 Mugako apez. P. Larzabal
Hazpandarrak beren gain. Ramuntxo Camblong
Hego alde
- 1968.IV.11 Goiz guzietz eskuara radiotik
Mugako apez. P. Larzabal
Lana Euzkadin. Gexan Lantziri
Hego alde
Aberri eguna
- 1968.IV.18 Matalas Mithikile Goihenetxeko seme bat. J.L. Davant
Eskualdun bat eskualduner eskuaraz. Sauveur Narbaitz
Mugako apez. P. Larzabal
Hego alde
Bizkaitik: Intelektualak. Gerrikagoitia
- 1968.IV.25 Mugako apez. P. Larzabal
Hego alde
- 1968.V.2 Matalaz antzerkiaz zenbeit gogoeta. J.P. Etcheverry
Mugako apez. P. Larzabal
Hegoalde
- 1968.V.9 Matalaz antzerkiaz zenbeit gogoeta. J.P. Etxeverri
Mugako apez. P. Larzabal
Bastidako bozak
- 1968.V.16 Hego alde
Auzi baten ondorioak. J.P. Lafaurie
- 1968.V.23 Matalas antzerkiaz zenbeit gogoeta. J.P. Etcheverry
Hego alde
Mugako apez. P. Larzabal
Enbata oldearen deia. Enbata
- 1968.VI.6 Eskualdunek bakea nahi dugu. J.L. Davant
Hego alde
- 1968.VI.13 Hego alde
Eskual herriko deputatu gaiak
Ikaslek unibersitate berri bat nahi. L. Etxezaharreta
Bozkak (Enbata)
- 1968.VI.20 Ikaslek unibersitate berri bat nahi. L. Etxezaharreta
Hego alde
Bozkak (Enbata)
- 1968.VI.20 Deputatu gaiak mintzo.
- 1968.VI.27 Matalaz eta gerla. Xipri Arbelbide
Hego alde
Bozemaileri eskerrak (Enbata)

- 1968.VII.4 Eskualdunak eta ordrea. J.L. Davant
Hego aldetik bi oharpen. P.E.
Ez gira gaizki bizi. Joanes Aldeko
- 1968.VII.11 Hego alde
Hego aldetik errepusta P.E. jaunari
Eskual radioarekin zertan giren
- 1968.VII.18 Hego alde
Ez dira denak gostuan bizi. J.L. Davant
- 1968.VII.25 Eskuarazko meza radiotik
Aitoren semeak. E. Etchamendy
Hego alde
- 1968.VIII.1 Hego alde
- 1968.VIII.8 Bi gogoeta. P.J. Abertzalea
Hego alde
- 1968.VIII.15 Gure gazteak zertako doatzi Eskual Herritik ihesi. J.L. Davant
Jende molderik badutenez Eskualdunek. P. Larzabal
Hego alde
- 1968.VIII.22 Eskual Herrian nahasmendu gaitzak. J. H.-U.
Jabeak ez ditu dretxo guziak. J.L. Davant
Hego alde
- 1968.VIII.29 Radiolarier. D. Landart
- 1968.IX.5 EHk bere haur guziak hazten ahal ditu. J.L. Davant
Apezer. D. Landart
Hego alde
- 1968.IX.12 Hego alde
- 1968.IX.19 Gure herri gizonak mintza ditela. J.L. Davant
Sal! D. Landart
Hego Eskual Herriko anaieri. Eskualtzaleen biltzarra
Hego alde
Eskualtzaleen biltzarra eta politika. M. Pagola
Hazparne. (resurrexit) Hil ala bizi
- 1968.IX.26 Udazkeneko sapa. J.L. Davant
Hego alde
Frantziaren eskualdekatzea M. Pagola
- 1968.X.3 Gizona ez da ogi hutsez bizi. J.L. Davant
Beti gai berak. D. Landart
Hego alde
- 1968.X.10 Berma denak gure Herriaren salbatzeko. B.L.
Arantzazuko biltzarra. Aditzale bat
Hego alde

- 1968.X.17 Ikurriñarik gabe. D. Landart
Lan billa. Gerrikagoitia
Aranzazuko biltzarraren ondotik X.G.
- 1968.X.24 Hiltzera zoan herri bati indutziarik eman dio bizi. G. Lantziri
Ez gaituzte bestek salbatzen ahal. J.L. Davant
Hego alde
Biarnesek egin dutena zertako guk ez. P.L.
- 1968.X.31 Bi apezpiku eskualdun hil zauzkigu
Eskuararen ikasten ari
Iruñetik berri zonbait. G.L.
Hego alde
Ibañeta. D. Landart
Norat doan EH. (Luberriaga). Larzabal
- 1968.XI.7 Iruñetik berri zonbait. G. Lantziri
Hego alde
Mugica jaun apezpikua. P. Charriton
- 1968.XI.14 Haundiek saltzen gaituzte. F.B. Larzabal
Eliza eta Euskalerrria. P. Charriton
Hego alde
- 1968.XI.21 Iruñetik zonbeit berri. G. Lantziri
Haundiek saltzen gaituzte. F.B. Larzabal
Hego alde
- 1968.XI.28 Eliza eta Euskalerrria. P. Charriton
Frantziaren eskualdekatzea, baina nolakoa? M. Pagola
Iruñetik zenbeit berri. G. Lantziri
Hego alde
- 1968.XII.5 Iruñetik zonbeit berri. G.L.
Hego alde
- 1968.XII.12 Hego alde
Bi Eskualdun mota. Hazparne
Eliza eta Euskalerrria. P. Charriton
Euskalzaindiaren 50. urteburua Iruñen. Gexan Lantziri
- 1968.XII.19 Hego alde
Manex Pagolaren dizka bat
Betroinak betroinaren alde
- 1968.XII.26 Hego alde

PIARRES LAFITTE EUSKALTZAINA ETA EUSKALTZAINDIA

P. Charritton

Piarres Lafitte Baionako seminarioan sartzean baizik ez zelarik lotu se-rioski euskal ikerlanei, Anxuberro bere irakasleak gomendatu zion bezala, ha-ren bibliografiari soako baten egitea aski da ohartzeko, zinez, denbora labur-rik barne, urrats handiak egin zituela bide luze horretan: doi-doia, hogeï urte zituen alabaina Ithorrotzar apezgaiak, *GURE HERRIA* aldizkari berrian argi-taratu zelarik, 1921ean, “Le Labourdin dans Ithurry”, titulupean, bere lehen artikulua.

Bizpahiru urteen buruko, 1924eko lehen saria eman zion Euskalzaleen Biltzarrak Piarres Lafitteri, *Lihooz* egin euskal itzulpen ederrarentzat eta ge-roztik, bizi guziko adiskide bilakatu ziren sari emalea, Biltzarraren Burulehe-na, Jean Etchepare mirikua, eta honek sariztatu apez berria.

Ondoko urtean aldiz, euskalzale gaztea, Frantzia behereko Tolosara joan zelarik, letretako lizentzia prestatzera, beste adiskide handi bat egin zuen han-go irakasleen artean, Pierre Lhande Heguy aita jesuita eta, ondorioz, geroxe-ago, euskaltzain ziberotarrak hasi berria zuen *Euskal-frantses hiztegia*, beren gain hartu zuten Pierre Lafitte eta Philippe Aranart haren bi ikaslekidek; 12 urteko lan itzelari esker biek bururatu baitzuten Uztaritzeko apezgaitegian ira-kasle zirelarik eta argitaratu Parisen, Beauchesne baitan, 1938an.

Anartean bada eta, Piarres Lafitte, 1928ko azken ikasturtearen ondotik, Uztaritzen kokatzekoa zelarik oraino, Resurreccion Maria Azkue Euskaltzain-buruak gutun bat bidali zion Tolosara, jakinarazteko, euskaltzain guztiek aho batez hura hautatu zutela, Georges Lacombe jaunak gomendaturik, euskaltzain urgazletzat, Jean Baptiste Darricarrère zenaren ordezkatzeko.

Kargu berria onartu orduko, euskaltzain urgazle berriak izan zuen Gre-gorio Maidagan apez zadorlariaren mezu bat: Azkueren partez eskatzen zion “literatura griega eta latinatik zati egokien batzuk euskarara bihurtzea”, baina ez dirudi Piarres Lafittek ihardetsi ziola eskabide horri. Erran genezake, izai-tekotz, gure maisu zena, hain gazterik Euskaltzaindian sartua izanagatik, Eus-kaltzainburuaren eta haren lankideenganik aski urrun egon zela, hogeï bat ur-tez bederen, hots, bera euskaltzain oso izendatua izan arte.

Urruntasun horren konprenitzeko, gogoan hartu behar ditugu urte luze horietan Lafittek beregain eraman zituen egiteko harrigarriak: 30eko hamarraldian, jadanik aipatu dugun aita Lhandek abiatu *Euskal-frantses hiztegi*az bestalde, urtez urte argitaratu zituen alabaina besteak beste: *Eskualdunen loretegia* eta *Simon Durruty apezaren eliza liburu ttipia* (1931), *Ithurralden kantuak* (1932), *Egiatzko argia* antzerkia eta *Eskual-herriaren alde* politika deia (1933), *Koblakarien legea* (1935), *J. Etcheparen Buruchkak* (1938), *Jesu Kristoren bizitza edo ebanjelio ttipia* (1939) eta, azkenik, nola ez aipa, aspaldian prestatzen ari zuen eta 1943an agertu zen *Grammaire Basque*, nafar-lapurtar euskalkien gramatikaren lehen argitalpena.

Ez du bada horrek erran nahi, urte haietan, Piarres Lafittek ez zuela harremanik izan Hegoaldeko euskaldun eta euskalzale askorekin, alderantziz bai-zik. Badirudi ezen, *Eskualduna* astekarian, *Gure Herria* aldizkarian eta bereziki *Aintzina* kazetan hark berak idatzi artikuluak, eta ere haren gutundegia aztertu ondoan, Amelia Hernandez, Pako Sudupe, Jean Claude Laronde edo beste ikerle batzuek egin lanek erakusten dutela zer ararteko paregabea izan zen gure Uztaritzeko irakaslea 30 eta 40eko hamarraldietan, bi Euskal Herrietako herritarren artean.

Bere belaunaldiko lagun batzuekin izan zituen ordea, zuzen den bezala, harreman tinkoagoak Piarres Lafittek, 36 eko gerla aitzinean, Aingeru Irigaray nafartarrarekin adibidez, eta gipuzkoar apez euskalzale batzuekin: hala nola, *Euskaltzaindiko Laguntzaileak* taldearen izenean mintzo zitzaion Martin Lekuonarekin, edo *Euskalzaleak taldearen Yakintza* -ko Jose Ariztimuño Aitzolekin edo Antzekilari gazteekilako Markiegi apezarekin. Zilegi izanen ahal zaigu ohartzea, hiru apez horiek Espainiazale nazionalistek fusilatu zituztela 36eko gerlaren lehen egunetan?

Erran behar dugu ere egun ilun horietan, Piarres Lafittek ararteko lanak egin zituela, Iruñeko jazarleen partez proposamen batzuk Euskal Alderdi Jeltzalearen buruzagiei berak eramanez Donostiaraino. Debaldetan zorigaitzez, Donibane Garaziko Louis Inchauspe jaunaren karta labur batek finkatzen duen bezala, 1936eko agorrilaren 10ean.

Dena dela, badakigu denek zer laguntza ekarri zien gero gure irakasleak, gostarik gusta, gerlaren ondorioz, Iparralderat etorri ziren Hegoaldeko ihesliari eta handiei.

36eko gerlaren ondotik etorri zen ordea laster 39koa eta erran genezake ez direla horretan erraztu Euskal Herriko lurraldeen ala belaunaldien arteko harremanak. Hortik menturaz gure irakasle ohiari kausitzen ohi baigenion, gerlaz geroz, guk gaztek, politika eta kultura xede handiei buruz halako ezkor edo uzkur aire bat.

Orixerekin *Eusko Jakintza*-n izan zituen hika-mika gazi-gezak, jostagailu geneuzkan, baina begirune handiz mintzo zitzaizkion Azkue, Zaitegi edo

Narbaitz batzuen aldera zeukan hoztasuna ez genuen beti ulertzen. Zernahi dela, 1949ko urriaren 25ean, Piarres Lafittek euskaltzain oso bezala, Georges Lacomben alxia hartzeko sarrera hitzaldia bere hutsen eta bekatuen umorezko barkamen eske bat eginez hasi zuen, kantatzen zuela: "*Lurraren pean sar nindaiteke maitia zure ahalgez..*"

Zertaz zuen bada bekatoreak nahi ahalgetu eta urrikitu?-"*Orai artio ez nitzaizue biziki urrundik baizik jarraiki...*", zuen aitortu umilki Piarresek. Baina guri iduritzen larriagorik bazuketela denek gogoan, ez baitzuen oraino nehor ahantzia, bospasei urte lehenago, euskaltzain berri horrek berak idatzi zituela, bere Gramatika famatuaren aitzin solasean, lerro etsitu hauek, guhaur euskaraz jartzera ausartuko garenak:

"Autore batzuek amestu dute euskararen bateratzea iraultzabidez, beste batzuek bilakabidez. Gogoan ditugu alde batetik Azkue apezaren gaztaroko lanak eta aita Soloeta-Dimakoarenak, esperantoarekin eta volapükarekin egin ohi den bezala, gramatika elementuak edozertarik osatzera lehiatzen zirelarik eta bestaldetik ari gara Euskal Akademia defuntuaren proiektu batzuek, zuhurtziarekin erabakitzen baitzekien, baina mortuaren erdian legeak aldarrikatzen: menturaz lasterregi zoan, gure eskualdearentzat bederen, gipuzkera hartzen zuelarik euskara literarioaren lehen oinarrizat".

Egia erran, guhaurk azpimarratu ditugun "Euskal Akademia defuntuaren" hiru hitz larri horiek ziren soberakin 1943ko gramatikaren edizioan, beste guztiak beren hartan atxikirik ere Piarres Lafitte nehor bezain on zen, Iparraldetik ekarriko zituen René Lafon, Jacques Allières, Jean Haritschelhar eta beste hizkuntzalariekin, 50/60 eko hamarraldietan, Hegoaldean Azkue eta Urkixo itzali orduko, belaunaldi berriko Mitxelena, Villasante eta Altuna, Krutwig eta Txillardegi, Irigoyen eta San Martin batzuen partialier izaiteko eta, Euskaltzaindiaren hastapenetan Azkue eta Broussainek asmatu eta amestu "*euskara bakunaren*" xede handiari berriz lotzeko.

Euskaltzaindiaren beraren argitalpenetan eta artxiboetan, bai eta *Zeruko Argia*, *Euzko Gogo*a, *Herria* edo beste aldizkarietan ikus dezakegu zer izan zen Piarres Lafitte eta Iparraldeko lagunen eragina "H" letraren batailetan, *Aditz batuen* antolaketan eta azkenik *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak*-en abiaduran. Ez gara horretan sartuko.

Eta erran behar dugu euskaltzale lagunek eta hizkuntzalari jakintsunek ekartzen zioten estimuaren seinaleztat hartu zituela, gure irakasle zenak, 1968an Pariseko *Centre National de la Recherche Scientifique* goi-erakundetik etorri zitzaion deia, 1982 an Euskal Herriko Euskal Unibertsitateak egin "Doctor Honoris Causa" izendapena eta azkenik urte berean Euskaltzaindiak eskaini IKER II omenaldi liburua.

Bizkitartean, gure ustez, Piarres Andiazabal kalonjeak ongi zaintzen duen Piarres Lafitten gutundegia argitaratuko delarik jakiten ahalko da hobeki zer

izan den zuzen gizon horren partehartzea, 1949tik 1985era, euskaltzain oso bezala ibili dituen urratsetan.

Adibidez, *Euskara batuaren auzia* berotu ala mindu aitzin, hots, 1950etik 60rako hamarraldian zer girotan zegoen Euskaltzaindia ikusteko eta kinka larrietan zer bidetarik zebilen gure maisua ulertzeko zilegi izanen ahal zait Aingeru Irigaray aspaldiko adiskide handiari, 1962 irian, bidali zion gutun luze hau, komentariarik gabe, solas ondotzat irakurtzea.

(1962...)

Adiskide Jauna,

Ondar denbora hautan ez gira zuen aldetarikako berririk gabe. Eta, egia erran, buru-joangarri da ikustea gure Eskualzaindi xaharra gisa hortan zatiakatu.

Hunaindiko eskualdunek auzi hortan sartzeko esku-biderik badugun gaude, baitakigu Eskualzaindi guzia zuen arteko diru xoilak deramala, eta gu bizkarkin bezala aurkezten girela zuen artean, nahiz bethi ongi hartuak eta ederki artatuak.

Bertzalde, nahiz zonbaitek dioten, bazterretik gauzak askotan hobeki ikusten direla, atsoitzak dio: « urrungo eltzeta urhez, harat orduko lurrez ».

Gure aburuek zer balio duten ez dakit, baina hasian hasi huna neure ikusteko manera.

Iduri zait Akademia, aspaldiskoan, ez dela estalgi nasai bat baizik: agintarien begietan gerizatzen ditu eskuararen alde eginikako asko jai, zoin gehiagoka, sariketa, liburu agertze eta holako. Ez da gauza apurra, segur eta halere; eta hauspean erdi-bizi zen pindarrari garra ateratzeko errestasunen emaita izan da obra bat zaila eta merezimendu handikoa. Baditake, behin edo bertez, Akademia zuhurregi edo herabegi aurkitu duten zonbaitek; baina nik ez diot hortan haririk aurdikiko, hain zuzen hura nun den ez baitakit: zuhurtziaren izenean alderdikari izan ditakela ere, erran dute; baina bana-bertez iduri zait Akademia ez dela izan hain hertsia: aise da erraitea, ardietsi ez dituen baimenak ez zituela, beharbada, izaiteko gisan galdetu! Frantsesez “procès de tendance” erraiten diotegu aieru horieri.

Beraz Akademiak denen eskerrak hartze ditu, eskuarari eta eskualzaleri egin dioten laguntza eder horren gatik.

Baina ez dut uste Eskualzaindiaren eginbideak hortan direla mugatzen. Eta ez badu kasik bertzerik egiten, hori heldu da lehen-lehenik egiazko buruzagi baten eskasetikan. Azkue bere azken urtetan ez zen itzal bat baizik, izan zenaren ondoan. Ertlikia saindu baten pare ohoratzen ginuen, baina ez zuen gehiagu deus ere ez manatzen, ez kudeatzen. Oleaga gaizoak zadorlariitza zeraukan prestu-pres-tua, eta ez ginen lanho-arte hortarik ateratzen! Gero Echaide jauna etorri zaiku, bethi maitagarri, baina gemenik gabe, eritasunak ahuldua. Hunek ere ez dauku behin ere lanik agindu, ez xederik aurkeztu. Eta, erran badezaket, ondarrerat gauzak mandotik astora joan zaizkigu. Zadorlariaren mutila, A.I. jarri zaiku denen kudeatzale; hots, morroina nagusi. Bertze nehork ez baitzuen eskualzainetan ma-

natzeko ausartziarik, mutila ikusi dugu eskualzainen itzain; eta nik ez dut batere arrotz atzemaiten, izana jadanik zuenak nahi ukan baitu eskualzain izena ere ardietsi. Ofizioa utzi ziotenaz geroz, zertako ez titulua ere eman? Nago, bururaino joaitekotz, ez litaken buru ere ezarri behar!!! Funtserat-eta, A.I. gazteari ez diot nik hobenik botatzen; izaitekotz, gu gira hobendun, eskualzainak, gauzak hortaraterat utzi ditugulakotz, gemen eskasez, edo ezinbertzez.

Bainan badut uste A.I.-ren izendatzeko maneraz kexu direnek arrazoin dutela: indarkako ukaldi baten itxurak baditu, Eskualzaindiko arauak kasu horretan baztertuak izan baitira. Gure gustuko, izendatze hori berriz egitekoa da: hiru eskualzainek aurkeztu dezatela, eta gero izkiribu horren gainean eman bedite bokak, eta legez izendatua izanen da.

Haatik ez gira munduaren azkeneraino buruzagirik gabe egoiten ahal. Norbait... behar dugu, manatzaille. Araudiak ez du ekartzen hil-artinokoa izendatu behar denik. Bizpahiru urterentzat ongi litake. Erran gabe doa "citoyen espagnol" beharko dela, asko arrazoin bixtan direnen gatik. Bainan otoi ez ezar aitaso zahar akiturik, eta ahalaz ez apezik ere.

Geroko izendatzeari buruz izanen da zer egin. Guk, Lapurdi-aldekoek, ez dugu pleinitzeko arrazoinik, alkiak nasaiki eman dauzkutue; bainan biziki xuhur ez ote den izan Eskualzaindia bertze Eskualde batzueri buruz, eta hori behar bada, ala ez azolez ala batzuen beldurrez? Nik ez dakit, bainan aditu izan dut, azken denbora hauetan eskualzaindia bilakatua dela giputch-zaindia, hots, zombaiten eskuetan dagola eroria eta hain xuxen Gipuzkoako jaun batzuen menean. Hortako omen da kasik Donostian kokatua. Guri iduri zaiku Donostia ez dela hain gaizki hautatua, bide-erditsutan bezala delakotz, bai hemendik, bai Nafarroatik, bai Bizkaiatik. Bizkitartean hedamenaren gatik noizean behin Donostiatik ateratzea ez zaiku batere gaizki; eta hortan ere guk ez dugu erraitekorik, bai Baionan, bai Uztaritzen bildu baita jadanik Eskualzaindia, eta berriz etortzekoa ere Belokerat eta Baigorriat segurik, aurthen berean.

Ikusi behar, ea guretzat dituzuen arta horiek, ez litazkeen hedatzen ahal Nafarroarat ala Bizkaiarat. Bilbotar batzuei iduri zaiozte zireztela gu erdi-arrotzentzat dena agur, eta hurbilekoentzat muttur! Ez dut, egia erran, batere sinesten halako alderdikariak zireztela: halere kasu egin behar ginuke denek, ez ote ditugun aisegi baztertzen garbizale batzu, ez direlakoan gure eskuara herritarraren alde. Zuharek diozun bezala: Eskualzaindiak gora atxiki behar du bere burua.

Bilbotar anaia horiek ezinago minberak dira eta idurikorrak. Erranen dautzut gure departamenduan halako zerbait iragaiten dela. Gu eskualdunek ez dugu Baiona baizik gogoan, bainan Pau-en baita departamenduko hiri-nausia, iduritzen zaiku han beti gure kontra ari direla, dena azpikeria eta faltsokeria, eta askotan harrituak daude biarnesak nundik atheratzen ditugun gure ixtorioak, uste gabetarik zaurtu gaituztelarik. Inchauspe jaun zena Paueko Deputazionean buru izan zenaz geroztik, aitortuko dautzut Biarnesekilakoa arras eztitu dela beharrik, eta eskualdunak ez girela lehen bezain idurikorrak. Banago ez denetz holako zerbait gertatzen bilbotar haurrideekin. Ez ditugu sumindu behar, eta are gutiago baztertu behar: batasuna orotan galde egiten-eta, itsusi eta kaltegarri laiteke nolazpait ez elgar aditzea.

Letra luze hunek nahi zaitu argitu gure aburuez; behar bada lagunduko zaitu, heldu den biltzarraren apailatzen zure adixkidekin. Ez dautzut batere segeturik galde egiten, eta erakuts dezakezute zure Donostiako eskualzainkideri, bereziki Lecuona, Arrue, Michelena jauneri. Igorri dautzut, Dassance eta Eppherre jaunekin hitz egin ondoan, baina ez heien partez: beude ene gain hemen erranak.

Gauzak naski gordinkisko atera ditut, baina ez dira Eskualzaindian irakurtzekoak, ongi elgar ezagutzen dugunen artean baizik. Zuhauk ikus funtsean nori on zaitzun parte emaita, zerbait antolamendu egitekotan.

Zure aspaldiko

P. Lafitte

Bizkitartean ez nuke hitzalditto hau bururatu nahi, ene izenean, eskerrak bihurtu gabe, haren seme-alaba anitzek erraten genion bezala, aita Lafitteri eta ez bakarrik gaztaroan bidegile apartekoa izan dudalako, baina ere bai ene Ameriketako itzulia ene gisala egin ondoan, deus ez balitz bezala, besoak zabaldu dizkidalako eta zahartzaroko eskumakilatzat nolazpait hartu nauelako.

Eta horrela dut ikasi, adinean han hara goazenak, langile handienetarik izanik ere, bururatu gabeko lanak utzirik joan behar garela, hala nola, Piarresek ez zuen argitaratu amestua zuen Leizarragaren edizio kritikoa, ez eta ere euskaldunei euskaraz eskaini nahi zien Euskal Literaturaren Historia, baina hori beste kapitulu bat liteke. Bego horretan!